goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2011-01-14
EGUBAKOITZA
448. ZENBAKIA
11. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## Danbakako finala gaur Espaloian


Atom Rhumba. | GOIENA

Xarma, Lord Witch eta Desprezioren artean erabakiko da irabazlea, 22:30ean hasita. Talde gonbidatua: Atom Rhumba. | 31

DANBAKA



Iñaki Toledo antzuolarra bigarren Espainiako oilagor txapelketan | 25

Bailaran 100 ordezkari sindikal gutxiago aukeratuko dira | 2



Etxean erabilitako olioa batzeko zerbitzu berria abiarazi du Mankomunitateak | 4

# MUNDUKO SNOW TXAPELKETAN



Manex Azula Bergarako 15 urteko rider gaztea Bartzelonan izango da bihar, zapatua, Palau Sant Jordin jokatuko den munduko snowboard txapelketan; gazteegia da lehiatzeko, baina txapelketako inaugurazio ekitaldian egingo duten *big air* proban lehen saltoa egiteko gonbidatu dute. Maila handiko riderra da, eta horregatik egongo da han. | 18

**Manex Azula, Bergarako Labegaraietako grafiti baten ondoan.**

XABIER URTZELAI

## Zubi berria jartzen ari dira Arrasaten

Ospitalea eta haren ingurua eskurago izango dute oinezkoek | 12


Asteon hasi dira zubia jartzen. | U.M.

## Debagoieneko kirolari onenek hilaren 21ean jasoko dute saria Aramaion egingo den ekitaldian | 28

dks '10
debagoieneko
III. kirolsariak
Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?
Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia
Urtarrilak 21 ostirala
Aramaioko Kultur etxean / 19:00
egin zure proposamena!
www.kirolsariak.com

DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | GUTUNAK 6 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

# Hauteskunde sindikaletan ere igartzen dabil krisia

- Irailetik maiatzera arte, lau urteotarako ordezkariak aukeratzen dihardute enpresek
- Krisiaren eraginez langile gutxiago dago, eta, horren ondorioz, ordezkari gutxiago ere bai
- Sindikatu nagusiak pozik daude emaitzekin, ez da–eta gorabehera handirik izan

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Ezaugarri bereziren bat baldin badute 2010-2011ko hauteskunde sindikalek, hauxe da: aurreko aldian baino ordezkari askoz gutxiago aukeratu direla. Hala, Debagoienean 530 ordezkari sindikal inguru aukeratu ziren aurrekoan, orain lau urte; bada, oraingoan, 430 inguru aukeratzea tokatzen da. Horrek arrazoi garbi bat dauka: zentsua; hau da, langile kopurua txikiagoa dela. Enpresa batzuk itxi egin dituzte; beste askotan, kaleratzeak egon dira. Beste batzuetan, inork ez du bere burua hautagai izateko aurkeztu, eta ez dira hauteskundeak egin.

Hauteskunde politikoekin gertatzen den moduan, momentuko egoerak –kasu honetan, krisiak– gainetik eta oso gertutik hegan egindako hauteskundeak izaten dabiltza hauek. Krisia islatu da, batik bat, enpresa kopuruan eta langile kopuruan; ez hainbeste emaitzetan, ordea, nahiz eta ezuste batzuk ere izan diren han-hemenka.

Iraila bukatutakoan, eta Deba bailara osoa (Debabarrena barne) kontuan hartuta, hauek ziren emaitzak: 1.002 ordezkari aukeratzen ziren, horietatik gehienak (635) metal arlokoak. ELAk jarraitzen du bailaran ordezkaritza handiena duen sindikatua izaten: esandako epean, 426 ordezkari lortu zituen (%42,51); bigarren, LAB (276 ordezkari, %27,54); hirugarren, CCOO (163 ordezkari, %16,27); laugarren, UGT (79 ordezkari, %7,88); eta gainerako 58 ordezkariak (%5,79) banatu ziren ESK eta beste sindikatu batzuen artean.

### ELA nagusi Debagoienean ere

Indar sindikal bakoitza banaka hartuta, hauek dira bakoitzaren emaitza batzuk, hauek Debagoienera mugatuta: ELAk gehiengoa lortu du Aita Mennin (ordezkari guztiak, 13ak, bereak izango dira), Natra Zahorren, Hijos de Juan de Garayn, Recyden, Elay Industrialen eta beste leku batzuetan. LAB nagusi izan da, besteak beste, Arcelorren, Bergarako Udalean eta Arrasateko Udalean; Euskadiko Langile Komisioek (CCOO) Oñatiko Katean bostetik bost ordezkariak lortu ditu, eta Eskoriatzako Udaleko ordezkaria ere; eta ESKren lorpen nabarmenetako bat izan da Bergarako Udalean zuen ordezkaritza hirukoiztea.

Hauteskunde epea irailean hasten da, eta maiatzean oraindik ere bozkatzen dute enpresa batzuetako langileek. Hala ere, hilabete intentsuenak izaten dira irailetik abendura artekoak: tarte horri epealdi trinkoa deitzen diote sindikatuek, eta hor aukeratzen dira ordezkari sindikalen %60 eta %70en artean. Normalean, metalaren sektoreko enpresek bozkatzen dute lehenengo; gero, irakaskuntza eta osasun arloa izaten dira –baina horiek erkidego autonomo bakoitzak egiten duen egutegiaren arabera antolatzen dira–, eta administrazioak ere tarteka izaten ditu; oraingo hauteskundeetan, esaterako, Bergarako Udaleko hauteskundeak atzeratu egin dira eta joan den astean izan ziren. Esan bezala, LABek atera du gehiengoa, 13tik zortzi ordezkarirekin; ELAk eta ESK-k hiruna atera dute, eta LABek eta ELAk bere lehengo emaitzei eutsi diete; ESK-k bi ordezkari irabazi ditu. Bergarako Udalaren kasua –eta erakunde publikoen kasuan ere hala da– salbuespena da: horietan, langile gehiago dago aurten orain lau urte baino. Bergarako Udalaren kasuan, esaterako, 2006an 143 langile zeuden erroldan, eta 12 ordezkari aukeratu zituzten; orain, 177 daude, eta 14 ordezkari aukeratu dituzte. Administrazio publikoetan zentsua handiagoa da orain, baina hori da salbuespen bakarra.

Bailarako ordezkari sindikalek esaten dutenez, orokorrean 2006ko emaitza antzekoak izan dira, gorabehera batzuekin. Hala, Debagoieneko udaletan ezustekoak izan dira: ordezkari bakarra duten udal batzuetan, zeinuz aldatu da botoa. Hala, Antzuolan eta Aretxabaletan, ELArendako izan da ordezkari hori, orain arte LABena zenean. Eskoriatzako Udalean, berriz, ELAk galdu egin du bere ordezkaritza, CCOOren mesedetan. Arrasaten, LABek izan du gehiengoa, eta Oñatikoan, ELAk.

Dena dela, datozen aste eta hilabeteetan, Debagoieneko enpresa garrantzitsu askotan egingo dituzte hauteskundeok: Auzo Lagunek eta Lagun Aro aseguru enprsak otsailean izango dituzte; Bergarako Candy Hooverrekoek martxoan aukeratuko dituzte bere 13 ordezkariak, eta Gelmakoek ere hilabete horretan izango dituzte hauteskundeak; Oñatiko Energía Portatil enpresako lantaldeak 9 ordezkari aukeratuko ditu, eta Chinchurretakoak, berriz, bost. Torunsako langileek ere oraindik ez dute bozketa egin, eta, administraziora bueltatuz, Debagoieneko Mankomunitateko langileek ere ez dute oraindik bozketa egin; apirilean izango dute.

### Lehengo antzeko emaitzak

ELAko Debagoieneko arduradun Amagoia Lasagabaster pozik dago izandako emaitzekin: "ELAk Deba eskualdeko ordezkaritza osoaren %42, 88 lortu du, 2006an baino gehiago: orduan %42,58 genuen". Bere esanetan, "oso zaila zen ELArendako bere ordezkaritza-mailari eustea, %40an zegoelako".

Ezin ahaztekoa da, baina, aurtengo berezitasun handia: delegatu kopuru txikiagoa: "Deba bailara osoan, ELAk 445 ordezkarirekin hasi zuen urtea, eta 374rekin bukatu du. EAEn, 1.040 ordezkari zeuden hasieran, eta 872 urte bukaeran". Horretarako hiru faktore aipatzen ditu: "Enpresa batzuk itxi egin dira; eta beste batzuetan, zentsua hainbeste txikitu denez, ez dituzte hauteskundeak egin; adibidez, Nemesio Zubian, eta beste batzuetan. Bigarren, enpresa askotan langile gutxiagorekin geratu dira: hala, Elayn hiru ordezkaritik bat aukeratzera pasa dira; Arcelorren, 13tik bederatzira... Bestalde, epealdi trinkoaz ari gara, eta abendurako aurreikusten ziren hauteskunde batzuk urtarrilera atzeratu dira. Eta azkenik, beste enpresa batzuetan inork ez du ordezkari sindikal izateko bere burua aurkeztu nahi izan". Lasagabasterren esanetan, "enpresa askotan pasatu dira hiru ordezkari izatetik bakarra izatera".

LABeko arduradun Jose Ramon Kortabarriak ere balorazio ona egin du epealdi trinkoaz:

**DATUA**

**100**

ORDEZKARI GUTXIAGO

**Langile gutxiago daudenez, ordezkari gutxiago aukeratuko dira aurten: 430 ingurutik 330 ingurura pasa da kopurua.**

**DATUA**

**5**

ORDEZKARI

**Komitea osatzeko, gutxienez bost ordezkari behar da, eta enpresa asko komite barik geratu dira horregatik.**



Irailetik abendura arte aukeratu dira Euskal Herriko ordezkari sindikalen %60-70. | ELA



Bergarako Udaleko langileek martitzenean izan zituzten hauteskunde sindikalak. | LEIRE KORTABARRIA

## Hemen ere posta bidez bozka daiteke

**PROZESUA** Hasten da sindikatu batek hauteskundeak deitzeko aurre-abisua egiten duenean. Enpresa-komiteari eta zuzendaritzari jakinarazi behar dio.

**ZENTSUA** Enpresak ematen du. Boto-eskubidea dute gutxienez 16 urte eta hilabeteko antzinakotasuna duten langileek, edozein kontratu mota dutela.

**EPEA** Hautes-mahaia osatzen da, presidente, bokal eta idazkariarekin. Hori egin eta 24 ordu igaro eta gero egin daitezke hauteskundeak. Hamar egun da muga-epea.

**PAUSOAK** Egutegi propioa dute hauteskunde sindikalek, eta pauso guztiak jasotzen ditu: sindikatuek zerrendak aurkezteko, bozkatzeko eguna eta ordutegia ezartzeko, posta bidezko botoa noiz egin daitekeen zehazteko, sindikatuek propaganda egiteko...

**ORDEZKARIAK** Hiru arte hautagai badaude, euren izenean ematen da botoa; hiru baino gehiago badaude, zerrenda itxiak bozkatzen dira.

"Orain arte eutsi egin diogu gure ordezkari portzentajeari: ez da askorik handitu, baina ez da beherakada nabarmenik ere egon. Kasu batzuetan, ordezkari aldaketak egon dira, baina ondorioa da eutsi egin diegula gure emaitzei". Emaitza positibo batzuk aipatzen ditu: Arcelorren gehiengoa izan du LABek; Oñatiko Hijos de Juan de Garayn ordezkari bat gehiago atera dute (lautik bostera pasatu dira); Natran zituzten seiei eutsi diete, Oñatiko Udalean bigarren izan dira eta lehen baino bi ordezkari gehiago lortu dituzte...

Kortabarriak ere onartzen du krisiak eragin handia izan duela honako hauteskundeetan: "Enpresetan eztabaida asko egon dira; langileen artean, zuzendaritzarekin, egoera dela, EREak direla... Gure kasuan, emaitzak hobeak izan dira gure burua berritu dugun lekuetan, betikoa egin dugunetan baino".

ESK sindikatuari dagokionez ere, pozik daude arduradunak orain arte lortu dituzten fruituekin: "Sindikatu txikia gara, eta kosta egiten zaigu besteen pareko emaitzak ateratzea; baina gu geunden lekuetan jarraitzea lortzen gabiltza. Hala, Arrasateko nagusien egoitzan, iaz greba eta mobilizazio batzuk egon ziren, eta ESK-k aurpegia eman zuen orduan; eta botoetan igarri da lan hori. Bestalde, Bergarako Udalean gure ordezkaritza hirukoiztu egin dugu. Horrek guztiak indarra ematen digu", esaten du ESK-ko ordezkari Felix Irizarrek.

Irakurketa orokorrago bat ere egiten du Irizarrek: "Orokorrean, parte-hartze garrantzitsua izan da langileen aldetik; konpromiso handia erakutsi dute. Bestalde, gu sindikatu txikia gara eta ez dugu gorabehera handirik izan. Oso pozik gaude eta, etorkizunera begira, oraindik Candy Hoover enpresako hauteskundeak geratzen dira, besteak beste, eta hor guk gehiengoa izan ohi dugu".

### "Jendea gehiago ohartzen da"

CCOO sindikatua da hirugarren indar sindikala. Debagoieneko ordezkari Julian Feok esaten duenez, hauteskundeak "nahiko ondo" joan dira orain arte eurendako. Emaitza batzuk nabarmentzen ditu: "Eskoriatzan, Alzan, bostetik bost ordezkari atera ditugu; Ezkurran, lautik bi; Tesan, bat. Arrasateko enpresetan ere emaitza onak izan ditugu: adibidez, Polmetasan lau ordezkari; Caldereria Epelen, bat; Arrasate G-Taldea enpresan, hirutik hirurak; Oñatiko Garbilan enpresan ere hiru ordezkaritik hirurak lortu ditugu, eta Katean ere guztiak, bostetik bostak; Bergaran, Izpin, bat; TTT enpresan, bi..."

Euren eskaera garrantzitsuenez galdetuta, Feok esaten du "denon berberak" izan direla; eta hau ere azpimarratzen du: "Hitzarmen probintziala eskatzen dugu, eta ez estatukoa, beste batzuek eskatzen dugula esaten duten moduan. Horrez gain, Gipuzkoako metalaren sektoreak hamar urte eman ditu hitzarmen barik, eta hori ere erreibindikatu dugu".

Krisiaren eraginaz ere hitz egiten du CCOOko bailarako arduradunak: "Krisiarekin, jendea inoiz baino gehiago konturatu da zeinek egiten duen borroka eta zeinek ez. Horregatik lortu ditugu ordezkariak lehen ez geneuzkan lekuetan". Horrez gain, krisiarekin "zailtasun handiak" egoten jarraitzen dutela esaten du, batez ere eraikuntza sektorean. "Eraikuntza pikutara joan da hemen ere", esaten du.

UGTko ordezkariek ere esaten dute enpresak txikitu egin direla eta komite handiak zituzten enpresa askotan, orain komite txikiak geratu direla; eta horrez gain, langileen aldartea edo jarrera ere okertu egin direla, krisiak kolpatuta: "Jendea nekatuta, ilusioa galduta, beldurtuta... dago". Hala ere, "ondo" joan dira hauteskundeok orain arte UGTrendako: "Gure lana ikusi dute eta itxaropena dute. Batzuek galdetzen dute hauteskundeek zertarako balio izango duten, baina gu eurendako sostengu edo laguntza bat gara", esaten dute UGT sindikatuko ordezkariek.

### Ohiko hauteskundeak bezala

Hauteskunde sindikalek, hauteskunde politikoek bezala, euren egutegia daukate. Hasteko, aurre-abisua egin behar da hilabete lehenago: deitu nahi dituen sindikatuak enpresa-komiteari eta enpresari jakinarazi behar dio. Prozesua hasten da, eta enpresak bozkatu dezaketen langileen zentsua ematen du. 16 urte da gutxieneko adina, eta hilabete bat da gutxieneko antzinatasuna; edozein kontratu motako langileek dute bozka-eskubidea. Gero, hautes-mahaia osatzen da presidentearekin (enpresako langile antzinakoena), bokalarekin (langile zaharrena) eta idazkariarekin (langile gazteena). Mahaia osatzen denetik gutxienez 24 ordu eta gehienez 10 egun pasa behar dira hauteskundeak egiteko.

## ESANAK



**"Oso zaila zen ELArendako bere %40ari eustea, baina lortu egin du"**

**"Debagoien eta Debabarrenean nagusi izaten jarraitzen du ELAk"**

AMAGOIA LASAGABASTER | ELA-KO ORDEZKARIA



**"Eutsi egin diegu gure emaitzei: ez da askorik handitu, baina ezta txikitu ere"**

**"Lehen baino ordezkari gehiago lortu dugu zenbait enpresatan"**

JOSE RAMON KORTABARRIA | LAB-EKO ORDEZKARIA



**"Zaila da besteen pareko emaitzak lortzea, baina oso pozik gaude gureekin"**

**"Arrasateko egoitzan borroka egin izana igarri egin da gero bozketetan"**

FELIX IRIZAR | ESK-KO ORDEZKARIA

# Mondragon Unibertsitateak langileei zuzendutako zazpi master berri abiaraziko ditu

## Formatu eta ordutegi aldetik profesionalei egokituta egongo dira

**MIRIAN BITERI** | ARRASATE

Ikasketa berriekin dator Mondragon Unibertsitatea (MU). Hain justu ere, hiru unibertsitate master eta titulu propioko lau master jarriko ditu martxan aktibo dauden profesionalendako. Unibertsitate masterrak honako hauek dira: Enpresen Kudeaketa eta Zuzendaritza (Garaian), Kooperatiben Kudeaketa (*on line*) eta Hezkuntza (*on line*). Titulu propioak, berriz, honako hauek dira: Berrikuntza eta Ekintzailetza (Oñatin), Ekoizpen Ingeniaritza (Arrasaten), Ekoizpen Ingeniaritza (Bilbon) eta Manufakturing-a (Miñaon).

Unibertsitatetik jakinarazi dutenez, 25 urtetik gorako langileei zuzenduta daude horiek, eta, hortaz, ordutegi aldetik eta formatu aldetik aktibo dauden profesionalen beharretara egokitu dago eskaintza berria; hain justu ere, MU+ (Profesional Learning Space) izenekoa. Formatuari dagokionez, presentziazko eskolak eta *on line* eskolak tartekatuko dituztela azaldu dute.

**Ikastaroekin osatu**

Aldi berean, unibertsitatetik azaldu dute aipatutako master horiek aditu-ikastaro, ikastaro aurreratu eta prestakuntza irekiko ikastaroekin osatu egingo direla eta 2011. urtean egin ahal izango direla.

**Etengabeko prestakuntza**

MUren eskaintza berriaren helburua da profesionalei graduko eta gradu-ondoko prestakuntza -aukera eskaintzea, "bizitza osoan zehar". Horren harira, gaineratu du neurriko prestakuntza berritzailea izango dela, eta 25 urtetik gorakoei lan egiten duten bitartean, prestatzeko aukera emango diela: "Berdin dio unibertsitatetik bost minutura edo hainbat kilometrora egon".

# Sindikatuak hainbat ekimen egiten ari dira hilaren 27rako greba orokorrera dei eginez

## LABek elkarretaratzea egin du asteon; ELAk eta ESK–k ere kale agerraldiak eta hitzaldiak deitu dituzte datozen egunetarako

**M.B.** | ARRASATE

Hilaren 27ko greba orokorraren harira ekimenak egiten dihardute bailaran. LABek elkarretaratzea egin zuen martitzenean Arrasateko Seber Altube plazan, pentsioen erreformaren kontra eta urtarrilaren 27rako euskal gehiengo sindikalak deitu duen greba orokorrean parte hartzeko gonbita egiteko.

Sindikatu abertzaleko Debagoieneko hainbat ordezkarik hartu zuten parte esandako bilkuran. Salatu zuten Espainiako Gobernuak aldaketa handia egin gura duela pentsioen sisteman, erretiro adina 65 urtetik 67ra atzeratuta eta kotizazio urteak gehituta. Horren harira, egin gura duten erreformaren atzean Zapateroren Gobernuak pentsio sistema pribatizatzeko gogoa dagoela aipatu zuen LABek.




LABek elkarretaratzea egin zuen martitzenean. | JULEN IRIONDO

**Datozen egunotako ekimenak**

ELA eta ESK sindikatuek ere greban parte hartzeko dei egin dute eta datozen egunotarako ekitaldiak antolatu dituzte. ELAk langileen batzarra egingo du gaur Oñatin, 09:30etik 11:30era, eta horren ostean kale agerraldia. ESK-k, berriz, hitzaldia egingo du hilaren 19an Arrasaten (18:00, Kulturaten) eta 19:30ean kale agerraldia Seber Altuben.

# Goiena Telebista ikusten ez baduzu ostera ere sintonizatu

**M.B.** | ARRASATE

Goiena Telebista ikusten ez dutenek berriro sintonizatu behar dute. Hainbat aldaketa egin ditugu Muruko antenan; hori dela-eta, baliteke Goiena Telebista ikusten zen hainbat etxetan orain ez ikustea. Kasu horietan, esan bezala, telebista berriro sintonizatu beharko da. Hain justu ere, telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela eskuz) Goiena Telebista.

Lurreko Telebista Digitalaren bitartez jasotzen duten etxeetan egin beharko dute esandako egokitzapen hori. Dena dela, Muruko antenan egindako egokitzapenak eragina dauka ondorengo herrietan bakarrik: Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Oñatin.



Iralagoitia, Antzuolan. | M.B.

**Kristina Iralagoitia**
Ingurumen teknikaria

# "Etxeko olioaren gaikako bilketa bultzatu nahi dugu"

**M.B.** | ARRASATE

Etxeko olioa jasotzeko zerbitzu berriaz jardun du Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen teknikari Kristina Iralagoitiak.

**Zergatik jarri du Mankomunitateak zerbitzu hau martxan?**

Etxeko olioaren gaikako bilketa bultzatzea eta herritarrengana hurbiltzea lortu nahi dugu, batzen den hondakin kopurua handitzeko.

**Bailarako herri guztietan egongo dira?**

Mankomunitateko herri guztietan edukiontziak jarri ditugu. Zerbitzuaz Eko3r enpresa arduratuko da.

**Nola funtzionatuko du?**

Etxez etxe banatutako poteak bakarrik erabili ahal izango dira edukiontzietan olioa sartzeko. Behin etxean potea beteta, nahi denean edukiontzira hurbildu, potea dagokion lekuan sartu eta edukiontziak beste pote huts eta garbi bat itzuliko du. Dena dela, poteekin batera, eskuorri bat ere banatu da, bertan, herri guztietako edukiontzien kokapenak eta funtzionamendua ikusteko.

**Poterik jaso ez duenak non eskura dezake?**

Landa auzoko biztanleak eta banaketan arazoak izan direla-eta poterik jaso ez dutenak dagozkien udaletxeetara hurbil daitezke potea lortzeko.

**Noiz husten dira edukiontziak?**

GSM sistemaren bitartez Eko3r enpresarekin konektatuta daude, edukiontziaren egoeraren berri unean-unean emanez. Matxura eta betetze mailaren berri izaten du eta %80 beteta dagoenean, Eko3r arduratzen da ontzi beteak jasotzeaz eta mantentze-lana egiteaz.

**Zer egingo da olioarekin?**

Enpresako instalazioetan aurre-tratatzen da, gero baimendutako hornitzaile bati saltzeko. Olioa erregai gisa erabiltzen da, baina etorkizunerako beste irteera batzuk ikertzen ari dira olioaren zikloa Arrasateko egoitzan betetzeko.



GOIENA

# Giza eskubideen aldeko kamisetak

Aretxabaletako Iesbaa eta Arrasateko Nubi elkarteak kamisetak saltzen dabiltza. Saharan jasaten ari den giza eskubideen bortxaketa salatzeaz gain, sahararrendako dirua batu nahi dute ekimenaren bidez. Helduendako kamisetek 12 euro balio dute eta umeenek, berriz, 10. Interesatuek 626 63 91 64 edo 685 72 48 17 telefono zenbakira dei dezakete.

Frutak & Barazkiak
Mgusta
Kalitatezko fruten bila? Mgusta aukera biribila!

| | |
|---|---|
| Kalabazina | 0,69 €/kg |
| Raf tomatea | 1,99 €/kg |
| Azalore 1 | 0,99 € |
| 3 letxuga | 1,29 € |
| Kiwia, bertakoa | 0,79 €/kg |

Eskaintzaren epea urtarrilaren 15etik 22ra.
ORDUTEGI JARRAITUA 08:30etik 21:00etara
Mgusta
Barrenkale 9 Tel.: 943 76 10 43 BERGARA
Durana 16 Tel.: 943 03 66 63 ARETXABALETA
Uribarri etorbidea 3 Tel.: 943 08 14 07 ARRASATE

# "Aurrera egiteko balioko duen urratsa" egin du ETAk



- Hala diote ibarreko hainbat kazetarik ETAren agiriaren gainean galdetuta
- Guztiek dute ezker abertzalea Udal hauteskundeetan egongo den itxaropena

**1.** Espero zenuen iragarpena da? Nahikoa iruditu zaizu ala gehiago espero zenuen?

**2.** Gobernuak urratsik egin beharko luke orain?

**3.** Ezker abertzalea hauteskundeetan egongo da?



**MARIA AGIRRE**
EUSKADI IRRATIKO KAZETARIA

**1.** "Bazetorrela eta bazetorrela. Horrela egon gara azken asteetan, eta azkenean, etorri da. Edukiari dagokionez, ez nuen ez gehiagorik ezta gutxiagorik espero ere. Pentsatzen nuen borroka armatuaren amaierarik ez zuela iragarriko. Normalean, ETAk agiri luze eta ozpinduak idatzi izan ditu, eta eskertzen da azken hori motza eta beste tonu baten idatzitakoa izatea. Azken agiriak beste batzuk ekarriko ei ditu. Lortutako emaitzen araberakoak izango direla pentsa daiteke. Baina uste dut ETA ez dela indarkeriara bueltatuko, gutxi gorabehera erabakia hartuta dute. Askotxo esatea, beharbada, eta, agian, baikorregia naiz, baina ez dut beste aukerarik ikusten. Berriro indarkeriara itzulita, ETAk bere burua amildegira botako luke. ETA oso ahul ikusten dut, legez kanpoko ezker abertzalea ere kinka larrian.Urteek aurrera egin ahala, desgastea eta sufrimendua gero eta handiagoa, eta Espainia gero eta indartsuago."

**2.** "Hauteskundeak ate joka ditugunez, legez kanpo dagoen ezker abertzalea legeztatzea izan beharko litzateke lehenengo urratsa. Eta, gero, prozesu honetan murgiltzeko erabakia hartu beharko lukete gobernu desberdinek. Publiko egin gabe hasiera baten, edo hobeto datorren moduan. Eta behin prozesuan murgilduta, pentsatzen dut etorriko direla beste urrats batzuk. Batzuetan batzuen gustukoak, eta beste batzuetan ez. Behintzat, gehienek aprobetxa dezatela unea."

**3.** "Espero dut hala izatea. Alderdi berria laster aurkeztuko dute, baina ez diete oso erraz ipiniko. Legez kanporatzea borobil atera zaio Espainiari. Gainera, kalkulu elektoralak ere tartean izango dira. Komeniko zaie ilegalizatutako boto emaileen botoa? Guztion onerako, alderdi berria hauteskundeetan egotea nahiko nuke."



**XABIER LETONA**
'ARGIA'-KO ZUZENDARIA

**1.** "Orokorrean, espero nuena zen. Oso zuzena da eta erantzunak baiezkoa ematen die bai Gernikako eta baita Bruselako adierazpenei ere. Horrek ez du esan nahi ETAk bat egiten duenik batarekin edo bestearekin. Han eskatutakoei baietza ematen die. Alde horretatik, positiboa da. Espero nuena da. Nahiago nuke, euskal gizarteko eragile gehienek bezala, borroka armatua bukatu dela esatea. Hori nahiko nuke, baina hori ez da nahikoa. Ez da norberak espero duena; haiek egin dutena da eta egin dutena bere neurrian baloratu behar da. Horrek esan nahi du hemen beste urrats inportante eta historiko bat dagoela. Alde horretatik, baloratu behar da ea honek permititzen duen saihestea bizi dugun prozesu politikoa. Nik uste dut permititzen duela eta alde horretatik neurtu behar da."

**2.** "Gobernua ari da antzezten ezer gertatuko ez balitz bezala, baina nik uste dut hori ez dela erabat egia. Pentsatu nahi dut Gobernua ari dela beste urrats batzuetan pentsatzen eta logikoena izango litzateke ahalbideratzea Batasunak edo Ezker Abertzaleak hauteskundeetan parte hartzea eta mugimendu batzuk ematea presoen inguruan. Eta premiazkoa izango litzateke egiten ari den sabotaje operazioak geldiaraztea. Gobernuak beste urrats batzuk egiten baditu, berehala konturatuko gara, baina oraindik ez ditu egin, eta hori da eskatu behar dioguna."

**3.** "Ez dakit, ezin dut baietz edo ezetz esan. Dauden datuekin ematen du zelanbait egongo dela, baina nik susmoa daukat orokorrean ez dela egongo. Nahiko nuke erratzen banaiz. Ez dut uste modu orokorrean egongo denik; hau da, bai udaletan eta bai diputazioetan. Iruditzen zait nonbaiten bilatuko duela zirrikituren bat parte hartzeko, baina hori espekulatzea da."



**MARTIN GARITANO**
INFO7-KO KAZETARIA

**1.** "Uste dut guztiok espero genuela asteleheneko agiria, gehienbat ETAk berak Bruselako Taldeari behar bezalako erantzuna emango ziola agindu zuelako. Zer da nahikoa? Horrelako ekarpen baten aurrean *nahikotasunaz* hitz egitea arinkeria dela iruditzen zait.

Kontua ez da Espainiako Gobernuarentzat *nahikoa* edo ez izatea. Nik zintzotasunaz egingo nuke berba, eta, alde horretatik, ETAren ekimenaz hitz egiterakoan zintzoki egin duela aurrerapauso hau esango nuke."

**2.** "Nire ustez, Espainiako Gobernuak aspaldi emanak izan behar zituen pausoak, gehienbat gure herria ezagutuz, eta, beraz, herri bezala ditugun eskubideak errespetatzeko bidean. Espainiako Gobernuak ez du holakorik egin orain arte, baina espero dezagun orain egitea, nahiz eta bakarrik izan hauteskundeen aurrean inkestek erakusten dieten ahultasuna gainditzeko. Horretaz gain, presoen auzian edo ezker abertzalearen aurkako *apartheid* legearen inguruan ere badira egin beharreko urratsak."

**3.** "Bai. Ez daukat bola magikorik eta ez dakit zer baldintzatan egongo den –legal edo ilegal–, baina ezker abertzalea hauteskundeetan egongo da, beti egon izan den moduan.

Egunen baten, hemen gertatzen ari dena perspektiba historikoarekin idazten denean, ezker abertzalearen jarrera heroikoa aipatuko da. Zenbat aldiz joan dira ehunka mila hiritar "baliorik gabeko" botoa ematera? Egoera hori ez da munduko beste tokietan inoiz gertatu!".



**FELIX IRIARTE**
KAZETARIA

**1.** "Espero nuen, baina ikusi arte ez da jakiten zer pasako den. Ziurrenik, batzuek beste itxaropen batzuk izango zituzten, eta pentsatuko zuten ETAk beste zerbait egingo zuela. Nahiko den? Ez dakit, hartzen duzun neurriaren arabera da hori. Balio du aurrera egiteko; nik uste dut urrats bat egin dela eta urrats hori aprobetxatu egin behar dela. Hau den bukaera? Denok esango dugu ezetz, beste gauza batzuk oraindik falta dira; nire ustez, garrantzitsuena da beste urrats bat egin dela eta norabide onean, gainera."

**2.** "Gobernuak bai, egin beharko luke urratsa. Baina hau ez da: ETAk egin du urratsa eta orain Gobernuak egin behar du; eta, bien bitartean, gainerakoek ez dute ezer egin behar. Nik uste dut horrela ezin daitekeela planteatu. Gobernuak egin beharko du berea, baina horrek ez du esan nahi ez badu ezer egiten, eta publikoki hori adierazten dabil gobernua, ETAk geldi egon behar duenik. Nik uste dut ETAk berak badakiela zer egin behar duen eta Batasunak ere badaki nola dauden gauzak hauteskundeetan parte hartzeko. Ikusiko dugu nola mugitzen diren guztiak. Baina, lehenengo zein mugitu, horretan ez da jarri behar garrantzia. Kontua da gauzak egin behar direla, baina guztien aldetik. Estatuak? Baita ere, baina ez bakarrik eta ez derrigorrez Estatuak orain."

**3.** "Bai, nik uste dut baietz. Gero eta arrazoi gutxiago dute eragozteko ezker abertzaleari parte hartzea. Nik uste dut, gainera, Estatuak ere logika baten barruan jokatzen badu, eta hemendik hauteskundeetara oraindik hilabete batzuk falta direla kontuan hartuta, gauza asko egin daitezkeela. Nik uste dut azkenean Ezker Abertzalea hauteskundeetan ikusiko dugula, hori da nire esperantza."

### ESANAK

**"Azken agiria motza eta beste tonu batekoa da"**
MARIA AGIRRE

**"Hemen urrats inportante eta historiko bat dago"**
XABIER LETONA

**"Presoen auzian urratsak egin behar ditu estatuak"**
MARTIN GARITANO

**"Urrats bat egin da eta aprobetxatu egin behar da "**
FELIX IRIARTE

## ZABALIK



**MANU ARREGI**
'http://goiena.net/iritzia/'

# 'The great design'

Zergatik dago zerbait eta ez ezer? Hori da, ziurrenez, gizakiak bere buruari egin ahal dion galderarik potoloena. Betidanik ibili dira filosofoak eta zientzialariak galdera horren erantzuna aurkitu nahian. Bi gauza polemiko esaten ditu, honen harira, Stephen Hawking eta Leonard Mlodinowek idatzi duten *The great design (El gran diseño)* liburuak.

Alde batetik, eta komunikabideetan irakurri duzuen bezala, heren ustez posible izango dela Unibertsoa azaltzea Jainko baten parte hartzerik gabe. Eta, bestalde, filosofoek, oro har, ez dituztela fisikaren azken ehun urteetako aurrerakuntzak jarraitu eta, hori dela eta, eztabaida honetan zuten papera galdu egin dutela.

**"Zorionez, aspaldi askatu zen zientzia erlijioaren uztarritik"**

Gauzak horrela, polemika bila plazaratu den liburu baten aurrean gaudela dirudi.

Baina ez da hala. Filosofoena liburuaren lehenengo orrian dago; liburuaren azken orrian Jainkoarena. Eta, bi horien artean, mundu guztiak irakurri beharko lituzkeen beste berrehun bat orri. Zergatik? Gaur egun Unibertsoari buruz dakigunaren laburpen ona delako. Grezia klasikotik abiatuz, eskutik helduta gaur egungo fisikaren mundu harrigarrira arte eramaten gaitu. Edozeinek ulertzeko moduko eran. Eta formula bat bera ere idatzi gabe. Liburua exijentea da, hori bai, ikuspuntu batetik. Noizean behin burua altxatu beharko dugu, irakurri dugunari buruz pentsatzeko.

Benetan lortuko du zientziak Unibertsoa Jainko baten beharrik gabe azaltzea, liburu honek proposatzen duen bezala? Ezetz esan zuen Benediktok aurreko batean, liburu honen inguruan egindako deklarazio batzuetan.

Zorionez, aspaldi askatu zen zientzia erlijioaren uztarritik eta aurrera jarraituko du. Zer diote Hawking eta Mlodinowek honi buruz? Ba hori jakiteko, liburua irakurri beharko duzue. Ez dago, gure artean, zientzia dibulgazio liburuak irakurtzeko ohitura handirik. Ez da aukera txarra *The great design,* estreinaldirako.

## USTEAK USTE

**ARANTZAZU EZKIBEL** | 'aezkibel@goiena.com'

# Aurikularrak jarri, mesedez

Aspaldixan buruan dakoten zeozer komentau gura dot lerro honeittan. Izugarrizko amorrua emuten dostai musikia "danondako" jarten dauein horreik. Gaur egun ez dau aurikularrik? Zeatik entzun bihar du iñon musikia gaiñerakuok? Hau esaten dot, iñoiz tokau izan xatelako trena edo autobusa hartzeia, lasai-lasai loalditxua egitteko goguakin egotia eta ezin lorik egin aldamenekuak bere sakelako, iPhone, MP3 edo dana dalakuan musikia daixola dakolako; eta, a ze musikia... Ez dia konturaketan gaiñerakuok ez dula gura euren musikia entzutia? Erremeixua samurra da, gaiñera: aurikularrak jarri. Edo, gaiñerakuok tapoiak!

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Haizeak hazi

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/?

Ratzingerrentzat, larria da Europako hainbat lurraldetako familien askatasun erlijiosoaren kontrako mehatxua. Horren kulpa handia, nazio horietako edukazio sexualak omen du, zeinak, pertsonaren eta bizitzaren ikusmolde ustez neutroa transmititzeko aitzakiaz, fedearen eta arrazoi justuaren kontrako antropologia islatzen baitu.

[...]

Nire belaunaldiaren laurdena apaiztegietan hezia da, eta ebanjelioak "hazi eta multiplikatu" badiosku ere, kastitatea gordetzera behartzen gintuzten, nahiz seminario hitzaren oinarrian semen hitza egon.

[...]

Izatez, ez genuen edukazio sexualik izan, ez bada gure bizitzako zirrikitu guztietara barreiatzen zen aitortegietako beldur luze beltzak emana.

Fedearen eta arrazoi justuaren aldeko antropologia zen, nonbait.

Oharrak: eta orain, ez dagoela purgatoriorik... Ez dago ia egunik Ratzingerrek zutabeak egiteko pagotxa oparitzen ez digunik.

# Ateoa naiz, eta zer?

**Joxe Aranzabal**
http://goiena.net/blogak/faroa/

Bai, ateoa naiz. Baina ez larritu, ni txikitan izutzen nintzen bezala, ateo hitza entzuten nuen aldiro. Orduan bai abadeek eta baita nire inguruko liburuek ere hondamendirik gorriena iragartzen zuten ateoentzat. Denborarekin baina, asko irakurrita eta erlijioek zelan egiten duten lan ikusita, iritsi naiz ondorio horretara, alegia, mundua esplikatzeko ez dela ezein jainkoren premiarik, eta hiltzen naizenean hortxe amaituko dela nire ibilbidea.

Hitzaren estigma: "Minbizi" hitzak oraindik ere ikara eragiten badigu, are eta gehiago eragiten du "ateo" esateak, bi mila urtez elizak esan digu-eta ateoak perbertsiorik handienen jabe direla eta erabat kondenatuta daudela. Gaur egun ere, AEBetan adibidez, jendea ez da fidatzen ateoez. Richard Dawkins zientzialariak *El espejismo de Dios* liburuan dioen legez, 1999an Gallup etxeak galdeketa bat egin zuen estatubatuarren artean, bertan galdetuta ea botoa aldatuz gero, berau emango lioketen era honetako pertsona kualifikatu bati (15. or.): emakumea (%95ek, baietz); katoliko erromatarra (%94); judua (%92); beltza (%92); mormoia (%79); homosexuala (%79); ateoa (%49).

Zenbat ateo inguruan?

[...]

Jende gutxi ezagutzen dut inguruan bere burua ateotzat jo duena era publikoan, gehienak blogariak. Pako Aristi da horietakok bat, "Euskal Herriko organojole ateo bakarra", bere hitzetan. Mikel Hernandez Abaitua ere multzo horretan sartzen da, *Azukre xehea gatz larria* liburuan berak aitortzen duen legez, kontatzen duenean zelan, karrera amaitu berritan, Deustuko Unibertsitateak lana eskaini zion Donostiako campusean irakasteko.

[...]

Irakurle estimatua, ikusten duzunez, ni ere armairutik irten berri naiz, eta orain badakizu ateoa naizela. Hala ere, espero dut aurrerantzean ere zure konfiantza izatea. Blog hau beti izango duzu irekita.

goiena"
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
papera@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## GUTUNAK

# Atzegik 50 urte

**Marije Isasmendi**
(Atzegizalea eta familiarra)
Arrasate

Atzegik 50 urte bete dituenean, bere ibilbidea eta zerbitzua eskertzeko lerro hauek idaztera animatu naiz.

Atzegi Gipuzkoako adimen urritasuna duten pertsonek, beraien familiek eta laguntzaileek osatzen dugu.

Gure etxean, ahizpa gazteena arazo honekin jaio zenean, Atzegi elkartea sortu eta hiru urtera atxikitu ginen, aholku eta orientazio bila.

Orduan gauzak orain baino zailagoak ziren gure moduko familientzat.

Elkartearen helburuak familiek markatu izan dute beti; hau da, beraien beharrak, nahiak eta premiak izan dira beti elkartearen abiapuntua.

Eta agian honegatik izan du Atzegik horrelako arrakasta.

Bere ibilbidea 50 urte hauetan gizartearen garapenarekin bat joan da eta gaur egun, haurra jaiotzen denetik nagusi egiten denera arteko etapa guztiak lantzen ditu pertsona hauen eskubideen gaineko kontzientzia eta beti integrazio sozial osoa helburu nagusia izanik: hezkuntza, medikuntza, psikologia, orientazioa, lana, egoitzak, aisialdia, tutoretza, gai juridikoak, eta abar. Honetarako guztirako programa eta ekintza anitzak gauzatuz.

Hunkigarria izan zen Donostiako Kursaaleko areto handia atzegizalez beteta ikustea, elkarteak egin duen bideari errepasoa eginez.

Oso ekitaldi polita benetan.

Izan ere, bertan guraso sortzaileek lekukoa pasatu zieten guraso berriei, etorkizunerako bidea jorratzen jarrai dezaten.

Debagoiendarrak bihotz-bihotzez eskertu behar ditugu urte hauetan eman diguten erantzunagatik eta ni arrasatearra naizenez bereziki aipatu nahiko nuke SUDC elkartea, gurekin urtero-urtero gogoratzeagatik.

Mila esker, ba, eta zorionak atzegizale guztioi!

# Katedratiko jaunari

**Espe Agiriano**
Arrasate

Kolaboratzaile moduan duzuen pertsona bati erantzutera natorkizue; izan ere, batzuetan herri mailako komunikabideetan ze kontu arrunt eta interes gabekoak lantzen diren galdetzen diot neure buruari, ze egia esan nori inporta zaio abenduko azken asteleheneko Goiena paperekoan Gazteei pare bat aholku izenburuko iritzi zutabean kontatzen diren gizon horren istorioa?

Besteei aholkuak ematea oso erraza da, baina zeuri ere aholku bat (eta gero, nahi duzuna egin, jakina!): kezkatzen zintuen kontuaren inguruan, aurretik erantzuna baldin bazenekien, aurrera egitea zuk zeuk erabaki zenuen, bakoitza bere erabakien arduradun delarik.

Deustuko unibertsitatean Filologia Erromanikoa ikasia eta ikasketa piloa izan arren, "soldata duineko katedratiko gizajoa" omen zara, baina herri aldizkariak Salsa rosa modura erabiltzeak gizontasun gutxi erakusten du (bestalde, ez nau harritzen lehendik zu ondo ezagututa).

Askok gizon jakintsutzat hartzen zaitu, baina zure portaera eskasa ikusita, argi geratzen zait giza baloreen jabe izateko unibertsitatera joan beharrik ez dagoela.

# Aitziberri

**Gregorio Plazaola Irizar**
Bergara

Kaixo, neskato, zer moduz?

Jaiotze eguna esanguratsua / Zure gurasoek osoz asmatua / Bizkai, Gipuzku, Araba ta Nafarrua / Goxo edukiko duzu barrua.

Gure ilusio da zuk ondo pasatzia / Daukazulako ondo merezia / Beharrezkoa bada ere itxoitzia / Esperantza laister denok ospatzia.

Ez pentsa libratzea konbidatzeke / Ez zaizu gainera aterako merke / Ugari gera mutil ta neske / Zurekin egoteko duguna irrike.

Egoera onena izan ez arren / Gaude, ia-ia, pozarren / Asko gaudelako zure beharren / Hori nabaria izanik zure irrifarren.

Zorionez ez zara hain txarto bizi / Hala zuen argazkiak adierazi / Zarelako indarreko hazi / Ia gure poza ahal dizuten helarazi.

Neguaren ondoren uda berria / Bihotzetan da igerria / Esnatuko da, berriz, gure herria / loratuko da aberria.

Unea bada ja agurtzeko / Nahiz ta hainbat eduki esateko / Izango da garaia alkartzeko / Eta orain etena, gozatuz, jarraitzeko.

Olaixakua.

# Gaixo psikikoekin ikasten

**Arantzazu, Anaje eta Iñaki Narbaiza**
Bergara

Entzun izan dugu zenbait etxetan geletan sartuta edo lotuta edukitzen zituztela gaixo psikikoak, eta zoro-gaiztoak bezala ezagutzen zituztela. Gaur egun beste izen dotoreagoetara ohituta gaude, "trastorno bipolarra" edo "pertsonalitate aldaera", baina azken batean dena antzerakoa dela iruditzen zaigu.

Gaixotasuna nekez ulertzen da; pertsona fisiko bera izanik, aldikako portaera guztiz aldatzen duelako. Batzuetan ezagutzen duzun pertsona ageri da, ona, langilea, alaia... beste batzuetan, berriz, ohetik jaiki nahi ez duena, munduarekin haserre dagoena eta pozik eman ezin zaiona.

Beraz, eguneroko bizitza etxean infernu bihurtzen da. Urteekin ikasten duzu haserreak ez dakarrela bere portaera aldaketarik eta nahiz eta jarrera aldatzen duzun harremana garrazten doa. Izan ere, etxekoari pozik eman ezin izana baino gauza tristeagorik ez dago.

Konturatu orduko urteak pasatu egiten dira, zenbat buelta Donostiako Psikiatrikora, zenbat tratamendu aldaketa, zenbat aldiz han ingresatuta, eta hogeita hamar urte horietan zelako ondo tratatuak izan ginen, denak gutxi dira esaten hasita.

Baina halako batean etxean bizi izateko ezintasunaz ohartuta, gure zorionerako Aita-Menni ospitalea agertu zen. Hasiera batean nekez irentsi genuen, gure ama zoro-etxean utzi behar genuela, baina laster aldatu ziren gure pentsaerak. Etxeko haserreak desagertu egin ziren eta gure amak etxekoen bisitekin disfrutatzen zuen, aldi batzuetan gehiago beste batzuetan baino. Nahiz eta pozik ez ageri gurekin zegoenean, Aita-Mennin lagun oso onak egin zituen eta haiek izan zituen gogoan azken unean ere, bere Bixenta eta bere Joxepa.

Zelako ondo pasatzen zituzten hainbat arratsalde, karta jokoan, Arrasateko pastoralekoekin, Serapirekin, Jabierrekin... eta batez ere azken hamar urteetan lagun izan duen lantaldea; harreragile, mediku, laguntzaile, moja, erizain, garbitzaile... Iñaki, Birginia, Agustin, Dora, Ixabel, Axun, Silvia, Maribel, Txeska... izan duten harremana gure amarekin bihotzean gordeko dugu.

Zenbat broma, zenbat kontu, zenbat eta zenbat bizi-poz eman dioten Emeteriari, portaera horrek benetan lasai sentiarazi gaitu urte hauetan. Bere kontura giza harremanez asko ikasi dugu, zelako tratua zuen beste gaixoekin, Juan Carlos, Elvira, Maria Luisa, Jaron...zelako zintzoa zen euren arteko elkarkidetza.

Seguru gaude gure ama ez zela hobeto egongo etxean han egon dena baino eta bere bizitza Aita-Mennin izan dela guri erakutsi digun azken lezioa.

Horregatik guztiagatik, eskerrik zintzoenak proiektu honetan lantalde zareten guztioi.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | papera@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

BABESLEA




Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

**Joanmari Larrarte** | Berria Taldeko kontseilari ordezkaria

# "Erakundeek sektore eraginkor moduan aitortzeko eta bultzada emateko unea da"

- Krisiak gogor astindu du Berria Taldea eta aurre egiteko laguntza kanpaina abiatu dute
- Azkeneko hilabeteotan hainbat produktu berri kaleratu ditu Berria Taldeak

**ENEKO AZKARATE** | ARRASATE

Kezkatuta dago Joanmari Larrarte euskarazko hedabideen etorkizunaz. Mundu mailako finantza krisiak eta egunkariek bizi dutenak gogor astindu dute Berria Taldea. Sektorea estrategikotzat aitortzeko eskatzen die erakunde publikoei.

**Berria Taldeak dirua batzeko kanpaina abiatu du. Zergatik?**

Hainbat ekimen bultzatu ditugu azkenaldian, eta, azken-azkena, joan den abenduan, laguntza kanpaina. Hain justu ere, egoera ez delako batere ona. Krisia denok jasaten dihardugu modu batera edo bestera. Eta, hedabideok, akaso, bi bider sufritzen dihardugu krisia. Batetik, finantza krisia, orokorra dena; baina, bestetik, hedabideok, aldaketa etengabekoan murgilduta gaude, etorkizunerako norabide ez horren argi baten aurrean, eta horrek zaildu egiten du egoera. Ekonomikoki zaila izan da urtea.

**Zertarako erabiliko duzue dirua?**

Batetik, 2010ean sortu zaigun galera estaltzeko; bestetik, urritik aurrera abian jarritako egitasmo berriak aurten aurrera ateratzen laguntzeko. Kanpaina ondo doa.

**Zer egin behar du *Berria*-ri lagundu nahi dionak?**

Kontu korronte zenbakia ireki dugu eta bide ezberdinak daude ekarpenak egiteko. *Berria*-ren sareko eta papereko edizioetan ageri da horretarako bidea.

**Zelan eragin dio Berria Taldeari paperaren edo egunkarien krisiak eta krisi ekonomikoak?**

Ekainean, akziodunen urteko batzarra egiten dugunean, kontuen berri ematen dugu, eta orduan sakonago aurkeztuko ditugu datuak. Baina datu bat: 2008tik 2010era bitartean, *Berria*-ren publizitate fakturazioa milioi bat euro eta gehiago jaitsi da. %30, gutxi gorabehera. Kopuru hori ezin da bi urtean errekuperatu beste edozein modutara. Egunkarien salmenta asko jaitsi da mundu osoan. Guk ere beherako joera hori igarri dugu, baina 2010ean lortu dugu salmenta eta harpidetza kopuruari eustea. Hortaz, hartzailearen aldetik joera hobetzen doa, publizitatearena falta da hobetzea eta, azkenik, espero dugu erakundeetatik gauzak hobetzea eta estrategikotzat jotzea geure sektorea.

**Egunkariek gero eta irakurle gutxiago eta eragin ahalmen txikiagoa duten honetan, zelan egin diozue aurre egoerari?**

Buruari asko eragin diogu, baina ez diogu soluzio garbirik aurkitzen. Zaila dago. Ikusten dugu ez guk eta ezta ingurukoek ere ez diotela erantzunik aurkitzen. Errealitatea hori da. Paperak badauka oraindik etorkizuna gurean, baina paperaren kontsumoak ez du gorantz egingo. Informazioaren kontsumoa gehiago bideratuko da Internetera eta, are gehiago, poltsikoko telefonoetara. *Berria.info*-n ikusten dugu nabarmen poltsikoko telefonoetatik gero eta sarrera gehiago datozela. Etengabeko aldaketa garaian gaude. Denborarekin, negozio eredu berriak etorriko dira euskarri berrietarako. Interneten geroago eta esfortzu handiagoa egiten gabiltza, inbertsioak handitzen goaz, baina diru sarrerak ez datoz neurri berean. Euskarazko Interneteko hedabideetara publizitatea ez dugu erakartzen. Gure merkatua mugatua da.

**Nortzuek osatzen dute Berria Taldea?**

2003an abiatu genuen, helburu jakin batekin: hilabete batzuk lehenago itxi ziguten *Egunkaria*-ren lekua betetzea. Orduan ere diru bilketa egin zen eta han batutako kapitalari esker abiatu zen *Berria* paperekoa eta sarekoa. Horrekin batera, informazio lokalari heltzeko, hainbat eskualdetako eragileekin batera, *Hitza*-k argitaratu genituen. Une honetan sei *Hitza* dauzkagu. Haien aldamenean, paperari dagokionez, herrialde bakoitzeko *Hitza*-k ditugu, asterokoak urria ezkero. Bost dira. *Berria*-rekin batera zabaltzen dira eta aztertzen dihardugu etorkizunean bakarrik ere zabaltzea. *Nora* aldizkaria ere argitaratzen dugu eta Hamaika telebistako kide gara; azkenik, Irrien Lagunen Kluba ere abiatu dugu oraintsu.

**Hamaika Telebistarekin zer moduz?**

Bagoaz mantso-mantso. Zaila gertatzen ari zaigu garapena. Apustua zen Bilbon hastea lehenbizi eta gero Euskal Herrira zabaltzea handik. Donostiakoa ere abian da eta gure apustua da ahalik eta gehien zabaltzea seinalea Euskal Autonomia Erkidegoan.

**Hurrengoa Gasteizen?**

Gertuko helburua da seinalea Bizkai osora eta Gipuzkoan lizentzia daukagun eskualde guztietan zabaltzea eta baita Gasteizera ere hurbiltzea.

**2003an sortu zen *Berria*, *Egunkaria* itxi ostean, 24.404 bazkiderekin eta 4 milioi eta erdi euroko kapitalarekin.**

Bai. Oso egoera berezian abiatu ginen eta 11.000 harpidedun ingururekin. Sorrera indartsua izan zen, baina bagenekien apar moduko bat bazegoela. Orduan harpidedun egin ziren batzuek euskaraz ere ez zekiten. Guri tokatu zitzaigun *Egunkaria*-k egin zuen kontrako bidea egitea. Hura hasi zen apal-apal eta 10 urteren ostean lortu zuen sendotasun bat. *Berria* sendo hasi zen. Indar eta apar baten. Gero, poliki-poliki bere onera etorri zen. Gaur egun, 9.500 harpidedun inguru ditugu. Guretako, urterik okerrena 2009a izan zen. 2010ean harpidedun berriak egin dira. Gainera, kuriosoa da, baina eremu batzuetan Nafarroan, esaterako, salmentetan gora egin dugu.

**Irrien Lagunen Kluba zer da eta ze helbururekin sortu duzue?**

Euskarara hurbildu eta euskararekin ondo pasatzeko, umeekin urrats bat egin behar dela uste dugu. Orain dela urte bi Elkarren interesak, Pirritx eta Porrotxen Katxiporretarenak eta geureak bat egin zuten. Argi geneukan hiru aldeok 2010ean umeendako zerbait abiatu nahi bagenuen Interneten behar zuela. Kluba eskaintzen dugu. Edozein izan daiteke kide. Horretaz gain, eskaintzen dugu ordainpeko harpidetza ere. Haurrak ondo pasatzeko gune bat izan nahi du: komunikaziorako, aisialdirako… Euskal Herritik abiatuta, euskaraz eta Euskal Herria aintzat hartuta. Globalizazioaren aroan gure umeek Disney Channel ikustea ezinbestekoa da, baina lortu behar dugu, gure erantzukizuna da, Euskal Herriko balioak eta izaera erakustea munduari.

**Euskarazko hedabideen sektorea zelan ikusten duzu?**

Zoritxarrez, *Berria*-k bizi duen egoera bera bizi du sektore guztiak. Oso sektore dinamiko eta indartsua da. Berria Taldeak, esaterako, 300 langile ditu eta azkeneko urteetan enpresa gutxi sortuko ziren langile kopuru hori dutenak. Goienak berak azkeneko urteotan izan duen garapena oso kontuan izatekoa da. Sektore indartsu eta dinamikoa da, baina, era berean, zailtasun handiak dituena. Eta beharrezko aitorpenik ez duena erakundeen aldetik. Euskal Herriko erakunde publikoek, maila guztietakoek, ez dute ikusten zelako ekarpena egiten dion sektore honek herri honi. Euskal izaera zabaltzeko duen baliotik, euskararen normalizazioaren aldetik eta egiten duen ekarpen ekonomikoagatik. Sektore eraginkor moduan aitortzeko eta bultzada emateko unea da. Krisiak eragiten du galerak izatea, gure lan baldintzak okertzea, gure produktuak eskastea… Herri bezala, ez gaude kapital hori galtzeko unean. Horrek kezkatzen nau.

**Euskarazko hedabideen arteko elkarlana da etorkizuna?**

Dudarik gabe. Krisietatik irakurketa positiboak ere ateratzen dira eta horietako bat da elkarlanera bultzatu gaituela.Gure baliabideak mugatuak dira, eta, mugatuak diren neurrian, batzen bagara, eskaintza oparoagoa egin dezakegu.



Joanmari Larrarte, martitzenean, Goienaren Arrasateko egoitzan. | ENEKO AZKARATE

**"Publizitate fakturazioa milioi bat euro jaitsi da bi urtean 'Berria'-n"**

**"Informazioaren kontsumoa doa Internetera eta telefonoetara"**

# LANBIDE HEZIKETA OÑATIKO INSTITUTUAN 2011

%100 DIRUZ LAGUNDUTA

## LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK

EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTA (KATALOGO MODULARRA)

| IKASTAROAK | ORDUAK | AURREIKUSITAKO DATA |
|---|---|---|
| **MEKANIZAZIOA** | | |
| KROKIZAZIOA | 40 | 2011 / 01 / 24 |
| METROLOGIA – EGIAZTAPEN DIMENTSIONALA | 40 | 2011 / 02 / 14 |
| LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA | 40 | 2011 / 03 / 14 |
| TORNU KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA | 80 | 2011 / 01 / 10 |
| TORNO CNC PROGRAMAZIOA | 50 | 2011 / 02 / 14 |
| TORNO CNC MEKANIZAZIOA | 50 | 2011 / 03 / 14 |
| FRESATZEKO MAKINA KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA | 80 | 2011 / 04 / 04 |
| FRESA CNC PROGRAMAZIOA | 46 | 2011 / 05 / 16 |
| FRESA CNC MEKANIZAZIOA | 50 | 2011 / 06 / 06 |
| **MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA** | | |
| MANTENTZE MEKANIKOA | 60 | 2011 / 02 / 28 |
| MANTENTZE ELEKTRIKOA | 80 | 2011 / 01 / 17 |
| AUTOMATISMO NEUMATIKO ETA ELEKTRONEUMATIKOA | 40 | 2011 / 02 / 14 |
| **DISEINUA** | | |
| CAD 2D - AUTOCAD | 40 | 2011 / 01 / 17 |
| CAD 3D - SOLID EDGE I - MOD. ETA PLANOAK | 40 | 2011 / 02 / 07 |
| CAD 3D - UNIGRAPHICS | 40 | 2011 / 03 / 14 |
| **SOLDADURA** | | |
| SOLDADURA ELEKTRIKOA | 55 | 2011 / 01 / 24 |
| SOLDADURA MIG-MAG | 80 | 2011 / 02 / 14 |
| SOLDADURA TIG | 80 | 2011 / 02 / 07 |
| SOLDADURA OXIAZETILENIKOA | 35 | 2011 / 03 / 16 |
| **INFORMATIKA** | | |
| MS WORD | 20 | 2011 / 01 / 24 |
| MS EXCEL | 20 | 2011 / 02 / 07 |
| MS ACCESS | 20 | 2011 / 02 / 21 |
| INTERNET ETA KORREO ELEKTRONIKOA | 20 | 2011 / 03 / 14 |
| **ENERGIA BERRIZTAGARRIAK** | | |
| EGUZKI ENERGI FOTOBOLTAIKOA ETA TERMIKOA | 60 | 2011 / 01 / 31 |

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

zuazola-larraña oñatiko b.h. institutua

KALITATEA HEZKUNTZAN

**IZENA EMATEKO:**
Oñatiko Institutua
Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan
San Lorentzo auzoa z/g
Tel.:943 78 21 50
09:00-13:00 / 13:30-17:30
www.onati.net

MINISTERIO DE TRABAJO E INMIGRACIÓN

HOBETUZ

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

## DUELA 10 URTE

2001-01-12

### Politika bero-bero

Urtarrilaren 12ko astean hasi ziren aztertzen Ekin, Egin, Xaki eta abarren gaineko errekurtsoak. Protestak egon ziren ibarreko herri gehienetan. Sasoi horretan sortu zen, baita ere, Batasuna, ezker abertzalearen prozesu moduan.

Bestalde, Paco Garcia Arrasateko zinegotzia sozialistaren autoa erre egin zuten urtarril hasieran. Osoko bilkura berezia, mozioa, protestak… izan ziren Arrasaten.



Seber Altube itxuratzen. | ARRASATE PRESS

2001-01-12

### Oinezkoendako guneak sortzen

Gaur egun ohituta gaude herrietan oinezkoendako guneak izaten, geroago eta ugariagoak dira, gainera. Baina orain hamar urte halakoak salbuespena ziren. Arrasaten, esaterako, orduantxe hasi ziren halako guneak sortzen. Gabonen ostean Arbolapetan, Seber Altuben eta inguruan zoladura berezia jarri, autoen abiadura mugatu eta oinezkoei lehentasuna ematen hasi zitzaien.

## DUELA 5 URTE

2006-01-13

### Tabakoaren legea

Duela bost urte abiarazi zuten tabakoaren kontrako legea. Lantegietan erretzeko debekua ezarri zuten, hainbat jatetxe eta tabernak egokitzapenak egin behar izan zituzten bertan erretzen segitu ahal izateko; eta tabernetan bakarrik makinetan saldu ahal zen. Orduan ere zalantza ugari eragin zituen.

## HERRITARRAK

**Fernando Zenitagoia** | Udal brigadako arduraduna

# "Errege bezperan irten egin behar izan genuen zigarrokinak garbitzera

Egunero ibiltzen da Elgetako kaleetan eta ezagun askoa da, baita ere, pilotan egiten duen lanarengatik

UBANE MADERA | ELGETA

Fernando Zenitagoia (Elorrio, 1957) udal brigadako arduraduna da Elgetan, 1986a ezkero. Hala ere, beste lan asko ere egiten ditu, soldatapekoak ez izan arren: beteranoen Gabonetako pilota txapelketa antolatzen du (aurten 7. urtez) eta Ozkarbi pilota taldeari laguntzen dihardu (urte piloan). Hori gutxi ez, eta bospasei urtean Txernobilgo ume bat hartu izan dute etxean: "Eta aurten ere begirale bezala etorri da eta akaso hartuko dugu. Semea moduan da".



Fernando Zenitagoia, Elgetako Andra Mari plazan. | LARRAITZ ZEBERIO

**Zein da brigadaren lanik handiena une honetan?**
Gaude inausketak amaitzen, hortentsiak, arrosak, platanondoak… urritik aurrera gehiena izaten dira inausketak, guretako horixe izaten da sasoirik gogorrena. Izan ere, inausketa lanak egin behar izateaz gainera, elurra iristen denean, eskola ingurua, eguneko zentroa, haurtzaindegia… gatza bota, elurra kendu…

**Inausketekin lotuta, berdeguneak asko ugaritu dira Elgetan, ezta?**
Larregi. Topera ibiltzen gara. Udaberrian hasten gara belarra mozten, eta mozten dugu… Madrilen baino gehiago. Sekulakoa da. Buelta guztia eman aurretik lehen moztutakoa berriro ere hazita dago, eta berriro eta berriro, belarra moztu eta belarra moztu ibiltzen gara. Gainera, brigadan, izatez, bi bakarrik gara. Eta udaberri beste bat hartzen dute. Aurten berandu hartu dute, jaietarako, eta ordurako geunden belarrarekin… belarrietaraino!

**Lanarengatik, kalean ordu askoan ibiltzen zara. Orain oinezkoendako kale berriak daude Elgetan. Horrek hobetu egin du herriaren funtzionamendua?**
Egin duena da asko aldatu. Autoak ibiltzeko tokiak, aparkatu ezin direnekoak… jendeak ohitu egin behar du. Txarto ez, behintzat. Jendea orain lasaiago ibitzen da kalean. Adibidez, lehen Salbador kalean beldurra ematen zuen kalean ibiltzeak, horrenbeste kamioirekin…

> **"Topera ibiltzen gara; mozten dugu Madrilen baino belar gehiago!"**

> **"Salbador kalean beldurra ematen zuen ibiltzeak, kamioiekin…"**

**Denda berriak ere zabaldu dituzte. Igarri duzue bizitasun handiagorik kalean?**
Ba, ez dakit zer esan… Uste dut mugimendua lehengoaren antzerakoa dela. Krisiak ere izango du hor eragina. Tabernetan eta denean berdin.

**Tabernak aipatuta, akaso tabernen kanpoko aldean igarriko zenuten "mugimendu" handiagoa azkenaldian, ezta?**
Orain bai, orain zigarrokinak daude, baina ez dakizu zenbat… Adibidez, Errege bezperan irten egin behar izan genuen brigadako biok erratza eta pala hartu eta zigarrokinak kentzera.

**Pilota kontuetan ere ibiltzen zarenez, Elgetako pilotalekuan bada arazorik erretzaileekin?**
Ba, kontu berria da erretzearena, eta behin ibili nintzen epaile lanak egiten partidu baten eta bazeuden pare bat lagun erretzen. Baina zeinek esan behar die haiei ez erretzeko? Ni ez naiz erretzailea, baina ez noa inori esatera ez erretzeko.

**Pilota aipatuta, 1.000 bizilaguneko herri baten 18 bikotek izena ematea txapelketan… bada zerbait, ezta?**
Bai; aurten, gainera 19-20 ibili dira. Uste dut Elgetan sekulako zaletasuna dagoela. Umetatik dakit meza ostean jende asko (nagusi, gazte, ume…) ibiltzen zela pilotan. Dena den, guk umetan ez geneukan bizikletarik, baloirik, saskibaloiko baloirik… Guk pilota bakarrik geneukan. Eta orain hori aldatu egin da. Gainera, umeek nahiago dute taldeko kiroletan ibili. Elgetan ere igarri egin da hori; hala ere, uste dut nahiko ondo gabiltzala, zaletasuna sendo dago.

**Bikote aldetik ondo, baina pilota kontuetan lanean zabiltzatenek eskertuko zenukete laguntza gehiago?**
Antolatzen bi ibiltzen gara, baina jende gehiagok laguntzen digu. 5-6 lagun ibiltzen gara.

**Eta azpiegitura aldetik, ondo?**
Baietz uste dut. Konponketak eginda ditu eta pilotarako fenomeno dago. Elgetako bizilagun kopuruarendako… ondo-ondo.

**Pilotako epaile titulua ere baduzu; nahiko zenuke partidu bereziren baten jardun?**
Aukera eman zidaten profesionaletan jarduteko, baina ez nuen nahi izan. Profesionaletan dirua dago tarteko, eta dirua sartzen denean… Niri, zaleen mailan ibiltzea gustatzen zait.

## NIRE HERRIAN

:) **ESKOLA GUNEA BERRITU**

"Gauza on moduan ikusten dut eskola ingurua berritu egin behar dutela, patronatua bota… Azkenean, eraikina erdi jausita dago, oso gaizki dago eta umeak hor ibiltzen dira jolastokian egunero… eragin handia izango du, jolastokia asko hobetuko dute umeendako".

:( **KRISIA ETA APURKETAK**

"Kontu txarren artean, krisiaren eraginarengatik lantegi asko itxi egin behar izan dituzte. Eta jakina, piloa igartzen da hori. Horrez gain, apurketa batzuk ere gertatu dira azkenaldian, eta halakoak guztien artean ordaindu behar izaten ditugu. Horrek ematen dit penarik handiena".

# HERRIAK


Monte Perdido mendian, 1972an.


Meriendatzen Katillotxun, 1995ean.


Pirinioetara irteera, 1997an.


Txindokira irteera, 1995ean.


Hiru Erregeen Mahaian, 1987an. | ARGAZKIAK: ARROLA MENDI TALDEA

# Interneten, argazkitan dago orain Arrolaren 40 urteko historia

▸ Taldeko kide batzuek 'picasaweb.google.com/arrolamt' gunera igo dituzte 180 argazki

▸ Helburua da argazkiok ondo gordetzea eta, bestetik, herritar guztiokin partekatzea

**LEIRE KORTABARRIA** | ANTZUOLA

Antzuolako mendizaleak, euren irteerak, egun pasak, ospakizunak... orain argazkitan ikus ditzake edozein herritarrek. Izan ere, Arrola mendi taldeko kide batzuek 180 bat argazki inguru eskaneatu (digitalizatu) eta Internetera igo dituzte. Elkartearen hasieratik, 1972. urtetik, gaur egunera arteko argazkiak dira. Honako helbidean daude: *picasaweb.google.com/arrolamt*.

Batez ere, Jose Mari Iturbe ibili zen paperezko argazkiok eskanerretik pasatzen, eta gero, Jabi Etxanizek zabaldu du Picasa webgunean Arrolarendako kontu bat eta igo ditu argazkiok amaraunera. Etxanizek gustuko ditu argazkilaritza eta Interneten ibiltzea ere: "Nik neure kontu bat urtarrilean ireki nuen Picasan. Uztailean irteera bat egin genuen Arrolakook, gaia komentatu genuen eta bururatu zitzaidan Arrolarendako ere kontu bat irekitzea". Horrela, argazkioi irtenbide polit bat ematen zitzaien: "Jose Mari Iturbek disko baten gorde zituen argazkiok, lan handia hartuta. Baina diskoan dauden argazkiak konpartitzea ez da samurra; Internetera igota, jende guztiak ikus ditzake". Etxanizen iritziz, "argazki zaharrek dute balio berezia; hor Arrolaren hasierako kideak agertzen dira. Bestalde, orduko janzkerak-eta ikusteko aukera dago. Eta kontuan hartu behar da lehen argazkiak ateratzea askoz garestiagoa zela eta ez zirela kopia asko egiten. Neuk ateratako argazkietan, ale bakarra ateratzen nuen eta hura Arrolaren albumean gordetzen nuen".

Internetera igota argazkiok, gainera, galtzeko arriskua saihestu dute: "Argazki asko Arrolaren egoitzan zeuden, Kalebarrenen, eta hezetasun handia egoten zen; horregatik, kolorea galtzeko arriskua zegoen", esaten du Jabi Etxanizek.

Horrenbestez, orain arte album baten edo CD baten egon diren argazkiak orain herritar guztiok gozatu ditzakete.

**ESANAK**

**"Huascaranera egindako espedizioko irudiak daude"**

JOSE MARI ITURBE | ARROLAKO KIDEA

**"Argazki zaharrek balio berezia dute: hasierako kideak daude"**

JABI ETXANIZ | ARROLAKO KIDEA

### Herriko jende ezaguna

Argazkien bidez, aspaldiko irteerak, pasadizoak eta pertsonak gogoratzeko modua izango dute antzuolarrek. Hala, bilduman kronologikoki lehenengoa den argazkian Arrolako kide ezagun bat agertzen da: Angel Murgiondo. Hura hil zen, eta bera gogoan izateko modua da. Arrolako beste betiko kide bat ere argazki askotan agertzen da: Joxe Lizarralde, *Supide*. Berak Arrolarekin hainbat ekintzatan parte hartzen jarraitzen du: hala, urtarrilaren 1an, Urte Berri ospakizunean, "urtero bezala txabolan izan zen, txistorra banatzen", esaten du Jabi Etxanizek. Baina aspaldiko argazkiotan ere agertzen da *Supide*; adibidez, lerro hauen eskumatan agertzen den argazki eder horretan, 1974an ateratakoa.

Hain zuzen, argazkiak berak badu bere istorioa ere. Jose Mari Iturbek kontatzen digu: "Arrolak lehenengo aldiz parte hartu zuen mendi-espedizio baten aterata dago; Huascaranera joan ziren. Han atera zioten Joxeri argazkia; ilea eta bizarra zuri-zuri dauzka". Huascarangoa irteera garrantzitsua izan zen Arrolarendako; Andeetako mendilerroan dago gailur hori, Perun, eta 6.000 metrotik gorako garaiera dauka.

Jose Mari Iturbek beste argazki esanguratsu batzuk daudela esaten du: "Adibidez, Arrolak Pirinioetara egin zuen lehenengo irteerako argazkiak daude".


*Supide*, 1974an. | ARROLA MT

Eta egun informalagoetako argazkiak ere badaude: adibidez, Urte Berri eguneko urterik urteko irteerarenak, edo Arrolarendako ohikoa den perretxiko-batze eta erakusketarenak. Hainbeste egonda, Etxanizek dioenez, "beharbada, batzuk kendu" egin beharko dituzte.

Picasako Arrolaren gunean, argazkiak sasoika sailkatuta agertzen dira. Oraingoz, hamar album edo multzo daude, baina argazkiak dauzkatenei haiek konpartitzeko dei egiten die Jabi Etxanizek, haiek ere Picasara igotzeko. "Horrela, fondoa handiagoa izango da", esaten du.

### Gazteek lagunduta

Jabi Etxanizek "pena" puskatxo bat dauka: "Argazkiotan agertzen diren guztiek ez dute jakingo Interneten ibiltzen, eta ezingo dituzte ikusi. Baina beharbada, seme-alabek edo ilobek lagunduta...", esaten du. Eta Internetekiko grina hartuta, elkarteko bateren batek proposatu ei du Arrolaren bloga sortzea, edo *Facebook.com* sare sozialean profila irekitzea. Etxanizek esaten du, barrez, berak nahikoa duela argazkietarako webguneekin. Beharbada beste kideren batek jarraitu beharko dio ireki den bideari.

# Zubi berria gertu hil amaierarako


Eguaztenean ipini zituzten zubiaren pieza nagusiak. | UBANE MADERA

▶ Eguazten eguerdian ekarri zuten zubia, Burgostik

▶ Gelma–Zaldibar bidea otsailerako gertu izango da

UBANE MADERA | ARRASATE

"Aspaldiko helburua zen konexio hori lortzea, herritarrak goiko auzoetatik ospitale ingurura zuzen-zuzenean joan ahal izateko, eta, tarte handi batean, gainera, aterpean. Bestalde, Musakolakoek orain arte Osiñatik joan behar izan dute ospitale ingurura, eta haiendako ere aukera berria izango da Gelmakoa, atseginagoa", adierazi du Juan Antonio Urdangarinek, Udaleko Hirigintza Saileko arduradunak Gelma eta Zaldibar guneen artean eraikitako pasabide berriaren gainean.

**Gainerako elementuak, orain**

Oinezkoendako zubia falta zen pasabide hori erabili ahal izateko, eta eguaztenean ekarri zituzten zubiaren pieza nagusiak (pasabidea eta habeak). Hala, datozen egunotan ipiniko dizkiote falta zaizkion elementuak: baranda bitxia, kristal bikoitzekoa eta eskudelean argiak ezkutatuta dituena. Argi horiek, gainera, kolorez alda daitezke (urdina, gorria, berdea, morea…) eta zubiaren estruktura eta kristalezko baranda bera argiztatuko dituzte. Bestalde, zubiak argi gehiago ere izango ditu, beheko partean, zorua argiztatzeko.

Bada, hori guztia urtarrilaren bukaerarako ipinita izango dela aurreikusi du Obenerreka enpresak, oinezkoendako zubia eraikitzeko ardura duenak. Eta behin elementuok ipinita, Gelma-Zaldibar pasabidearen alde biak konektatuta eta erabilgarri izango dira.

**Parkea ala aparkalekua**

Izan ere, errekaren beste aldean eraikitako parkea joan den hilabetea ezkero dago bukatuta eta erabilgarri.

Horren harira, Urdangarinek dio parke hori "udalerrirako ona" izango dela: "Leku egokia izango da. Bere garaian eztabaida egon zen parkea edo aparkalekua ipini, eta, egia esan, aparkalekua ipintzearekin ez da konpontzen han dagoen arazoa; aldiz, parkearekin guztiok irabazi dugula uste dut".

## Gastronomia elkarteetan ere, euskaraz aurrerantzean

Herriko 19 elkarte gastronomikok SUDCen bitartez euskara planak lantzen dihardute

A. TXINTXURRETA / U. MADERA | ARRASATE

SUDC elkartea 25 elkarte gastronomikoz dago osatuta (150 bazkide). Elkarteetako bazkideen %70 euskal hiztunak dira; hala ere, euskararen ahozko erabilera %37 da eta idatzizkoa, berriz, %23.

Bada, errealitate hori aldatu eta euskarari bultzada eman guran, SUDC elkarteak euskara bultzatzeko planak lantzen dihardu orain dela urtebete inguru.

Hain justu, SUDCeko 25 elkarteetatik 18k dute baiezkoa emanda, eta baita SUDCeko kide ez den Montxon elkarteak ere.

**Konpromisoa eta garrantzia**

"Gure konpromisoa adierazten dugu gure elkarteetan euskararen presentzia handitu eta gorpuztu dadin", adierazi zuten SUDC elkarteko ordezkariek eguaztenean, orduantxe egin zuten-eta euskara planaren aurkezpena, SUDCen egoitza berrian, Nafarroa etorbidean.



Elkarteetako, SUDCeko eta Udaleko ordezkariak, aurkezpenean. | IRATI GOITIA

SUDCeko eta elkarteetako ordezkariekin batera udal ordezkariak ere izan ziren, tartean Ino Galparsoro alkatea. Hark ere azpimarratu zuen SUDCek abiarazitako ekimenaren garrantzia. "Euskarari beste maila bat" emango zaiola esan zuen.

**Erdia baino gehiago euskaraz**

Orain hasi eta bi urteko mugarria ezarri du SUDCek honako helburuak lortzeko: ahozko erabilera %37 izatetik %57ra igotzeko eta idatzizko erabilera %23tik %57ra igotzeko.

Hori lortzeko, besteak beste, elkarteetako funtzionamenduarekin zerikusia duten dokumentuak euskaraz egin edo euskaratu egingo dituzte. Edo batzarrak, gaztelaniaz gainera, euskaraz ere egingo dituzte, aurrerantzean.

Horren guztiaren jarraipena egiteko, gainera, batzorde eragilea sortu dute, datozen bi urteotarako.

**Erretiratutako euskaltzaleak**

SUDCen ekimena erretiratutako euskaltzale talde baten eskutik etorri da. Orain dela urtebete SUDCeko ordezkariekin elkartu ziren elkarte gastronomikoetan euskararen presentzia areagotzeko plana proposatzeko. SUDCek onartu eta abiarazi egin zuen.

### Abenduko etenaren ostean, bihar berriro baserritarren azoka

Urte hasierarekin batera, ohitura onak berreskuratu eta atzera ere hasiko dira Arrasateko baserritarrak bertan ekoiztutako produktuak kalera ekartzen.

Bihar, zapatua, da aurrenengo hitzordua. Seber Altuben ipiniko dituzte postuok, 09:00etatik 14:00etara. Bihartik aurrera, hileko hirugarren zapatuan izango da azoka.

### Odol ateratzeak egingo dituzte, hilabetea bukatu arte

Asteon hasi eta urtarrilaren 19an, 20an, 21ean, 25ean eta 26an batuko dute odola, anbulatorioan. 16:30etik 20:00ak bitartean joan beharra dago odola ateratzera.

Arabako Odol Emaileen Elkartekoek dei egin dute odola emateko, "beharra dagoelako". Baldintzak dira 18-66 urte artean izatea eta, gutxienez, 50 kilo.

islada
ile apaindegia
SPA masajeak, sentsazio erlaxatua eta berriztua.
Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: isladaileap@hotmail.com

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

# Erdialdeko gaztegunea gertuago, egokitzeko lanak asteon hasi ostean

## Astelehenean hasi ziren lanekin eta bost hilabeteko epea dute; besteak beste, hainbat horma bota eta lokala intsonorizatu egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aste bukaeretako aisialdi eskaintza osatzea, gaztetxoendako eta erdigunean. Hori da etorkizuneko erdialdeko gaztegunearen helburua. Izan ere, Udaleko Gazteria Sailak aspaldi ikusi zuen Arrasaten hiru gazte txoko izan arren, erdigunean 12 eta 17 urte artekoendako aisialdi eskaintza hankamotz zegoela. Izan ere, gazte txoko horiek herriko auzo periferikoetan daude: Erguin, San Andres eta Musakolan, hain zuzen. Hala, erdiguneko hutsunea betetzea geroago eta gertuago dago, astelehenean hasi zituzten-eta Pablo Uranga kaleko eraikina egokitzeko obrak.

Pablo Urangako 6. zenbakiko etxabe osoa hartuko du aisialdirako gune berriak. Hau da, orain arte AEDren eta Ekin Emakumeak Elkartearen esku zegoen gune osoa hartuko du etorkizuneko gazteguneak. Txatxilipurdi elkartekoak ere bertan egon ziren 2010eko uda hasierara arte; orain, Nafarroa etorbidean daude, Udaltzaingoaren egoitza berriaren atzealdean. AED eta Ekin, berriz, Pablo Uranga kaleko 4. zenbakian geratuko dira, oraingoz.



Etorkizuneko gaztegunea kanpoaldeatik ikusita, eguaztenean hartutako irudian. | JOKIN BEREZIARTUA

### Bost hilabete lanak amaitzeko

Hirigintza Sailak adierazi duenez, bost hilabete iraungo dute gaztegunea egokitzeko lanek. Ofizialki abenduan hasi behar zituzten lanak, baina, Gabonetako oporrak direla-eta, obrak "martxa onean" asteon hasi dira; astelehenean, hain zuzen. Beraz, maiatz amaierarako edo ekain hasierarako lanek amaituta egon beharko dute. Hainbat lan egin behar dituzte: besteak beste, hainbat horma bota egin behar dituzte –orain lan horretan ari dira– eta, bizilagunei ahalik eta kalte txikien eragiteko, lokala intsonorizatu egingo dute. Hirigintza Sailekoek aditzera eman dutenez, "kaxa akustiko" bat egingo dute. Hau da, eraikinaren egituretatik zaratarik ez da pasako goiko pisuetara eta "ahalik eta gutxien" kanpoaldera. Hala, hormak eta sabaia sendoagoak egingo dituzte.

> **DATUA**
>
> **250**
>
> METRO KOADRO INGURU
>
> Gazteguneak 250 metro koadro erabilgarri izango ditu; topaguneak 132 metro koadro; eta gune aktiboak, berriz, 48.

### Togapunea eta gune aktiboa

Planoak ikusgai daude dagoeneko: eraikinaren barruan bi gune egokitzea da asmoa. Hala dio Blanca Jauregi Gazte Saileko teknikariburuak: "Bi gune nagusi jarriko ditugu. Espazio handien topagunea deritzonak hartuko du, eta bestetik, gune dinamikoa egongo da". Topagune moduan bataiatu duten gune hori erabilera askotarikoa izango da: "Formatu txikiko denetariko ikuskizunendako oholtza txiki bat egongo da. Tailer eta jolasendako lekua ere egongo da; gaztegunearen gune nagusia izango da".

Gune aktiboa, bestalde, ping -pong, mahai-futbol eta antzeko jolasendako egokituko dute, Jauregik aurreratu duenez. Eta pasilloa, biltegia, komunak eta instalazio teknikoetarako txokoa ere egongo dira.

### Ia 300.000 euro kostako da

Gaztegunea egiteko aurrekontua 296.035 euro da. Udalak gastuei aurre egiteko Aldundiaren eta Jaurlaritzaren dirulaguntzak jaso ditu –atzerapenak izan dira laguntza horiekin–. Lokal handia izango da, erabilgarriak diren 250 metro koadro izango ditu-eta: topaguneak 132 metro koadro eta gune aktiboak, berriz, 48.


JOKIN BEREZIARTUA

## Ferixalekuko igogailuak itxi, putzuen arazoa konpontzeko

Ferixalekuko igogailuak itxita egongo dira gaur, eta, azken orduko arazorik ezean, bihartik aurrera erabiltzeko moduan egongo dira. Igogailuetako pasabideetan putzuak sortzen dira, eta, arazo horri aurre egiteko, erabiltzaileak igarriko ez duen malda txikia jarriko dute kanpoalderantz, ura pasabideetan gera ez dadin.

## Urte berriak eskaintza berria ekarri du Aukean

J.B. | ARRASATE

Aukeak kirol eskaintza herritarren eskura jartzeko ahaleginean dihardu. Hala, spinninga eta pilatesa probatzeko aukera emango du. Spinningari dagokionez, gainera, doan probatzeko aukera izango da; bi aukeren kasuan ere, urtarrilean izango dira hastapen ikastaroak.

Spinningari dagokionez, urtarrilaren 25ean eta 27an izango da kirol hori probatzeko aukera, 20:30ean. Pilatesaren kasuan, berriz, goizez zein arratsaldez izango dira probatzeko eskolak: goizez, urtarrilaren 18an, 20an, 25ean eta 27an, 10:30ean; arratsaldez, urtarrilaren 17an, 19an, 24an eta 26an, 18:30ean. Pilatesko hastapen ikastaroaren prezioa 17,25 euro da; bost euro gehiago abonatuak ez direnendako. Informazio gehiagorako edo izena emateko Musakolako kiroldegira jo edo hara deitu behar da: 943 77 16 77 edo *aukea@arrasate-mondragon.net* helbide elektronikora.

### Barruko igerilekuak

Bestalde, asteon hasi dira barruko igerilekuetako sabaia konpontzeko lanak. Aukeak, erabiltzaileei sortutako kalteak konpentsatzeko asmoz, murrizketak egin ditu abonuetan. Sabaia konpontzeko lanak Aste Santurako amaituko dituztela espero du Udaleko Obra Sailak.

## Labankaden aurkako txalekoak erabiliko dituzte udaltzainek

Jose Luis Etxebarria udaltzainburuak adierazi duenez, "laster" labankaden aurkako txalekoak eramango dituzte udaltzainek: "Noizean behin sortzen diren liskarretan babestuago egoteko da", esan du. Egun, txalekoendako aurrekonturik onena aurkitzen ari dira. Bestalde, pistolak eramango dituztela ukatu egin du udaltzainburuak.

## Capoeira ikasteko aukera izango da datorren astean

Senzala Euskadiko kultura eta capoeira taldearen eskutik, capoeira ikastaroa izango da datorren astean San Viator ikastetxean.

Bi saio egingo dira: hilaren 17an –19:00etatik 20:00etara– eta 19an –19:30etik 20:30era–. Informazio gehiagorako edo izena emateko 625 77 22 95 telefonora deitu behar da.

# Ford Mugarri Arrasate eta Soraluce BKE aurrez aurre bihar

## Euskadiko txapelketan denboraldiko derbia jokatuko dute Arrasateko eta Bergarako taldeek, lehenengo itzulia amaitzear dagoela

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Lehen itzuliaren amaierara arte itxaron behar izan dugu Euskadiko txapelketan lehian dabiltzan ibarreko bi ordezkariak zein baino zein gehiago ikusteko (zapatua, 16:30, Iturripe).

Ford Mugari Arrasatek amaitu moduan hasi du urtea, bikain, Basauri mendean hartuta (22-28). Hala, Edu Orgazen mutilak lider dira sailkapenean, baina etxe barruan ez dira gauzak kanpotik bezain eder ikusten: "Joko aldetik ez da gure momentu onena, baina, hala ere, partiduak aurrera atzeratzen ari gara. Iaz denboraldia nekatuta amaitu genuen eta aurten beste modu baten egin dugu planifikazioa. Hala, Gabonetan entrenamendu gogorrak egin ditugu, bolumen handiarekin, eta, horrek luzera emaitza onak emango baditu ere, orain momentuan joko aldetik ez gaude onenean", adierazi du Arrasateko taldeko entrenatzaileak.





Denboraldi-aurrean bai, baina ligan lehenengoz izango dira bihar Ford Mugarri eta Soraluce BKE aurrez aurre. | GOIENA

**ESANAK**

**"Liderrak gara, baina joko aldetik ez gaude onenean"**
EDU ORGAZ
FORD MUGARRIKO ENTRENATZAILEA

**"Erasoei eutsi, eta kontrerasoan irten beharko dugu azkar"**
JOSETXO MUNIATEGI
SORALUCE BKE-KO ENTRENATZAILEA

**Berba onak kontrarioarendako**

Orgazek ondo ezagutzen du biharko kontrarioa: "Bergarakoek ezuste bat baino gehiago eman dute azken hilabeteotan. Txarto hasi ziren, baina badirudi neurria hartu diotela txapelketari eta puntako taldeen kontra ondo jokatzeko gauza dela erakutsi dute. Joan den astean, esaterako, berdindu egin zuten Askartzaren kontra (33-33), eta berdindu bakarrik ez, partidua irabazteko aukera ere izan zuten. Alde horretatik, oso ondo dakigu bihar argi ibili beharko dugula. Gainera, derbi bat da, eta hor sailkapenak erakusten duenak ez du horrenbeste inporta".

**Bergara, atseden hartuta**

Mahoneroek atseden hartzeko aprobetxatu dituzte Gabonak: "Joan den astean hiru entrenamendu saio egin genituen, baina urte amaieran atseden hartu genuen; jendea nekatuta zegoen", adierazi du Muniategik.

Joan den astean batutako puntuarekin pozik, Bergarakoak gogotsu daude derbiari begira: "Garbi dugu gure aukerak aprobetxatzen baditugu partidua irabazteko aukerak izango ditugula. Etengabe egingo diguten erasoei eutsi behar diegu, euren akatsak bilatu, eta ondoren kontraerasoan azkar irten".

## MUk Askartzaren kantxan eman dezake pauso garrantzitsua

**X.U.** | ARRASATE

Ligako hamahirugarren jardunaldia jokatzear dagoela –oraindik sei jardunaldi geratzen dira lehenengo fasea amaitzeko–, Askartza eta MU taldeak dabiltza igoera faserako txartelagatik lehian. Izan ere, lehenengo bost sailkatuek hartu ahal izango dute arnasa lasai, eta denboraldiko bigarren txandan helburu zorrotzagoengatik borrokatu.

Kontua da orain momentuan Askartza dagoela bosgarren eta MU seigarren, biak ala biak 17 punturekin. Eta bihar elkarren kontra jokatuko dute bi talde horiek, 20:00etan, Leioan.

### Arrasate errugbiko senior eta emakumeek atseden dute

Oraingo asteburuan ART taldeko senior mailako emakumezkoek eta gizonezkoek atseden izango dute. Gazteek etxean jokatuko dute, zapatuan, 11:30ean, Eibarren kontra. Eta kadete mailakoek Errioxara egingo dute bidaia zapatu goizean –09:00etan irtengo dira autobusean.

### Besaide Mendi Elkartearen batzar orokorra hilaren 20an

Besaide Mendi Elkarteak aurkeztu ditu 2011rako gertatu dituen irteerak –bazkideek etxean jasoko dute triptikoa–, baina egutegi horren gainean berba egiteko eta iazkoaren balantzea egiteko batzar orokorra egingo dute datorren eguenean. Informazio gehiago: *www.besaide.org*

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iluntz-Lasagabaster | 1-4 |
| Fuxxion-Betrayer | 0-5 |
| Portaboleiros-Iriztu | 2-8 |
| Cipris-Fidel & Disc. | 6-4 |
| McAwenDauen-Dribling | 0-0 |
| Steaua del Grifo-Abokajarro | 3-9 |
| Dublin-Ekaitz | 3-8 |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Cipris | 21 | 8 |
| 2 | Ekaitz | 21 | 8 |
| 3 | Iriztu | 18 | 8 |
| 4 | Dribling | 16 | 7 |
| 5 | Lasagabaster | 16 | 7 |
| 6 | McAwenDauen | 13 | 6 |
| 7 | Abokajarro | 11 | 8 |
| 8 | Iluntz | 10 | 8 |
| 9 | Betrayer | 9 | 8 |
| 10 | Portaboleiros | 9 | 8 |
| 11 | Dublin | 8 | 8 |
| 12 | Fidel & Disc. | 3 | 8 |
| 13 | Fuxxion | 3 | 8 |
| 14 | Steaua del Grifo | 0 | 8 |

**PARTIDUAK**

URTARRILAK 15, ZAPATUA

| | |
|---|---|
| **10:30** | Steaua del Grifo-Dublin / **Fuxxion** |
| **11:30** | Fuxxion-Fidel & Disc / **Dublin** |
| **12:30** | McAwenDa.-Ekaitz / **Fidel & Disc** |
| **16:00** | Iriztu-Lasagabaster / **Dribling** |
| **17:00** | Portaboleiros-Dribling / **Iriztu** |

URTARRILAK 16, DOMEKA

| | |
|---|---|
| **10:30** | McAwen Da.-Lasagab. / **Betrayer** |
| **11:30** | Betrayer-Iluntz / **Cipris** |
| **12:30** | Cipris-Abokajarro / **Iluntz** |

### Urteko lehena, Gabonetan jan eta edandakoak atzean uzteko

Oraingo asteburuan helduko diote berriro ere Zaldibarko Txapelketari, urteko lehenengo jardunaldian. Ikusteko dago lider dauden Ciprisek eta Ekaitzek horren sendo jarraitzen duten urte hasieran, zortzi jardunalditan bi talde horiek partidu bakarra galdu dute-eta.

### Lasagabasterrek eta McAwenDauenek lan bikoitza

Bi talde horiek bi partidu jokatuko dituzte oraingo asteburuan, atzeratutako norgehiagoka bat dutelako jokatzeko. Hala, elkarren kontrakoa domekan izango dute, 10:30ean hasita. Baina zapatuan ere lana izango dute.




URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Ekainera arte 12 literatura solasaldi egingo dituzte

## Lehena Vargas Llosaren gainean egingo dute hilaren 18an

M.B. | ARRASATE

Arrasateko Udal Liburutegiak literatura solasaldiak egingo ditu 2011n. Guztira, 12 egingo dituzte hilaren 18an hasi eta ekainera arte. Hilero bi egingo dituzte, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Solasaldiak 10:30etik 20:30era egingo dituzte. Informazio gehiago nahi dutenek *www.arrasatekoudalbiblioteka.blogspot.com* helbidean begira dezakete.

### Hasteko, Vargas Llosa

Iaz bezala, oraingoan ere punta-puntako idazleen liburuak aukeratu dituzte; besteak beste, Ramon Saizarbitoria, Miren Agur Meabe eta Literaturako Nobel saria jaso berri duen Mario Vargas Llosaren liburuak irakurri eta landuko dituzte. Hain zuzen ere, Peruko idazlearen *La tía Julia y el escribidor* izango da lehen solasaldiko protagonista.

Euskarazko solasaldietako koordinatzailea Mikel Aierbe izango da eta gaztelaniazkoena Rikardo Arregi.

Antolatzaileek esan digute euskarazko solasaldietara liburuen idazleak gonbidatuko dituztela. Baina azken ordura arte ez dute jakingo etorriko diren edo ez. Iaz, adibidez, Anjel Lertxundi egon zen solasaldietako baten.

### Gaztelaniazko solasaldiak

Euskarazko lehen solasaldia hilaren 26an egingo dute (ikus ondoko taula) eta azkena ekainaren 15ean. Gaztelaniazkoak hilaren 18an hasi eta ekainaren 14an bukatuko dituzte. Mario Vargas Llosaren liburuaren ondoren, beste bost irakurri eta landuko dituzte: otsailaren 15ean Julian Barnesen *Nada que temer*; martxoaren 15ean Angel Gonzalezen *Palabra sobre palabra*; apirilaren 12an Andres Trapielloren *Los amigos del crimen perfecto*; maiatzaren 17an Pola Oloixaracen *Las teorias salvajes*; eta ekainaren 14an David Lodgeren *Intercambios*.

**EUSKARAZKO SOLASALDIAK**

**URTARRILAK 26**
'Egunero hasten delako'
**Ramon Saizarbitoria**

**OTSAILAK 23**
'Galerna'
**Iratxe Esnaola**

**MARTXOAK 23**
'Ogi hutsa'
**Mohamed Xukri**

**APIRILAK 13**
'Bitsa eskuetan'
**Miren Agur Meabe**

**MAIATZAK 25**
'Zorion handiegia'
**Alice Munro**

**EKAINAK 15**
'Fikzioen izterra'
**Ur Apalategi**

# Los Carniceros del Norte eta Lobo Electrico taldeak Kooltur Ostegunetan

## Barakaldokoek hilaren 20an joko dute eta tolosarrek hilaren 27an

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenak jarraipena izango du aurten. Urtarrilerako hiru kontzertu iragarri zituzten antolatzaileek. Horietako lehena atzo egin zuen UNE taldeak. Baina atzoko metal eta rock doinuek lekua utziko diete beste bi talderi: hilaren 20an Los Carniceros del Norte taldeak egingo du kontzertua eta hilaren 27an Lobo Electrico taldeak.

Arrasateko gaztetxean izango dira, 22:00etan.



Los Carniceros del norte taldeko kideak. | GOIENKARIA

### Punk 'siniestroa'

Los Carniceros del Norte laukotea Barakaldotik dator, eta punk *siniestro* estiloa lantzen du. Txarly, Nando, Zombie eta Gorka dira kideak, eta, besteak beste, azken urteotan grabatutako diskoetako kantuak eskainiko dituzte. Iaz *Sangre* delako diskoa kaleratu zuten eta aurretik, *Poe is dead*, eta *13 cuchilladas*.

Los Carniceros del Norte taldea 2006an sortu zen. Euren asmoa zen beldurrezko pelikulak oinarri hartuta –*El Gabinete del Doctor Caligari*, *Nosferatu*, *El resplandor*, *La noche de los muertos vivientes*...– musika egitea. Hori horrela, *13 cuchilladas* grabatu zuten. Bigarren diskoan Edgar Allan Poe omendu zuten.

### Lobo Electrico

Urtarrileko azken zuzenekoa Lobo Electrico tolosarrek egingo dute. 1999. urtean sortu zuten taldea, eta rock-and-roll erotikoa egiten dute. Musika eta letra beroak ipiniko dituzte Arrasateko oholtza gainean.

# 'Naturaren argazkilariak 2010' erakusketa ikusteko azken eguna hilaren 17a da, Kulturaten

M.B. | ARRASATE

Naturako animaliarik ikusgarrienak, paisaia politenak, gizakien eta naturaren arteko harremana... Horiek guztiak ikus daitezke Kulturateko klaustroan jarri duten *Naturaren Argazkilariak 2010* erakusketan. Hilaren 17ra arte egongo da.

*Veolia Environnement Wildlife Photographer of the Year* lehiaketetako argazkirik onenak agertzen dira. 46 urte baino gehiago historia du lehiaketa horrek eta Londresko Historia Naturalaren Museoak eta BBCren *Wildlife Magazine* aldizkariak antolatzen dute. Kulturaten dauden argazkiak 2009ko ediziora aurkeztutakoak dira. Naturaren bortitzena eta samurrena erakusten dute.

### Ikusle asko erakarri ditu

Laugarren aldia da *Naturaren Argazkilariak 2010* erakusketa Arrasatera etortzen dena eta urtetik urtera gero eta interes handiagoa piztu izan du. Iaz, adibidez, 3.000 bisitari izan zituen erakusketak. Bisitariak, gainera, helduak eta gazteak, adin guztietakoak izan ohi dira.

Kutxaren Gizarte Ekintzaren babesarekin heldu da erakusketa Arrasatera eta aurretik Bilbon, Coruñan eta Lleidan ere egon da ikusgai.

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE









# Gazteei dei egiten diete odol emaileen elkartetik

▶ Azken urteetako erronka da hori; izan ere, "odola oso garrantzitsua da"

▶ Eguaztenean egin dute urteko lehen ematea; urte osoan 22 izango dira

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Eguaztenean egin zuten lehen odol ematea Odol Emaileen Elkarteko kideek. Dagoeneko prest dute urte osoko odol emateen egutegia, eta, Fernando Idigoras Odol Emaileen Elkarteko kideak azaldu duenez, 2011n 22 emate egingo dira, ohi bezala Seminarioko egoitzan.

2010eko datuei erreparatuz gero, bakoitzeko batez beste 52 emate egin ziren, Idigorasek azaldu duen moduan, eta, urteroko joerari jarraituz, Gipuzkoan puntako herria izaten jarraitzen du Bergarak emate kopuruari dagokionez.

Iazko emate kopuruarekin pozik dauden arren, aurreko urteko kopurua gainditzea da elkartearen urteroko erronka, eta aurten ere hori da euren helburua: 2011n 2010ean baino emate gehiago lortzea. Eta horretarako herritarren laguntza ezinbestekoa da. Hala ere, kopurua gainditzea zaila ez dela ere aitortu du: "Beti diot emate bat gehiago egitea dela gakoa", dio Idigorasek: "Urtean emate bat egiten duenak bi egingo balitu eta bi egiten dituenak hiru, kopuruak gora egingo luke, erraz".



Eguaztenean odola ematen. | M.B.

Emaile berriak lortzeko nahia ere badutela gehitu du Idigorasek: "Azken urteetan esaten nabilen bera esango dut: gazteak erakarri nahiko nituzkeela odol emaile egin daitezen".

Horrekin guztiarekin, Idigorasek odola ematearen garrantzia azpimarratu du beste behin. "Oraindik odol premia handia dago. Hemofiliko asko dago egunero odola behar duena eta badira beste gaixotasun batzuk ere odol premia handia dutenak. Egunotan, transplanteez asko egiten da berba. Bada, horietarako ere odol asko behar da".

### EGUTEGIA

| HILA | EGUNAK |
|---|---|
| Urtarrila | 26 |
| Otsaila | 9, 23 |
| Martxoa | 16, 30 |
| Apirila | 13, 27 |
| Maiatza | 11, 25 |
| Ekaina | 8, 22 |
| Uztaila | 13, 27 |
| Abuztua | 10 |
| Iraila | 7, 21 |
| Urria | 5, 19 |
| Azaroa | 2, 23 |
| Abendua | 14 |

# PSE-EEren ustez, "ez da serioa" alkateak plan estrategikoa agintaldi amaieran eskatzea

Ez dute uste kasualitatea denik plan hori enkargatu izana hauteskundeetarako sei hilabete falta direla

M.B. | BERGARA

PSE-EE alderdia ez dago batere konforme Udalak bultzatutako plan estrategikoa egiteko, "ez moduarekin ezta mamiarekin" ere. Diote: "Alkateak agintaldi amaieran egin nahi du plan hori; antza, azkeneko hiru urte eta erdian ez du astirik izan. Edo ez zaio lehentasunezkoa iruditu agintaldi hasieratik herritarrek herria nola ikusten duten jakitea eta herriaren etorkizunaz dituzten kezkak zein diren jakitea". Eta gehitzen dute: "Ze kasualitatea udal hauteskundeetarako sei hilabete falta direla zeregin horretarako enpresa bat kontratatu izana, eta enpresa horrek lana maiatz bukaerarako bukatzea, hauteskundeekin bat eginez".

Horrekin guztiarekin, PSE-EEk dio alkatea ari dela herritarren iritzia jakiteko duen "gogorik eza" plan horrekin "mozorrotzen": "Agintaldi hasieratik izan beharko zukeen jakin-min hori eta orduan enkargatu plana. Sei hilabetean bukatuta zatekeen eta hiru urte eta erdi izango zituzkeen proposatutako neurriak aplikatzeko eta helburuak betetzeko".

PSE-EEren ustez, orain gertatzen ari dena da "Udal Gobernuak enkargatu diola enpresa bati hauteskunde programa egin diezaion, planeko parte-hartzaileen proposamenez baliatuz". Eta gehitzen dute: "Herriaren etorkizuna ez da zazpi batzarretan eta sei hilabetean erabakitzeko gauza bat".

# Info7 irratiaren aldeko kanpaina abiarazi dute hainbat herritarrek

Bazkide egiteko aukera dago, eta bertso saioa eta kontzertua ere antolatu dituzte

M.B. | BERGARA

Bost urte Interneten egin ostean, FMrako jauzia egiten ari da Info7 irratia. Bergaran entzun ahal izateko datozen egunotan antena jartzekotan dira eta horrek duen 6.245 euroko gastuari aurre egiteko kanpaina egiten ari da herritar talde bat.

Hori horrela, herritarrei laguntza eskatzen dihardute. Ale batetik, bazkide egiteko aukera dago hilean 7 euroren truke –Arrano tabernan dago horretarako aukera–, eta bestetik, antolatu duten ekitaldietan parte hartuz.

**Bertso saioa eta kontzertua**

Kanpainaren barruan bi ekitaldi antolatu dituzte irrati horren alde: batetik, urtarrilaren 21ean bertso saioa egongo da, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Parte hartuko dute Jon Maia, Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Sebastian Lizaso, Igor Elortza eta Aitor Mendiluze bertsolariek eta gai-jartzaile Josu Goikoetxeak jardungo du.

Sarrerak salgai daude zortzi eurotan Arrano eta Ariznoa tabernetan eta Errotalde kultura etxean; Arrasaten, Irati tabernan; Aretxabaletan, Urbaltz tabernan; Eskoriatzan, Inkernu tabernan) Oñatin, Arrano tabernan; Antzuolan, Larrea tabernan; eta Elgetan, Haizea tabernan.

Horrez gutziaz gain, urtarrilaren 29an kontzertua egongo da gaztetxean Xarma, Dirty Brothers eta Never Surrender taldeekin.

## OHARRAK

**SAN ANTON OSPAKIZUNA ASTELEHENEAN**

11:00etan meza egongo da ermitan, eta gero, salda eta txorizoa banatuko dute.

**BEDELKAR ELKARTEKO ZENBAKI SARITUAK**

Bedelkar dendari ostalari eta zerbitzuen elkarteko Gabonetako zozketako zenbaki sarituak dira: 5.761 (500 euro); 6.741, 26.149, 72.254, 76.831 eta 83.401 (200 euro bakoitzarendako); eta 15.366, 23.080, 34.879, 47.236 eta 87.926 (ehun euro bakoitzarendako).

**REALZALEAK ELKARTEKO KAMISETAK HARTZEKO**

Matxiategi elektrizitate-dendan jaso daitezke, 10 eurotan.

**MEDITERRANEOAN ZEHAR BIDAIA SAN JOXEPEREKIN**

San Joxepe erretiratuen elkarteko kideek Mediterraneoan zeharkaldia antolatu dute. Grand Celebration itsasontzian izango da eta maiatzaren 16an abiatuko da, Bartzelonatik. Irla grekoak, Turkia eta Egipto zeharkatuko ditu. Izena emateko jo San Joxepeko bulegora urtarrilaren 31 baino lehen 11:30etik 12:30era eta 17:30etik 18:30era.

**ARANZADIKO DBH-KOEN ZENBAKI SARITUAK**

Aranzadiko DBHko 2. mailakoen ikas-bidaiarako zenbaki sarituak dira: 263 (lehen saria) eta 1.362 (bigarrena).

**TAILA ESKOLAK BATZAR OROKORRA DEITU DU**

Astelehenean, hilaren 17an, egingo dute, Zabalotegi 11n –behean– duten egoitzan. Lehenengo deialdia 19:00etan da eta bigarrena, 19:30ean.

**ASKOTARIKO IKASTAROAK MIGUEL ALTUNAN**

Langile, autonomo, funtzionario eta langabeendako hainbat ikastaro emango dituzte datozen hilabeteotan (%100 diruz lagunduta). Hiru alorrekin lotura duten ikastaroak egingo dituzte: mekanika, elektrizitatea eta administraritza eta informatika. Informazio gehiago eta izenematea Miguel Altunan eta 943 76 70 49 zenbakian.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

# Aurten ere egongo dira gazteendako DJ jaialdiak Zabalotegin

## Lehenengoa bihar, zapatua, izango da, ohi bezala 18:30etik 21:30era, DBHko ikasleendako

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Bihar, zapatua, egongo da DBH-ko gazteendako urteko lehenengo DJ jaialdia Zabalotegi aretoan. Ohi bezala, 18:30etik 21:30era izango da eta disko-jartzaile Jon Urbietak jardungo du. Urbietaz gain, beste bi disko jartzailek ere hartuko dute parte; txandaka arituko dira, hain justu.

Bukatu berri dugun urtean antolatu ditu lehenengoz Udalak gazteendako DJ jaialdiok, eta, izan duten erantzun ona ikusita, aurten ere ildo beretik jarraituko du eta urtean barrena 16 halako jaialdi egongo dira.

2010ean, batez beste 175 gaztek hartu du parte jaialdi bakoitzeko –Elgeta eta Antzuolakoak ere etortzen dira, DBH Bergaran egiten dute-eta–, eta aurten ere hala izatea espero dute udal arduradunek.

Bestalde, gaztetxoak ez ezik, haien gurasoak ere pozik daude ekimenarekin: "Gurasoak oso pozik daude", esan dute Gazteria Sailetik. "Seme-alabek ondo pasatzen dutela eta alkoholik gabeko gunea" dela azpimarratu zuten gurasoek haiekin egindako batzar baten", gehitu dute.

### EGUTEGIA

| HILABETEA | EGUNAK |
|---|---|
| **Urtarrila** | 15, 29 |
| **Otsaila** | 12, 26 |
| **Martxoa** | 12, 26 |
| **Apirila** | 9, 30 |
| **Maiatza** | 14, 28 |
| **Iraila** | 24 |
| **Urria** | 8, 22 |
| **Azaroa** | 12, 26 |
| **Abendua** | 10 |



Iazko DJ jaialdietako bat. | JOSETXO ARANTZABAL

**Tailer arrakastatsuak**

Gabonetako oporraldietan antolatutako gazteendako tailerrek ere erantzun oso ona izan dutela aurreratu dute. Muniben egokitutako karpan egondako sei tailerretatik automakillajea izan da arrakasta handien izan duena: 12-13 urteko 27 neskak eta 15 urteko 17k eman zuten izena. Erantzun oso ona izan du, baita ere, sexologia tailerrak: 11-12 urteko 30 gaztek hartu zuten parte eta 15 urteko 19k.

NIRE USTEZ



AITZIBER AZKONDO

## Orkestrak 25 urte, zorionak!

Duela 25 urte Bergaran Orkestra Sinfoniko baten sorrera paperean idatzi zen proiektu bat besterik ez zen izan, eta egun, orkestra osatzen duten musikariei esker, errealitatea ez ezik, puntako banda soinuak eskaintzeko gai den elkartea izatera iritsi da.

Musikarenganako maitasunak, etengabeko elkarlanak, iraunkortasunak eta musikak partaide bakoitzaren bizitzan duen eraginak bideratu dute hori. 25 urteak orkestran bete dituztenak bat baino gehiago dira, beraien artean erlazio pertsonalak sortutakoak, eta erlazio hauetatik jaio eta dagoeneko musikan murgilduta dauden belaunaldi berriak ere badira. Bizitzaren norabidea musikak eta orkestrak erakutsi die, lana, ikasketak eta harreman sozialak, besteak beste. Musikatik haratago dagoen zerbait behar da 25 urtean barrena izan den iraunkortasun hori mantentzeko.

Orkestrari esker egin dira Bergaran proiektu musikal guztiak, hasi *Miserableak*-ekin eta abenduko *Olentzero* arte.

Ez da ohikoa, ez Euskal Herrian ezta Espainiako Estatuan ere, urte kopuru hori bete duen orkestra amateurrik aurkitzea, eta gure herrian bada bat.

Esfortzuak paperean zegoen proiektuak 25 urte betetzea egin du. Ez dadila hor gelditu. Eskerrik asko eta zorionak!

**"Musikatik haratago dagoen zerbait behar da iraunkortasun horri eusteko"**

# LABek irabazi ditu Udaleko hauteskunde sindikalak

L.K. | BERGARA

Martitzenean bozkatu zuten Udaleko langileek euren ordezkari sindikalak aukeratzeko. Lau urtean behin egiten dira hauteskunde sindikalok enpresa guztietan, eta, orain arte bezala, LABek atera du gehiengoa Udalean: zortzi ordezkari. ELAk hiru atera ditu eta ESK-k beste hiru. 2006an LABek eta ELAk aurtengo kopuru bera atera zuten eta ESK-k bakarra.

Langile mota bakoitzeko emaitzak hauek izan dira: funtzionarioak, 3 ordezkari LABek eta 2 ELAk; teknikari eta administratiboak, 2 ordezkari LABek eta bat ESK-k; eta espezializazio bako langileak, 3 LABek, 2 ESK-k eta bat ELAk.



IBON GABILONDO

# Ander Goikoetxea eta eta Andoni Elkoro irabazle

Ander Goikoetxeak eta Andoni Elkorok osatutako bikoteak irabazi zuen abenduan jokatutako Euskal Herriko mus txapelketako kanporaketa –16 bikotek hartu zuten parte–. Bigarrenak Jose Mari Arantzabal eta Jose Antonio Etxezarreta izan ziren eta hirugarrenak, Gregorio Plazaola eta Iñaki Lazpiur. Lehenengo bi bikoteak otsailean jokatuko den (zehazteke dago lekua) herrialdeko kanporaketarako ere sailkatu ziren. Final handia martxoaren 12an jokatuko da, Urruñan (Lapurdi).

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

# Manex Azula, munduko snowboard txapelketan

## Bergarako riderra gazteegia da lehiatzeko, baina 'big air' proban lehen saltoa egiteko gonbidatu dute

XABIER URTZELAI | BERGARA

Manex Azula rider gaztea –15 urte– Bartzelonako Palau Sant Jordin egingo duten *big air* proban izango da zapatuan, munduko snow txapelketako inaugurazio ekitaldian: "Horrelako gonbidapen bat jasotzeko, dauzkazun babesleek zeresan handia dute, baina baita denboraldian zehar egindako lanak ere".

Bergarakoak orain estreinatuko du txapelketen denboraldia, baina iaz, besteak beste, Espainiako txapeldun izan zen, eta Europan barrena egindako txapelketetan daukan abilezia erakutsi zuen. Hortik etorri zaio bihar Bartzelonako inaugurazio ekitaldian parte hartzeko gonbidapena.



Manex Azula, aste barruan, Bergaran. | XABIER URTZELAI

### 'Saltoa ikusi behar dut'

Palau Sant Jordin egingo duten *big air* proban 17.000 ikuslerendako tokia izango da, eta Azulari lehenengo saltoa egitea egokituko zaio: "Oraindik ez dut pentsatu ze salto egin. Hori egubakoitzean [gaur] erabakiko dut, entrenamenduetan zelako saltoa den ikusi eta gero. Kanpotik ikusterakoan horrelako arrapalek inpresioa eragiten dute, baina probatzen hastearekin batera beldur guztiak uxatzen ditugu. Atera berri dudan azken trukua *Backside 720 corck* izan da, baina, esandako moduan, oraindik ez dakit *big air* horretan ze salto egingo dudan", adierazi du.

### Gainontzekoak, La Molinan

Bartzelonan egingo duten munduko txapelketan snowboardeko sei modalitate izango dira, eta, *big air* proba kenduta, gainontzeko probak La Molina estazioan egingo dituzte (300 lagunek inguruk hartuko du parte). Hala, Azulak datorren urtean puntuak batzen baditu hitzordu horretan parte hartu ahal izango du. Oraingoz, baina, gonbidapenarekin konformatu beharko du: "Oso pozik noa; ez dut txapelketetako presiorik izango, baina, salto bakarra denez, ondo egiten ahalegindu beharko dut".



Palau Sant Jordin jarriko duten *big air* arrapalaren itxura. | RADICALBOARD.COM

### Babesleen lehentasuna...

15 urte dituen riderra da, baina Manex Azulak lehen mailako babesleak ditu (Movistar, Salomon, Nike, Monster, Dragon, Sixa), eta, hori dela eta, babesle horiekiko duen konpromisoaren gainean galdetu diegu: "Ikasketetan buru-belarri jarduteko da eskatzen didatena. Eurek planifikatzen dute txapelketen denboraldia, eta, eskolak galtzen baditut, ondoren errekuperatu egin behar".

# Birritan zulatuta Aristi 15.a izan zen Espainiakoan, Zamoran

X.U. | BERGARA

Domekan Zamorako Valorio basoan egin zuten Espainiako ziklo-kros txapelketa, eta euskal selekzioarekin ibili zen Mikel Aristi (Lokatza Sumofic) ziklista bergararra hamabosgarren sailkatu zen.

### Zorte txarra zulatuekin

Aristirendako denboraldiko laugarren proba zen. Sailkapenean puntu gutxi dituenez, irteeran –ziklo-krosean horren garrantzitsua dena– atzean irtetea egokitu zitzaion. Hala ere, lehen itzulia amaitzear, hamabost onenen artean zegoen, atzetik aurrerako lan izugarria eginda. Hurrengo bi itzulietan 8. postua zegoen taldetxora iritsi zen eta bertan ere buru jarri zen. Azken bi itzulietan, baina, zortzigarren postu horrengatik lehian zebilela birritan zulatu zuen gurpila, eta hamar lehenengoetan sartzeko zituen aukerak galdu.



Aristi, Zamoran. | PEDALEO.COM

### Bihar, Berrizen

Bestalde, ibarreko txirrindulariek Berrizen korrituko dute bihar, zapatua. Bergarakoei dagokienez, gazte mailan Hodei Orobengoa eta Mikel Aristi izango dira eta kadetetan Julen Irizar eta Txomin Larrañaga.

## Eskubaoi taldeak Ford Mugarriren kontra jokatuko du derbia

Hamahirugarren jardunaldian Muniategiren mutilek Arrasatera egin beharko dute bidaia, liderraren kontra jokatzera. Partidua bihar, zapatua, izango da, 16:30ean, Iturripen. Hala, Josetxo Muniategiren mutilek joan den astean erakutsi zuten Askartza moduko talde indartsuei aurre egiteko gauza dela [ikus 14.orria].

## Saskibaloian, Sustrai Aloña eta Soraluce BKE aurrez aurre

Gipuzkoako senior mailako bigarren mailan derbia jokatuko dute bihar, zapatua, 16:00etan, Sustrai Aloña Mendik eta Soraluce BKEk. Norgehiagoka oñatiarren kantxan izango da, eta bi taldeak daude garaipen beharrean, urteko azken jardunaldia ez zen -eta bietako inorendako batere ona izan.

KIRKOS
SEXOLOGIA ZENTROA
Sexologoa: Edu Reguero (AEPS 421. zenb.)
> Bikote-terapia
> Gurasoentzako aholkularitza
> Sexuaren eta elkarbizitzaren zailtasunak
> Eiakulazio goiztiarra
> Desira falta
> Inpotentzia
> Baginismoa
Elizkale 13 solairuartea ezk. - 630 287 321
ZUMARRAGA

PATXI CASTRO
Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Manu Muniategiandikoetxea, Justina Elexpuru eta Juanjo Altuna eguenean Aroztegin. | E.M.

# Aranzadi ikastolak antolatutako arte erakusketa Aroztegin

Ikastolako ikasle, irakasle eta gurasoen lanak jarri dituzte ikusgai

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Aranzadi ikastolaren 40. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, arte erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. 19:30ean izango da irekiera ekitaldia eta Edurne Barrutiak eta Begoña Lasagabasterrek musika piezatxo bat eskainiko diete bertan batutako artista eta herritarrei.

Antolatzaileek parte-hartze zabala lortu dute erakusketarako. 40 urteotan Aranzadi ikastolatik igarotako irakasle, ikasle eta gurasoek euren artelanak utzi dituzte. Era berean, hildako bi ikasle ohiren lanak ere ikusgai izango dira Aroztegiko erakusketan: Kutxu Otamendi eta Mikel Diez margolarienak, hain zuzen ere.

**51 artista, 51 lan**

Artisten lan bana jarri dute Aroztegiko aretoan; margolanak, eskulturak eta argazkiak tartean. Eguen goizean Manu Muniategiandikoetxea eta Juanjo Altuna ari ziren erakusketa aretoan, azken ukituak ematen. Muniategiandikoetxeak azaldu zigunez, Alexander Rodchenko artista errusiarraren (1891-1956) lanean oinarritutako eskultura jarri du. Aretoaren sarreran jarri dute *nº9* izenburuko maketa eta haren itzalak ere garrantzia dauka. Juanjo Altunak, berriz, *Calle Mayor* margolana jarri du. Haren seme-alabak Aranzadi ikastolan jardundakoak dira, eta gustura jaso zuen Altunak erakusketan parte hartzeko gonbitea.

Partaideen artean, belaunaldi askotariko egileak batu dituzte: Miguel Lazpiur, Jabier Zabala, Luis Laskurain, Anton Arrillaga, Ramon Arantzabal, Joxean Iza, Jon Andoni Urisabel, Usoa Mendikute, Oihana Garitano, Maddi Muxika, eta abar.

Erakusketa urtarrilaren 30era arte izango da ikusgai: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

# 'Bost mundu' eta musika dokumentalak gaztetxeko zinema emanaldietan

Domekan, Ken Loachen 'En un mundo libre' eskainiko dute

**E.M.** | BERGARA

Gaztetxeak bi ziklo antolatu ditu urtarrilerako eta otsailerako: hain zuzen, *Bost mundu* izenburupean, hiru emanaldi egingo dira urtarrilean eta domekan, hilaren 16an, izango da lehena. Ken Loach zuzendari ezagunak 2007an filmatutako *En un mundo* libre eskainiko dute. Mundu globalizatuan eguneroko kontuak dira lanaldi bikoitzak, soldata txikiak eta lan baldintza prekarioak. Angiek eta bere pisu-kideak etorkinendako aldi baterako lan enpresa bat irekitzea erabaki dute, eta egoera eskasetan bizi diren etorkinak ezagutzeko aukera izango dute. Venezian gidoi onenaren saria jaso zuen filmak. Kierston Wareing eta Juliet Ellis dira aktore protagonistak.



*En un mundo libre* filmeko irudi bat.

**Otsailean, musika**

Otsaileko emanaldietan, berriz, musika dokumentalei egingo diete tartea. Musika estilo ezberdinei buruzko filmak emango dituzte domekero.

EGITARAUA

**URTARRILA**

| | |
|---|---|
| **16** | 'En un mundo libre' |
| **23** | 'El odio' |
| **30** | 'Un lugar en el mundo' |

**OTSAILA**

| | |
|---|---|
| **6** | 'Salda badago' |
| **13** | 'American hardcore' |
| **20** | 'A headbanger's journey' |
| **27** | 'RIP: A remix manifiesto' |

Domekero, gaztetxean, 18:00etan.

## 'Munduan bira doan' eta 'La cinta blanca' domekan Zabalotegin

Asteburuan bi film ikusteko aukera izango da Zabalotegin: domekan, 17:00etan, *Munduan bira doan* euskarazko filma emango dute. Juanjo Elordik zuzendutako animaziozko filma da. Bestetik, domekan, 19:30ean, 2009ko Cannesko Jaialdian sari nagusia eraman zuen *La cinta blanca* (Michael Haneke) ikusteko aukera izango da.

## 'Let's get lost', Chet Bakerri buruzko lana zineklubean

Emanaldi interesgarria iragarri dute eguenerako: *Let's get lost* musika dokumentala eskainiko dute Zabalotegiko aretoan, ohiko ordutegian, 20:30ean. Bruce Weberrek 1988an filmatutako lana da, Chet Baker (1929-1988) tronpeta-jotzaile ezagunari buruzkoa. Bere garaian kritikaren saria irabazi zuen dokumentalak Veneziako jaialdian.

## Alboka ikastaroa Musika Eskolan, otsailaren 2an hasita

Musika Eskolak antolatuta, alboka ikastaroa izango da otsailaren 2tik apirilaren 6ra. Eskolak eguaztenetan izango dira, 20:00etatik 21:00etara. Izena emateko epea urtarrilaren 31ra arte dago zabalik. Prezioa 50 euro da; 40 euro, Musika Eskolako bazkideendako. Argibide gehiago, 943 76 57 80 telefono zenbakian.

## Auzoko egitasmoa, euskaratik urrun bizi direnendako

Auzoko programa Euskal Herriko sei tokitan jarri dute abian, Bergaran tartean. Etorkinendako zein euskaratik urrun bizi diren guztiendako dago zuzenduta egitasmoa. Aner Arregi arrasatearra dabil koordinatzaile lanetan. Astean bitan elkartzen dira, eguaztenetan eta zapatuetan. Argibideak Jardunen: 943 76 36 61.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

# Iaz 654 odol-ateratze egin zituzten, eta gaur egingo dute urteko lehena

▶ 2010ean irailekoa izan zen deialdi onena: 98 ateratze egin zituzten; txarrena, aldiz, apirilekoa (49)

▶ Donostiako medikuak eta erizainak Txantxiku ikastolan egongo dira gaur, 18:00etatik 20:00etara

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Iaz 654 odol-ateratze egin zituzten Oñatin, hamar deialditan. Odol-emaileen taldekoak pozik daude emaitzarekin. "2009koekin alderatuta igo egin da ateratze kopurua, eta hori oso ona da", diote.

Uztailean eta abuztuan izan ezik, hilero deialdi bat egin zuten. Beste behin, opor osteko deialdiak izan ziren arrakastatsuenak: martxoko deialdian –Aste Santu ostean– 77 ateratze egin zituzten eta irailean, 98.

Era berean, emaitza txarrena, beste urte batzuen antzera, apirilekoa izan zen: 49 lagunek eman zuten odola. Dena den, iaz 2009ko datuak gainditu zituzten. "Apirileko deialdietan ez da herritar askorik animatzen. Iaz 49 egon ziren, baina 2009an 39 bakarrik. Orduko hartan errekor negatibo guztiak hautsi genituen", diote odol-emaileen taldekoek.

Urteko gainerako deialdietan (ikus ondoko taula) 50-70 arteko ateratzeak egin dituzte Txantxiku ikastolako aretoan.

**2010EKO DATUAK**

| HILABETEA | ATERATZEA |
|---|---|
| **Urtarrila** | 62 |
| **Otsaila** | 55 |
| **Martxoa** | 77 |
| **Apirila** | 49 |
| **Maiatza** | 54 |
| **Ekaina** | 67 |
| **Iraila** | 98 |
| **Urria** | 71 |
| **Azaroa** | 58 |
| **Abendua** | 63 |
| **GUZTIRA** | **654** |

ITURRIA: OÑATIKO ODOL-EMAILEEN TALDEA

**Emaile berri gehiago**

Iazko datuek eman duten beste irakurketa odol-emaile berrien ingurukoa da. Urte osoan 27 lagunek eman zuten lehen aldiz odola, eta datu hori ere azpimarratu dute antolatzaileek. "Oporren ondorengo deialdietan herritar gehiago egon ziren, baita emaile berri gehiago ere. Deialdi bakoitzean, batez beste, 2,7 emaile berri izan genituen. Aldika-aldika egin izan ditugun kanpaina berriek eragina izaten dutela ikusi dugu, beste behin. Oñatiarrek ondo erantzun dute beti. Berriek jakin dezatela edozein unetan etor daitezkeela", esan digute.

**Emakumeak, urtean hirutan**

2010eko datuak kaleratzearekin batera, aurtengo egutegia ere ezagutarazi dute. Odol-emaile guztiei gutun bat bidaliko diete, urterako zehaztutako datak adieraziz. Lehen ateratzea gaur bertan egingo dute: ikastolako aretoan egongo dira, 18:00etatik 20:00etara.

**DATUA**

**27**

ODOL-EMAILE BERRI

**Horiek dira 2010ean lehen aldiz odola eman zutenak. Apirilean izan ezik, deialdi bakoitzean odole-emaile berriak izan zituzten.**

Urtean zehar egingo dituzten beste bederatzi ateratzeak izango dira: otsailaren 4an, martxoaren 11n, apirilaren 15ean, maiatzaren 6an, ekainaren 10ean, irailaren 16an, urriaren 7an, azaroaren 11n eta abenduaren 9an. Uztailean eta abuztuan ez dute deialdirik egingo.

Emakume diren odol-emaileek urtean hiru alditan eman dezakete odola eta gizonekoek, lau aldiz. Beste behin, dei berezia egin gura dute gazteen artean.

## Dida taldeak kontzertua egingo du Arrano tabernan

Arrano tabernak prestatu duen kultura egitarauaren barruan Dida taldearen kontzertua antolatu dute gaurko. 22:00etan hasiko da tabernan bertan. Aurretik, 20:00etan trikipoteoa egingo dute.

Datorren egubakoitzean, hilaren 21ean, hitzaldia egingo dute. Ahaztuak 1936-1977 erakundeko kideek *Memoria egin, justizia egin* delako solasaldia egingo dute, 18:00etan. Urtarrileko kultura egitaraua bukatzeko afaria egingo dute, 21:00etan.

## Aratusteko entseguak hasi ditu Oñatz dantza taldeak

Urtero moduan, Oñatz dantza taldekoek Aratusteak kalera aterako ditu. Hain zuzen ere, martxoren 5ean irtengo dira herri Aratustea egitera. Hori horrela, dei berezia egin diete herritar guztiei ekitaldian parte har dezaten. Entseguak Errekaldeko lokalean egingo dituzte: eguaztenetan 20:00etan eta zapatuetan 12:00etan. Entseguak hilaren 12an hasi zituzten, baina biharko deialdira joaten diren guztiak onartuko dituztela esan digute antolatzaileek.

# Bost edukiontzi berdeak ipinita, Puntu Berde Mugikorra kendu egingo dute

Merkatu plazan eta Lizaur, Portu, Olakua eta Apaolaza kaleetan jarri dituzte

M.B. | OÑATI

Etxeko olioa birziklatzeko edukiontzi berriak jarri dituzte herrian. Debagoieneko Mankomunitateak 2.000 biztanleko edukiontzi bat jartzea erabaki du. Hori horrela, Oñatin bost ipini dituzte: hain zuzen ere, merkatu plazan (kiroldegiko biribilgunean), Lizaur eta Aita Madina kaleen arteko bidegurutzean, Portu eta Apaolaza kaleetan eta Olakuan (Super BMren parean). Bestalde, orain arte etxeko olioa batzen duen Puntu Berde Mugikorra kendu egingo dute. Furgoneta hamabostean behin egoten zen merkatu plazan olioa batzen. Aurrerantzean, edukiontzi berdeak bakarrik erabili ahal izango dira.



Erabiltzaile bat potea edukiontzian sartzen merkatu plazan. | MIREIA BIKUÑA

**Sistema erraza eta garbia**

Olioa batzeko sistema erraza eta garbia da. Olioa batzeko potea betetzen denean, edukiontzian sartu, eta trukean pote garbia jaso ahalko dugu.

Herritarren artean edukiontzia erabiltzeko ohitura bultzatzeko, etxe bakoitzarendako pote bat eta erabilpen araudia utzi du Mankomunitateak. Litro bateko edukierako poteak dira.

Erabilera triptikoan zehazten da, erabiltzaile bakoitzak jarraitu beharreko pausoak, eta baita ze motatako olioa bota dezakeen potera: sukaldean erabiltzen dugun landare olioa eta kontserban dagoen olioa bakarrik. Autoendako olioak eta olio industrialak ezingo dira potean sartu, ezta olio beroa ere.

Eko3R enpresak batzen duen olioa biodiesel erregaia egiteko erabiliko dute. Litro bat oliorekin litro bat diesel ateratzen dute. Horrek, gainera, petroliotik sortutako erregaiek baino eragin txikiagoa du ingurunean.

**Fagor Taldearen barruan**

Eko3R Fagor Taldearen barruan sortutako enpresa da. MUren eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin landu eta garatu zuten olioa birziklatzeko sistema.

**NIRE USTEZ**



AITOR UGALDE

## Musuak Urtezaharretan

Atzean geratu dira Gabonetako ospakizunak, atzean Urtezahar eguneetik Urteberrirako tartean emandako musuak eta besarkadak. Gertutasun eta samurtasun horretatik zerbait gordetzea ona izango litzaiguke ohikoa esaten diogun bizimoduaren zurrunbiloan sartu garenean. Gertutasun eta samurtasun dosi txikia egun bakoitzerako, estreinatu berri dugun egutegi berrian orri ugari pasatu behar direlako zurrunbiloa baretu dezaketen gorriz markatutako egunak topatu arte. Egunak egun, ia-ia urtarrilaren erdia egin dugu eta neguaren bihotzean sartu gara. Eta neguari elurra dagokio. Negu honetarako elurrarekin batera berri ona iragarri zitzaigun. Neguan sartu baino lehen heldu zen elurrak ez zuen ekarri berri hori.

Orain, elurra egiteko garaian, hego haizeak ekarri du. Itxaronaldia luzatzen hasia zitzaigun, baina heldu da. Bere argi-ilun guztiekin, berri pozgarria da, itxaropenari atea irekitzen diona eta hori aldarrikatu behar da irakurketa ezkorren gainetik. Lerro artean dagoenak esan dezakeenaren gainetik, berriaren funtsa da garrantzitsuena: su-eten orokorra, iraunkorra eta egiaztagarria; bide politikoen aldeko hautua. Urrats bat, aukera bat gure desberdintasunak bake giroan bizitzeko, hurrengo Urtezahar egunetako samurtasunean orain ematen ez diegunei ere, musuak eta besarkadak emateko.

**"Berri pozgarria da, itxaropenari atea irekitzen diona"**

Gezalaga Margoak

Pintura eta osagarrien salmenta

Era guztietako margolanak.

Kale barria 31
Tel. eta faxa: 943 76 64 07
Poltsikokoa: 616 277 999
OÑATI

## BETERANUAK

### EMAITZAK "A" TALDEA

| | |
|---|---|
| Xaguxar-Indar 85 | 3-1 |
| The Gibel Boys-Doolygans | 4-0 |
| Gaur Bai-Ankarteko | 2-1 |
| Bundeswher-Joxely | 3-3 |
| Txuskos-Nandrolona | 1-0 |

### SAILKAPENA "A" TALDEA

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | The Gibel Boys | 13 | 5 |
| 2 | Xaguxar | 10 | 5 |
| 3 | Indar 85 | 9 | 5 |
| 4 | Doolygans | 9 | 5 |
| 5 | Joxely | 8 | 5 |
| 6 | Gaur Bai | 7 | 5 |
| 7 | Bundeswehr | 5 | 5 |
| 8 | Txuskos | 4 | 5 |
| 9 | Nandrolona | 4 | 5 |
| 10 | Ankarteko | -3 | 5 |

### SAILKAPENA "B" TALDEA

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Txarrixak | 9 | 4 |
| 2 | Albok | 9 | 3 |
| 3 | Kalañatasaray | 9 | 4 |
| 4 | Zorrobero | 7 | 3 |
| 5 | Sasquatch | 6 | 4 |
| 6 | Lozorromo | 4 | 3 |
| 7 | Paketinaikos | 3 | 4 |
| 8 | Etxaixat | 0 | 3 |
| 9 | Jai Ari | 0 | 4 |

### PARTIDUAK "B" TALDEA

5. JARDUNALDIA

**Zapatua 13:00** Sasquatch-Albok
**Zapatua 14:30** Kalañata.-Lozorromo
**Zapatua 18:30** Paketinaikos-Etxaixat
**Zapatua 20:00** Jai Ari-Zorrobero
**Atsedena:** Txarrixak

**Iban Lizarralde** | Zinema zuzendaria

# "Horrenbeste sari jasotzea ezusteko handia izan da"

- Iban Lizarralde oñatiarraren 'Gartzela' film laburra emango dute gaur
- Iñake Irastortza, Arantxa Gurmendi eta Iker Galartza dira protagonistak

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Uztailean egin zuten *Gartzela* film laburraren aurre-estreinaldia Oñatin. Ordutik hona hainbat jaialditan erakutsi dute filma, eta dagoeneko hiru sari jaso ditu: Gasteizen, Lekeition eta Beasainen. Laudorioak ezustean harrapatu du Iban Lizarralde zuzendari oñatiarra. Gaur, 19:30ean, film laburra eta *making of-a* erakusteko emanaldia egingo dute kultura etxean.


Iban Lizarralde. | MIREIA BIKUÑA

**Film labur ona egin duzu... Hori diote, behintzat, jaso dituzun sariek.**

Egia esan, ez genituen espero. Gustura geratu gara lanarekin, baina sariena... Ezusteko handia izan da, eta sentimendu kontrajarriak sorrarazten dizkigu: alde batetik, pozik gaude, egindako lanaren errekonozimendua delako; baina, beste alde batetik, urduri jartzen gaitu horrenbeste laudorio jasotzeak.

**Lagunek eta ingurukoek gaur ikusiko dute film laburra lehen aldiz. Eta, euren iritziak entzuteko urduri zaude?**

Uztailean aurre-estreinaldia egin genuen Oñatin, baina emanaldi itxia izan zen. Gaurkoa irekia izango da. Lagunak ere gogo biziz daude film laburra ikusteko.

**Lehen lana izateko, punta-puntako aktoreak izan dituzu zure aginduetara.**

Bai; egia esan, asko inplikatu dira proiektuan. Eurengana jo nuen zuzenean, gidoia bidali eta baiezkoa eman zidaten. Erakutsi didate maila handiko aktoreak direla. Sekuentzia bat sei aldiz grabatu behar bagenuen, seietan tonu bera erabiltzen zuten ahoskatzeko. Iñake Irastortzak indar handia ematen dio pertsonaiari. Arantxa Gurmendiren kasuan, 80 urteko emakumearen papera zuen, eta bi orduko makillaje saioa izan zuen.

**"Aktoreak asko inplikatu dira; maila handikoak direla erakutsi didate"**

**17 minutuko film laburra da. Drama psikologikoa.**

Bi emakumeren (amaginarreba eta erraina) arteko elkarbizitza gogorraren istorioa da. Euren bizitzan preso bizi diren pertsonen errealitatea islatu nahi izan dut. Film labur intentsua da.



*Gartzela* film laburra. | HODEI USABIAGA

**Grabazioa bi aste bukaeratan egin zenuten, iaz, martxoan.**

Kanpoko planoak Segura eta Zerain artean grabatu genituen, eta barrukoak Lenbur fundazioaren museoan. Bi aste bukaeratan egin genuen guztia. Arazo batzuk izan genituen, baina laguntzaile finak izan nituen: Eneko Aseginolatza muntaketan, Pello Gutierrez argazkilaritzan eta Joseba Beristain musikarekin.

**Zer behar du film labur batek ona izateko?**

Gutxieneko maila izan dezan, film laburrean parte hartzen duten elementu guztiek onak izan behar dute: aktoreen lana, argazkiak, musika, errealizazioa... Film luze baten akatsak errazago konpon daitezke, baina film labur baten ezinezkoa da.



# Kirol tasa hilerokoa izango da urtarriletik, eta ez urte osokoa

## Orain arteko abonatuei zuzenean egin diete aldaketa; berriek Zainduzera jo behar dute

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Urte berriarekin batera aldaketak etorri dira Kirol Zerbitzuetan; orain arteko urteko kirol tasa kendu eta hileroko tasa jarri dute abian. Urrian udalbatzak onartutako ordenantza fiskaletan hala zehaztu zuten eta dagoeneko indarrean dago.

Aldaketaren arrazoia da "erabiltzaileari erosotasuna eta samurtasuna ematea". Hala zehaztu du Asier Muxikak, Kirol teknikariak: "Administrazio lana asko gehituko zaigu, baina hileko kuotaren aldeko joera dago leku askotan eta horren alde egin dugu. Erabiltzailearendako erosoagoa da hilero tasa txiki bat ordaintzea, bat-batean kantitate handi bat baino; eta abantaila da, gura beste hilabetetarako alta eman dezakeelako". Kiroldegi berria zabaltzerakoan ere hortik joko dutela zehaztu du Muxikak.



Zainduz gimnasioan dagoen makinen gela ariketak egiteko. | M.A.

**Matrikula, alta ematerakoan**

Hilabetean ordaindu beharreko kuotarekin batera matrikula ezarri dute. "Alta ematerakoan ordaindu beharko dute matrikula. Alta eta bajetan gorabehera handiak ez izateko jarri dugu kopuru hori. Hala ere, 2010eko abenduan abonatuak zirenei ez diegu kopuru hori kobratu", argitu du Kirol teknikariak. Gainera, aldaketak egin dituzte kobratzeko sasoian ere; lehen, hilabete bukaeran pasatzen zuten banketxetik, eta orain, hilabete hasieran kobratuko dituzte bai kirol tasa, bai kirol jarduerak, administrazio lanak errazteko.

Familia abonu eta norbanakoaren abonuarekin batera, abonu murriztuak lehen bezala jarraituko du; hau da, %50eko murrizketa izango dute horiek. Hiru taldek izango dute abonu murriztua: langabeek –Inemeko ziurtagiriarekin–; ikasleek; eta gutxitu fisiko eta psikikoek. Bestalde, familia ugariek Gizarte Zerbitzuen bitartez lortu behar dute murrizketa. Asmoa da urte bukaeran itzultzea urtean ordaindutakoaren erdia.

Muxikaren esanetan, kirol abonuarekin ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzea da asmoa. Hori horrela, orain arte saunan sartzea aparte kobratzen bazuten ere, orain debalde izango da. Kirol jarduerak, ostera, KPI igo dira.

### KIROL ABONUA

| | |
|---|---|
| **FAMILIA ABONUA** | |
| 18 URTE ARTEKO SEME-ALABEKIN | |
| **Ohikoa** | 9,50 euro hilean |
| **Erroldatu gabeak** | 10,45 euro hilean |
| **Matrikula** | 12 euro |
| **NORBANAKOAREN ABONUA** | |
| 16 URTETIK GORAKOAK | |
| **Ohikoa** | 7,50 euro hilean |
| **Erroldatu gabeak** | 8,25 euro hilean |
| **Matrikula** | 10 euro |
| **ABONU MURRIZTUA** | |
| LANGABEAK, IKASLEAK ETA GUTXITUAK | |
| **Ohikoa** | 4,80 euro hilean |
| **Erroldatu gabeak** | 5,28 euro hilean |
| **Matrikula** | 6 euro |

# Bazkideak egiteko kanpaina jarri du abian Loramendik, oraingo bazkideak sarituta

## Elkarteak ateratako produktuen katalogoa osatu dute, herritarren eskura jartzeko

**M.A.** | ARETXABALETA

Bazkide gehiago gura ditu Loramendi elkarteak eta kanpaina jarri du abian. Orain bazkide den batek beste hiru bazkide eginez gero –ikasleak ez direnak– 25 euro izango ditu Euskal Herriko Plazako –*www.euskalherrikoplaza.com*– produktuetan gastatzeko. Horretarako, Loramendira jo behar da eta datuak eman: bazkide denarenak eta bazkide berrienak. Azken eguna otsailaren 4a da.

Loramendi elkarteko kideen esanetan, bazkide berriak euskararen erabilera sustatzeko proiektuak pertsonalki eta ekonomikoki babesteko aukera izango du: "Izan ere, Aretxabaletan euskararen erabilera sustatzea da Loramendi elkartearen helburu nagusi bakarra sortu zenetik". Era berean, elkarteko bazkide aktiboa ere izango da bazkide berria eta hainbat abantaila izango ditu: "Loramendi elkartearen berri etxean jasoko du eta ekintzetan eta produktuetan deskontuak izango ditu". Egun 450 bazkidetik gora ditu; ikasleendako debalde da bazkidetza eta gainerakoendako 25 euro.

**Produktuen katalogoa**

Bestalde, Loramendik 25 urteko ibilbidean ateratako produktuen katalogoa osatu dute, herritarren eskura jartzeko. Zortzi produktu daude, berrienen artean Aretxabaletako ibilbide historikoaren liburuxka. Produktuak bertatik bertara ikusi eta eskuratzeko Loramendira jo behar da.

# Nerianek erakusleihorik dotoreena

Nerian loradendak irabazi du Gabonetako erakusleiho lehiaketa. Epaimahaiak erabaki du oso dotore jarrita zeukala; garaikurrarekin batera 250 euro jaso ditu. Bigarren geratu da Martin erloju-denda (150 euro) eta hirugarren, Anitua farmazia (100 euro).

Kultura Sailak deitutako 2010eko erakusleiho lehiaketan 13 merkatarik hartu dute parte: Belar Meta, Anitua, Galtzagorri, Nerian, Zubia, Ibarra, Martin, Lie, Haurrak, Iriarte, Txiki zoo, Kimua eta Zare.



MIRARI ALTUBE



Gurutze Muxika margolaria, Arkupen erakusgai dituen lanen aurrean, martitzenean. | M.A.

# Kolore beroko paisaiak ditu ikusgai Gurutze Muxikak Arkupen, hil osoan

Dagoeneko 20 bat urte daramatza margotzen Beasaingo Garin auzoan jaiotakoak eta azken urtean margotutako 18 lan jarri ditu erakusketa aretoan

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Areantza auzoan bizi den Gurutze Muxikak 18 margolan jarri ditu ikusteko Arkupeko erakusketa aretoan *Koloreak* izenarekin. Hilabete osoan egongo dira lanok, eta erosteko aukera ere badute herritarrek.

Beasaingo Garin auzoan jaiotako margolariak dagoeneko 20 bat urte daramatza margotzen. Oraingoan, azken urtean egindako lanak jarri ditu ikusgai, paisaiak protagonista dituzten lanak, hain zuzen: basoak, Kurtzebarri inguruak eta auzo batzuk, tartean Goroeta eta Beasaingo auzo bat. Horiekin batera, loreekin osatutako natura hilen bat edo beste ere jarri du. Udazkeneko koloreak ditu gustuko, lanok ikusi orduko igartzen da hori: "Kolore beroak daude margolan guztietan; elurra margotutako lanetan ere beroenak erabili ditut; grisa, esaterako", azaldu du.

**Bigarren erakusketa gurean**

Arrasate Margo Taldeko kidea da eta hainbat irakasle izan baditu ere lagun, azken sasoian bakarrik dabil lanean: "Arrasateko taldean Luis Laskurain daukagu, eta, behar izanez gero, harengana jotzen dut". Inpresionismo korrontean kokatzen da eta argi dauka bilakaera izan dutela bere lanek azken urteotan: "Neuk gura bezala margotzen dut orain eta gero eta gusturago egiten dut lan", dio margolariak. Noraino iritsiko den bilakaera horretan ez daki, "sekula ez dagoelako jakiterik", baina ibilbide horretan jarraituko duela bai. Ordu asko eskaintzen dizkio margotzeari: "Egunero saiatzen naiz margotzen; eta beti ezin badut ere, pintzelak hartzen ditudanean behar duen denbora eskaintzen diot".

Eskainitako ordu guzti horien emaitza dira Arkupen dauden margolanak. Bigarren aldiz jarri du halako erakusketa Aretxabaletan: "Urte batzuk pasatu dira ordutik; udaletxeko ganbaran egon zen orduan eta oso herritar gutxik ikusi zuen, kanpotarrak gehiago izan ziren herritarrak baino". Oraingoan, ostera, dagoeneko jende asko pasatu da erakusketa aretotik: "Sortzaileak lanak erakustea du gustuko eta areto hau benetan aproposa da", eta oso pozik dago herritarrek egindako harrerarekin.

### Ipuin kontaketa Arriaranekin

Amaia Arriaran bergararrak ipuin kontaketa saioa eskainiko die 4 urtetik gorako neska-mutikoei bihar, Udal Liburutegian (11:30), debalde. *Do, re, mi golkua bete ipuin* izeneko ekitaldiarekin hainbat ipuinekin gozatzeko aukera izango dute umeek.

Kultura Sailak hilabete guztietan antolatzen ditu liburutegian ipuin kontaketak txikienendako, ipuin eta liburuekin gozatzen ikasten hasteko.

## Laguntza emandakoak eskertu gura ditu Aretxabaleta Abesbatzak

M.A. | ARETXABALETA

Aretxabaleta Abesbatzak 30. urteurrena ospatu zuen iaz, eta DVDa kaleratu 30 urteko ibilbidea jasotzeko. Abesbatzako kideek, orain, eskerrak eman gura dizkiete DVDaren kontuarekin lagun egindako guztiei.

Batetik, DVD hori egiteko dirulaguntza bideratutakoei eman dizkiete eskerrak; hau da, Foru Aldundiari eta Aretxabaletako Udalari. Bestetik, DVDa erositako guztiei. Eta ez dituzte ahaztu gura saltzen lagundu dieten herriko komertzioak: Errasti kioskoa; Ibarra tabako-denda; Iber loteria -denda; Belar Meta jantzi-denda; eta Arkupe kultura etxea. "Eskerrik asko, era batera edo bestera lagundu diguzuen guztioi", bukatu dute abesbatzakoek.

Norbaitek DVDa erosteko interesa badu abesbatzako kideengana jo dezala edo telefono zenbaki honetara deitu: 662 53 75 99.

Bestalde, Nemesio Otañoren omenezko diskoa grabatu zuen iaz abesbatzak, eta horiek ere badituzte gordeta, norbaitek gura izanez gero.

**Bihar, Bilboko San Antonen**

Bihar, ostera, Bilbora joango da Aretxabaleta Abesbatza. Bertako San Anton abesbatza martxoan izan zen gure artean, hain zuzen San Jose egunean abestu zuen parrokian, eta orain bisita itzuliko diote aretxabaletarrek. Alde zaharrean dagoen San Anton eliza ezagunean egingo dute emanaldia bihar (19:30), Angel Barandiaranek gidatuta.

## 'Dantza familian: egizu dantza zure haurrarekin' ekimena jarriko du abian bihar Jaikik

M.A. | ARETXABALETA

Dantza familia giroan ere egin daitekeela erakutsiko dute Jaiki elkarteko kideek datozen asteotan. *Dantza familian: egizu dantza zure haurrarekin* ekimena jarriko dute abian bihar Arkupen (11:30-12:45), Magdalena Milano irakaslea lagun dutela. 3 eta 6 urte arteko umeak dituzten familiei zuzenduta dago.

**Harremanak lantzea**

Ekimen horrekin hainbat kontu lortu gura dituztela jakinarazi dute Jaiki elkarteko kideek: artearen eta sormenaren bitartez familia bateratzea; talde partaidetza bultzatzea; jolasaren bitartez elkarrenganako harremanak lantzea; eta "gure haurrekin ondo pasatzea!" Ekimen horren lehenengo froga edo erakustaldia azaroan egin zuten, eta, orduan izandako arrakasta ikusita, orain ikastaro luzeagoa antolatu gura izan dute, Udalaren laguntzarekin.

Hala, bada, zapatu goizetan elkartuko dira Arkupe kultura etxean Magdalena Milano irakasle ezagunarekin –beste hainbat ikastaro eta jarduera egin dituzte Jaikikoek Milanorekin–. Partaide kopurua mugatua izango dela iragarri dute, hortaz, izena lehenbailehen eman behar da. Argibide gehiago gura duenak antolatzaileekin egon dadila: *jaikielkartea@yahoo.es* helbidera idatzita edo 943 53 43 96 telefonora deituta. Hiru hilabetea 30 euro ordaindu beharko du guraso-haur bikote bakoitzak, eta langabeek, 20 euro.

### Harry Potter magoaren abenturak helduendako eta marrazki bizidunak umeendako, aste bukaeran

*Harry Potter y las reliquias de la muerte* filma emango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (14:00), helduendako, Arkupeko Zaraia aretoan. Ume eta gaztetxoek, ostera, *Cazadores de dragones* marrazki bizidunak izango dituzte bihar eta etzi (17:00).

### KZgunea goizetan dago zabalik urtarrilean, eta Izenpe txartela erabiltzen erakutsiko dute

Goizetan dago zabalik Markole auzoan dagoen KZgunea urtarrilean (09:00-13:00). Izenpe txartela eskura daiteke bertan eta zelan erabili erakusteko ikastaro bereziak egin. Horrez gain, IT txartelaren azterketak egingo dituzte, baita hainbat ikastaro ere. Ikastaro horietan izena emateko, deitu bertara: 943 25 23 51.



MURUALDE ELKARTEA

## Bengoa eta Zabalo txapeldunak

Abenduan jokatu zuten Murualde elkarteko mus txapelketan Angel Bengoa eta Luis Mari Zabalo izan ziren garaile. 10 bikotek jardun zuten norgehiagoka bizian, eta finalean Iñaki Errasti eta Timoteo Bengoa hartu zituzten mendean. Txapelarekin batera iberiko sorta ederra jaso zuten txapeldunek. Laster jokatuko den herriko elkarteen arteko txapelketan Murualde ordezkatuko dute bikote bi horiek.

# Udal hauteskundeetan zinegotzi bat lortuko duela uste du Hamaikabatek

## Udalerrirako dituen helburu eta egitasmoak aurkeztu ditu asteon

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Joan den eguaztenean egindako agerraldian, Hamaikabateko Debagoieneko koordinatzaile Juan Carlos Bengoak nabarmendu zuen maiatzeko udal hauteskundeetan zinegotzi bat lortzea espero duela. Horren harira, gogorarazi zuen bakarrik aurkeztuko direla, beste hainbat alderdirekin koalizioak edo elkarlana bultzatzeko "ateak zabalik" uzten badituzte ere. Horrelakoa bereziki EAJrekin egiteko asmoa dutela ere gaineratu zuen.

Eskoriatzako alkate ohiak gaur egungo zinegotzi Karmelo Lezeta ondoan izan zuen Ibarraundi museoan egindako prentsaurrekoan. Bertan, alderdiak herrirako dituen helburu eta egitasmoak aurkeztu zituzten. Hauteskunde programa osatze aldera herritarren parte-hartzea bultzatuko dutela adierazi zuten. Horren harira, helburu hirukoitza daukatela aipatu zuten: batetik, maiatzeko hauteskundeetarako osatzen ari diren lantaldean ekarpenak egin, elkarlanean aritu eta parte hartzeko ateak zabaltzea; bestetik, udalerriaren beharrak eta erronkak zehazteko herritarren parte-hartzea ahalbideratzea; eta hirugarrenik, Udalean ordezkaririk atera ezean, hurrengo agintaldian udal jarduerari jarraipena egiteko oinarriak ezartzea.



Karmelo Lezeta eta Juan Carlos Bengoa eguazteneko agerraldian. | TXOMIN MADINA

### Eragileekin batzartzea

Esandako helburuak betetze aldera hainbat ekimen egingo dituztela iragarri zuten: datorren agintaldiko balantzea egitea; udalerriko gizarte, kultura eta kirol elkarteekin batzarrak bultzatzea; krisi ekonomikoaren eraginez, tokiko ekonomian inplikatuta dauden guztiekin elkartzea; elizarekin bilerak egitea; lanean diharduten alderdi politikoekin batzartzea, udalbatzarrean ordezkaritza izan ala ez; eta, gai ezberdinak jorratzeko, topaketa irekiak antolatzea.

Horri guztiorri lotuta, ekarpenak egin nahi dituztenek bloga (*http://debagoiendarrok.wordpress.com*) daukatela aipatu zuten. Lantaldeak helbide elektronikoa ere badu: *debagoiena@hamaikabat.com*.

# Sei milioi pasatxoko aurrekontua izango du aurten Udalak

**M.B.** | ESKORIATZA

Dagoeneko onartu egin dute 2011ko udal aurrekontua. Abenduaren 27an egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak, Udal Gobernua osatzen duten zinegotzien aldeko botoekin. Hain justu ere, aurten 6.191.666 euroko aurrekontua izango du Udalak, joan den urtean baino %22 handiagoa.

Ohikoa den moduan, aurrekontuaren zati handiena gastu arruntak estaltzeko erabiliko da; hain zuzen, ia 4,5 milioi euro (%72). Aldiz, inbertsioetarako 1,3 milioi erabiliko dituzte. 2011ko inbertsio nagusiak izango dira: erabilera askotariko antzokia bukatzeko lanak, Atxorrotzeko gaztelua berreskuratzea, San Pedro auzoa oinezkoendako egitea eta elizateetako lanak.

### Kultura eta Hirigintza

Arloka erreparatuta, Kultura, Euskara, Gazteria, Jaiak, Hezkuntza, Kirola, Museoa eta Telesko batzen dituenera bideratuko da partida handiena: 2.391.923 euro. Hirigintza, Obra -Zerbitzuak, Ingurumena eta Elizateak arlora, ostera, 2.286.467 euro joango dira; Ogasuna eta Enplegura, 593.701; Gizarte Ongizatea, Droga-mendekotasuna, Emakumea eta Osasunera, 494.228; eta Administrazio Orokorrera, 425.349 euro.

# Patxi Garateren lanak ikusgai hilaren 27ra arte Gasteizen

**M.B.** | ESKORIATZA

Gasteizko alde zaharreko Hedegile kalean dagoen Ikusi Arte galerian ikusgai daude egunotan Patxi Garate *Magu* eskoriatzarraren lanak. Urtarrilaren 7a ezkero dago erakusketa zabalik, eta hilaren 27ra arte bisitatu ahal da: martitzenetik egubakoitzera, 18:30etik 21:00etara; eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara.

### 30 lan erakusgai

Eskoriatzarrak azken hamarkadan egin dituen 30 lan inguru ikus daitezke Ikusi Arte galerian. Artistak berak jakinarazi digu paperean egindako lanak direla horiek, eta "grafika eta plastika arteko nahasketak" direla. Horren harira, azaldu du kalkografiak direla eta gainetik ureko tinta koloretsuarekin margotuta daudela. Ikusteko moduko erakusketa.

# Hemen enpresarendako, udal eraikinen garbiketa

## Hamar ikastetxe eta udal bulegotan garbiketa lanak egiteagatik 138.798 euro jasoko ditu urteko

**M.B.** | ESKORIATZA

Udalaren titularitateko hainbat ikastetxe eta udal bulego garbitzeko zerbitzua esleitu zen abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran. Lehiaketa eginda eta aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, udalbatzak aho batez onartu zuen Hemen Garbiketak enpresari ematea esandako zerbitzua. Hain justu ere, urteko 138.797 eurotan (BEZa barne) esleitu dio.

Hemen enpresa Luis Ezeiza herri eskola, haurreskola, Kulunka haurtzaindegia, museoa, ludoteka, EPA, elkarteen txokoa, kiroldegia, udal pilotalekua eta tren geltoki zaharrean dagoen udal biltegiko garbiketa lanez arduratuko da. Eraikin horien guztien artean, kiroldegia garbitzera bideratuko da zati handi bat: hain justu, 36.020 euro. Luis Ezeizaren garbiketa lanek, bestalde, 32.507 euro balio dute.

### Aukerako zerbitzuak

Osoko bilkura berean, udalbatzak onartu egin zuen aukerako hainbat zerbitzuri buruz kontratistak egindako eskaintza. Horren harira, Udalak zerbitzu horiek kontratatu gura izanez gero, hark aurkeztutako prezioak erabiltzea adostu zuten zinegotziek. Hain zuzen, erabileraren araberako garbiketei dagokienez, 21,48 euro ordainduko ditu orduko. Udaletxea garbitzeagatik, esaterako, 28.849 euro ordainduko lituzke; kiroldegiko beheko solairua eta harmailengatik, 28.551; eta bake epaitegia txukun edukitzeagatik, ostera, 4.777 euro.

Bestalde, material jakinen garbiketa ere zehaztu zuten. Esaterako, alfonbren garbiketa metro karratuko 10,2 eurotan irtengo litzateke eta koltxonetak, 3,1.

**GASTUAK ARLOKA**

| ERAIKINA | DIRUA |
|---|---|
| Luis Ezeiza | 32.507 € |
| Haurreskola | 20.811 € |
| Kulunka | 14.851 € |
| Ibarraundi | 13.646 € |
| Ludoteka | 3.517 € |
| EPA | 2.372 € |
| Elkarteen txokoa | 977 € |
| Kiroldegia | 36.020 € |
| Pilotalekua | 12.767 € |
| Udal biltegia | 1.330 € |

ITURRIA: UDALA

### Areto dantzen ikastaroan izena eman daiteke gaur arte

Areto dantzetan lehen urratsak egiten hasi edo teknika hobetu gura dutenek gaur arte dute horren gainean antolatu den ikastaroan izena emateko aukera. Eskolak hilaren 20an hasiko dira eta zortzi aste iraungo dute; eguenetan izango dira, 19:00etatik 20:00etara, kiroldegian. Kultura etxean eman behar da izena; kiroldegiko abonatuek 39,5 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 44,5.

### Sahararen aldeko gunea egingo dute bihar plazan

Eingeinkek antolatuta, bihar, zapatua, Mendebaldeko Sahararen aldeko jaialditxoa egingo dute Eskoriatzan. Plazako kontzejupean gune bat jarriko dute, eta 18:00etan, *Un grito al Sahara* izeneko filma ikusi ahalko da han. Horren ondoren, gaur egungo egoeraren gaineko hitzaldia egingo dute. Hori amaitzean, burruntzi-pintxoak eta Saharako tea dastatzeko aukera egongo da plazan bertan.

### Bainuetxeetara joateko programa gertu dago

Oraindik izena eman daiteke Imsersok nagusiendako antolatutako termalismo programan. Otsailetik abuztura arteko txandetarako, lekua ematerakoan lehentasuna izan nahi dutenek urtarrilaren 17ra arte aurkez dezakete eskaera.

Interesatuek udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan tramitatu behar dute eskaera; Imsersorekin zuzenean egiteko aukera ere badagoela jakinarazi dute Udaletik.

## OHARRAK

**ATXORROTZEKO ERAKUSKETA, BIHAR ARTE**

Joan den urtean Atxorrotzen egindako indusketen gaineko erakusketa ikusi barik dutenek jakin dezatela bihar arte egongo dela hori zabalik, Ibarraundi museoan. Interesatuek honako ordutegian bisitatu ahalko dute: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean.

**LUIS EZEIZAKO IRUDIAK**

Luis Ezeiza herri eskolaren 40. urteurrena dela-eta, argazkiak batzen dabiltza. Kultura etxera, museora edo eskolara eramatea eskatu dute. Kopia egin ondoren argazkiak jabeei bueltatuko zaizkiela jakinarazi dute.

# Alonsori eta Cabrerari txapela kentzeko lehia gaur hasiko dute

## Mus txapelketako finala jokatuko dute urtarrilaren 30ean, Arinen

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Gaur hasiko da Antzuolako mus txapelketa. Antolatzaileek adierazi dute Euskal Herriko mus txapelketa datozen hilabeteetan jokatu behar dela aprobetxatuko dutela herriko txapelketa egin eta herrialdeko kanporaketara pasatuko diren bikoteak aukeratzeko.

**Izena tabernan eman behar da**

Gaurko kanporaketa Mox tabernan izango da, 22:15ean. Izena tabernan bertan eman beharko da, kanporaketa hasi baino lehenago. Bikoteka 20 euro ordaindu behar dira eta bikote bakoitzak kanporaketa bakarrean parte hartu ahalko du. Kanporaketa jokatzeko, gutxienez lau bikotek eman beharko dute izena.

**Finala, urtarrilaren 30ean**

Finala jokatuko da urtarrilaren 30ean, Arin jatetxean. Kanporaketa bakoitzetik izena emandako bikote kopuruaren arabera sailkatuko dira finalerako –4-8 bikote, bat pasako da; 9-12 bikote, bi pasako dira; eta, 13-16 bikote, hiru pasako dira.

Finalaren ondoren sari banaketa egingo dute eta herrialdeko kanporaketara zeintzuk pasako diren jakitera emango dute. Parte hartzaile guztiek izango dute oroigarria.

**Joko sistema**

Bikoteek eurek adostuko dute ze joko sistema erabili: lau edo zortzi erregetara.

Iazko bikote txapelduna Felix Alonso eta Claudio Cabrera izan ziren. Sanchez eta Fernandez de Arangiz geratu ziren bigarren postuan; Lezeta aita-semeak, hirugarren; eta Asensio eta Zubikarai, berriz, laugarren. Hain zuzen, lau bikote horiek sailkatu ziren Euskal Herriko mus txapelketa jokatzeko.

### KANPORAKETAK

| LEKUA | EGUNA | ORDUA |
|---|---|---|
| **Mox taberna** | Urtarrilak 14, egubakoitza | 22:15 |
| **Arin jatetxea** | Urtarrilak 22, zapatua | 16:00 |
| **Eperra elkartea** | Urtarrilak 23, domeka | 16:30 |
| **Gailur taberna** | Urtarrilak 28, egubakoitza | 22:15 |
| **Arin jatetxea** | Urtarrilak 30, domeka | 16:30 |

### Iñaki Toledo bigarrena izan da Espainiako oilagor txapelketan

Galiziako Coristanco herrian jokatutako txapelketan faboritoen artean zegoen Toledo; izan ere, aurreko urtean, Errioxan, Lumbreras herrian txapela jantzi zuen antzuolarrak. Oraingoan, baina, ezin izan du hura errepikatu. Toledok bi oilagor bota zituen *Lua* setter ingeles arrazako txakurrarekin. Guztira, 38 ehiztarik parte hartu zuten Coruñan jokatutako Espainiako txapelketan.



Iñaki Toledo. | GOIENA

## OHARRAK

**PLASTIKO BILKETA**

Baserri inguruetan sortutako plastikoa ateratzeko egutegia egin dute dagoeneko; urtarrilean izango da, hilaren 25ean. Plastikoak arratsaldez atera behar dira. Jasoko dituzte: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen den plastiko beltza; berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; eta berotegietako plastiko zuria.

**KZGUNEKO ORDUTEGIA**

Urtarrilean, martitzen arratsaldeetan egongo da tutorea KZgunean, 16:00etatik 20:00etara. Liburutegiko ordutegian erabil daiteke KZgunea.

**KONTZERTUA**

Datorren egubakoitzean, hilaren 21ean, Arrasateko Big Band taldeak kontzertua eskainiko du Torresoroan. 22:00etan izango da hitzordua.

Arrasateko Musikaleko Big Band taldeak jazz estiloa lantzen du 2000. urtea ezkero. Zigor Martinez da zuzendaria.

### Herriko iturriak matxuratuta daude, ur barik

A.E. | ANTZUOLA

Herritar bat baino gehiago honezkero konturatuko zen Kalebarrenen eta Zurrategin dauden iturriek ez dutela urik ematen azkenaldian. Alkateak adierazi du matxura bat dela -eta daudela egoera horretan. "Bi iturriek ura leku beretik hartzen dute, eta hodietan dugu matxura", azaldu du Pedro Iturbek.

Badira aste batzuk aipatutako bi iturriak hondatu zirela. Ordutik hona, horiek nola konpondu aztertzen ibili dira Udaleko arduradunak, baina oraindik ez dute konponbiderik aurkitu. Iturbe alkateak azaldu du ez duela uste luzera joko duen arazoa izango denik; oraindik, baina, denbora batez ez dute urik emango bi iturri horiek. Iturbe alkateak uste du urtarrilean bertan konponduko dutela arazoa.




ARANTZAZU EZKIBEL

### Etxeko olioa uzteko edukiontzia

Frontoi bidean jarri dute erabilitako etxeko olioa uzteko edukiontzia. Eko3r enpresak jarri du edukiontzia; eta, gainera, olioa batzeko ontziak ere banatu dituzte etxe guztietan. Behin ontzia beteta dagoenean makinan utzi behar da, eta makinak berak ontzi berria itzuliko du. Mankomunitateko arduradunek adierazi dute aurrerantzean ez dela Puntu Berde Mugikorrik egongo.

### Candanchura irteera egingo dute otsaileko lehenengo asteburuan

Otsailaren 5erako eta 6rako hitzordua antolatu dute Arrola mendi taldekoek. Eski irteera egingo dute Candanchura. Zapatu goizean irtengo dira; Canfrancen egingo dute lo, eta baita afaldu eta gosaldu ere. Irteeran izena emateko azken eguna urtarrilaren 26a izango da. Informazio gehiago 635 20 58 41 telefono zenbakian (Iker).

### Antzuolak Urnieta hartuko du Eztalan bihar, 16:00etan

Etxeko taldeak Urnietaren aurka jokatuko du ligako hamaseigarren jardunaldiko lehia. Eztalan izango da, bihar, zapatua, 16:00etan.

Urteko lehenengo partidua bana berdindu zuten Garairen mutilek Urolaren aurka joan den zapatuan. Antzuola seigarren postuan dago, 26 punturekin.

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Arin Jatetxea
Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak
ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).
Enkarguak ere hartzen ditugu.
Astelehenetan eta martitzenetan itxita
Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta solamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

goienakluba"
Abantailaz betetako kluba!

ABENDUKO ZOZKETA

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: *kluba@goiena.com* | Kuota: 48 €.

IRABAZLEA
UMEENTZAKO LIBURUA
Umeentzako *Katalina* liburua.
PAMIELA
Miren Bengoa Leiba
Arrasate

IRABAZLEA
UMEENTZAKO IPUINA
Umeentzako *Abrite Portas* ipuina.
Ikastolen Elkartea
Eusebio Errasti Amozarrain
Arrasate

IRABAZLEA
UMEENTZAKO DVD-A
Umeentzako *Armis Kart* DVDa.
ELHUYAR Fundazioa
Marga Zabaleta Lamariano
Arrasate

IRABAZLEA
UMEENTZAKO PUZZLEA
Umeentzako *Argitxo basoan* puzzlea.
Ikastolen Elkartea
Aitziber Astola Elorza
Arrasate

IRABAZLEA
ERREMEIXUAK DVD-A
Erremeixuen DVDa.
kutxa goiena Bergarako Udala
Amaia Bikuña Martinez de Zuazo
Oñati

IRABAZLEA
DANBAKAKO PACK-A
Hiru diska eta kamiseta bat.
DANBAKA
Iñigo Eguren Konde
Bergara

SARI NAGUSIA
AZAROA-URTARRILA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

26 HAZBETEKO TELEBISTA
• 26"-ko TFT-LCD pantaila.
• Barneratutako TDT-a.
• HDMI.
• USB 2.0



EROSKI

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



Irailaren 19ko Txirritola Eguneko irudi bat. 30 bazkide inguru ditu Aramaioko Sagardogileen Elkarteak gaur. | GOIENA

# Arabako sagardogileen festa eguenean Iturrietan

## Korrika 2011ko Edurne Brouardek eta AEK-ko Mertxe Muxikak zabalduko dituzte kupelak hilaren 20an

**EDU MENDIBIL** | ARAMAIO

Arabako sagardogileek Sagardo Berriaren Eguna ospatuko dute datorren eguenean, hilaren 20an, Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Joan den urtean Trebiñu sagardotegian egin zen Arabako denboraldi irekiera eta aurten, berriz, Aramaion egingo dute lehenbiziko txotxa. Hitzordua 19:30ean izango da, eta, herriko eta Araba osoko sagardogileekin batera, Korrika 17ko ordezkariak izango dira Arraga auzoko sagardotegian. Hain zuzen ere, Edurne Brouard Korrikako koordinatzaileak eta Mertxe Muxika AEK-ko arduradunak zabalduko dute denboraldia. Trebiñun hasiko da aurtengo Korrika, apirilaren 7an.

Itxitako errepideak eragindako kalteak zirela eta, Iturrieta itxita egon da irailaren hasiera ezkero. Sasoi hartan ekin zioten sagardoa egiteari, eta, Juanjo Peciñak azaldu digunez, 9.000 litro sagardo inguru egin dituzte; hiru kupel irekiko dituzte eguenean. Bere garaian, 1.100 arbola inguru landatu zituzten Iturrieta inguruan. Peciña gasteiztarrak 1998ko Santiago egunean ireki zuen Iturrieta. Aurtengo sagardoari buruz hauxe diosku: "Uzta ona izan da, uda partean giroak lagundu duelako eta euria neurrian izan dugulako. Bere puntuan dator sagardoa... Dena dela, adjektibo honekin eta bestearekin deskribatzen saiatzen gara eta nik beti gauza bera esaten dut: onena norberak sagardoa dastatzea dela". Txalapartariak, bertsolariak eta trikitilariak ere izango dira egueneko festan.

**Mintzaeguna bihar Gasteizen**
Bestalde, bihar, zapatua, Mintzalaguna egitasmoan parte hartu dutenei zuzendutako ospakizuna izango da Gasteizen. Arabako Mintzalagunei ongietorria emango diete 10:30ean Montehermoso jauregian eta 11:00etan Gasteiz euskalduna ezagutzeko ibilbide gidatua egingo dute. Herri bazkaria Odon de Apraiz ikastolan izango da eta arratsalderako ere hainbat ekitaldi iragarri dituzte antolatzaileek. Egunari bukaera emateko triki-kantu kalejira izango da, 18:30ean.

### Zinema emanaldiak gaur gauean eta domeka arratsaldean

*Origen* filma eskainiko dute gaur, barikua, kultura etxean, 22:30ean. Domekan, umeei zuzendutako film emanaldia izango da ohiko ordutegian, 17:00etan. *El corral, una fiesta muy bestia* animaziozko filma ikusteko aukera izango da. Ume moko bat baserria zaintzen geldituko da, baina bertako animaliei gaiztakeriak eginez. Horren aurrean, Otis eta bere lagunek justizia bere esku hartzea erabakiko dute, eta Pizza bikiak salbatzeari ekingo diote.

### Argazki artxiboa osatzeko herritarren laguntza eskatu dute

Aramaioko Udalak artxibo fotografikoa osatzeko beka sortu du eta Naia Bailez izango da arduraduna. Artxiboa osatzeko herritarren laguntza eta parte-hartzea eskatu du Udalak. 1950. urtea baino lehenagoko argazkiak batu nahi dituzte. Interesatuek udaletxera eraman ditzakete argazki zaharrak astelehenetan 16:00etatik 18:00etara, eta posta elektronikoz bidaltzeko aukera ere badago, helbide honetara, hain zuzen: *itxasokultura@cuadrillazuia.com*. Argibide gehiago udaletxean, 945 44 50 16 telefono zenbakian.

### Goiena Telebistarekin arazoak izanez gero, berriro sintonizatu

Muruko antenan egindako aldaketak direla eta, baliteke Goiena Telebista ikusten zenuten hainbat etxetan orain ez ikustea. Kasu horretan, zure telebistan berriro sintonizatu beharko duzu Goiena Telebista. Hau da, zure telebistak berriro bilatu beharko du automatikoki (edo bestela zuk zeuk eskuz) 52. kanalean Goiena Telebista. Lurreko Telebista Digitalaren bitartez jasotzen duten etxeetan egin beharko dute aipatutako egokitzapena.

ELGETA

# Herriko premien berri izan du Edurne Egañak

## Garraio publiko hobea, dirulaguntza gehiago eta instituzioen arteko elkarlana eskatu dute herritarrek

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Astelehenean, Lehendakaritza eta Foru Administrazioko diputatu Edurne Egaña 15 bat elgetarrekin elkartu zen osoko bilkuren aretoan. Foru Aldundiak azken hiru urteotan landutako Kudeaketa Planaren berri eman ondoren, herritarrek diputatuari euren kezken berri emateko aukera izan zuten. Plazaratutako kezken artean nabarmendu ziren, besteak beste, Elgeta moduko herri txikiek Diputazioan duten pisu txikia, garraio publikoaren eskasia, inbertsio falta errepide sarean zein kulturgintzan eta instituzioen arteko elkarlanik ezak sortzen dituen arazoak.



Edurne Egaña, astelehenean, Elgetan egindako batzarrean. | TXOMIN MADINA

**Dirulaguntza gutxi**

Oxel Erostarbe alkateak diputatuari adierazi zion Elgeta moduko herrietara dirulaguntzak ez direla iristen. "Mila biztanletik beherako herriei laguntzak ematen zaizkiela nabarmendu duzu aurkezpenean, baina zer pasatzen da langa hori gutxigatik gainditzen dugun udalerriekin. Antzerako arazoak dauzkagu, baina hona ez dira iristen dirulaguntzak", esan zuen alkateak.

Beste herritar batek salatu zuen inbertsio handiak egin arren herri txikietako loturek berdin jarraitzen dutela. Garraio publikoan ere ahalegin handiagoa eskatu zuten elgetarrek. "Benetan sustatu nahi badugu, erraztasunak eman behar dira".

**ESANAK**

**"Hutsaren hurrena gara; dirulaguntzak ez dira iristen"**

OXEL EROSTARBE | ALKATEA

**"Hurrengo lehentasuna izango da loturak hobetzea"**

EDURNE EGAÑA | FORU DIPUTATUA

Kulturgintzan ere lurralde oreka kontzeptua aplikatzeko eta lanak zein baliabideak optimizatzeko instituzioen arteko elkarlana sustatzea eskatu zuten, halaber, elgetarrek.

**Ekarpen "interesgarriak"**

Edurne Egaña diputatuak interesgarritzat jo zituen Elgetan jasotako ekarpenak. Datorren agintaldiko lehentasuna loturak hobetzea izango dela adierazi zuen, eta esan zuen aurrekontu murrizketak aparte kultura elkarteetara dirulaguntzak bideratuko direla. Aitortu zuen instituzioen arteko elkarlana bideratzeko orain arte ezer gutxi egin dela, eta proposamena aintzat hartuko dutela agindu zuen.

# Plazako dantzak ikasteko bi ikastaro urtarrilaren 20an hasita

**L.Z.** | ELGETA

Joan den urteetan ikastaroetan parte hartu duten herritarrek eskatuta, Udalak bi dantza ikastaro antolatu ditu. Patxi Monterok gidatuko ditu saiook, hilaren 20an hasita. Ordubeteko 12 saio proposatzen dituzte, apirilaren 14ra bitarteko eguenetan egingo direnak. Lehenengo ikastaroa nagusiei bereziki zuzenduta dago; bigarrena, berriz, interesa duen edozein herritarri.

**Helburua, disfrutatzea**

Nagusien ikastaroa eguenetan 18:00etatik 19:00etara egingo dute. Balsa, pasodoblea, tangoa, boleroa eta jotak landuko dituzte, besteak beste. Prezioa, erretiratuendako, 10 euro da.

Plazako dantza tradizionalen ikastaroan, berriz, jauziak, korruko dantzak eta Europako dantza sozialak landuko dituzte. Ikastaro horren prezioa 25 euro da. Eman izena lehenbailehen udaletxean.

# Mankomunitateak kendu egin du Puntu Berde Mugikorra

**L.Z.** | ELGETA

Ez dugu herrian gehiago ikusiko gaikako bilketa egiteko hamabostean behin Mankomunitateak bidaltzen zuen kamioia. Aurrerantzean herritarren erantzukizuna izango da kamioi horrek jasotzen zituen hondakinak garbigunera eramatea. Angiozarko bidean dago gertuen dugun garbigunea.

**Olioa batzeko makina**

Mankomunitateak sukaldeko olio erabilia batzeko makinarekin ordezkatu du zerbitzu hori. Berraondokoan dago ipinita eta 24 orduz egongo da erabilgarri. Ontzi berezietan sartu behar da olioa makinan. Etxez etxe banatu dira, baina faltan izanez gero udaletxean eska daitezke.



Puntu Berde Mugikorra. | L.Z.

## III. FRONTENIS TXAPELKETA

### Lehenengo partiduak bihar

Gizonezkoetan zortzi bikotek eman dute izena eta bihar jokatuko dira lehen partiduak 17:30-etan hasita. Emakumezkoetan bi bikotek bakarrik eman dute izena. Azkenean, txapelketa mistoa jokatuko da. Izenematea zabalik dago.

**GIZONEZKOEN TXAPELKETA**

**Bihar, zapatua, 17:30etan**

Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi / Eneko Maguregi-Andoni Elortza

Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga / Iban Retolaza-Xabier Ubera

Mikel Arkarazo-Ander Gorosabel / Asier Untzetabarrenetxea-Ibon Untzetabarrenetxea

## OHARRAK

**KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute gaztetxean B.C. Bombs (punk rocka), Dirty Brothers (punk rock akustikoa) eta Hellbeer Boys taldeek (punka). Emanaldia 22:00etan hasiko da. Sarrera 4 euro da.

**LAPURRETA PAGATZAN**

Gune berrian kobrezko 350 metro kable lapurtu dituzte, linea oso bat. "Farolen kutxa zabaldu, moztu eta eraman egin dute", Ertzaintzaren esanetan. Udalak urgentziazko salaketa ipini du eta ikerketa martxan da.

LEINTZ GATZAGA

# Pilotalekuaren erabilera arautzea aztertzekotan dira

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Gatzagako pilotalekua edonork erabil dezake egun, herritar zein kanpotar, eta argindarra bakarrik ordaindu behar da. Eraberrituta dago orain pilotaleku hori, kanpoko estalkia aldatu diote eta guztiz itxi dute kristalarekin, eta jende gehiagok erabiliko ote duen beldur dira herritar batzuk. Gatzagan, gainera, hainbat erabilera ditu pilotalekuak: eskolako umeen jolaslekua, ospakizunen gunea eta eguraldi txarrarekin jolaserako tokia, beste batzuen artean. Hori horrela, arautu beharraren alde agertu dira batzuk.

**Ordubetera murriztea**

Udalak oraindik ez du kontu horren inguruko erabakirik hartu, eta Eusebio Villar alkateak esan du asteotan zelan funtzionatzen duen frogatu gura dutela: "Arazorik sortzen den ikusi gura dugu, eta gero erabakiak hartu". Hala ere, onartu du kexa batzuk jaso dituztela "luzaroan erabiltzen dutela batzuek" esanaz eta "erabilera ordubetera murrizteko" eskatuz.

Hala, bada, Udaleko kideek egingo duten hurrengo bileran aztertuko dute gaia, eta herritarren iritzia kontuan hartzeko asmoa agertu du alkateak.

# Interes txikia agertu dute herritarrek etxe berrietan

**M.A.** | LEINTZ GATZAGA

Herritarrek Gatzagan etxe berriak egiteko interesik duten jakin guran, galdeketa egin zuen Udalak duela hilabete. Asmoa da hiru etxebizitza egitea Udalak eta beste hiru eraikuntza enpresa batek. Alkateak, Eusebio Villarrek, esan du ez dutela interes handirik ikusi herritarren aldetik, nahiz eta batzuek galdeketa erantzun egin duten.

Gaiarekin aurrera egin aurretik enpresa horretako arduradunekin elkartuko dira udal ordezkariak, elkarrekin egin behar dituztelako, eta orduan erabakiko dute eskaintza Debagoienera zabaldu edo ez.

SARIAK

# DKSko finalistak aukeratu dituzte

- Urtarrilaren 21ean Aramaion egingo dute ekitaldia
- Herritarren saria emateko, sartu 'Goiena.net'-en


Jone Elortza oñatiarra bigarren izan zen munduko txapelketan. | KONTZEJUPETIK

XABIER URTZELAI | BERGARA

Debagoieneko Kirol Sarietako (DKS) epaimahaiko kideek aukeratu dituzte Debagoieneko aurtengo kirolari onenak, eta, aurreko edizioetan moduan, aurten ere buruhauste bat baino gehiago izan dute, bazegoelako non aukeratu.

Gizonezko kirolari onenen artean daude Alberto Iñurrategi (alpinismoa), Markel Irizar (ziklismoa) eta Beñat Arnaitz (duatloia). Eta emakumezko kirolari onenen artean, Maider Unda (borroka librea), Jone Elortza (soka-tira) eta Ane Sanz de Galdeano (igeriketa). Hala, irabazlearen izena Aramaion egingo duten ekitaldian bertan jakingo badugu ere, antolatzaileek aurten egindako lan ona aitortu nahi izan diete kirolari horiei.

**Beste sari batzuk**

Eurekin batera, talde onenaren saria jasoko dute Sustrai Aloña Mendi saskibaloi taldeko mutilek (hiru urtean jarraian igo dira kategoriaz), kirol ibilbidearen gaineko errekonozimendua izango da Aitor Zabaleta pilotu bergararrarendako (urteak daramatza Lola BMW autoarekin lehian, eta 2010ean ere Euskal Herriko mendiko sariko txapeldun izan da) eta teknikari onenaren saria izango da Alberto Garai kirol medikuarendako (puntako kirolari profesionalekin lan egitearekin batera, urteak daramatza ibarreko herri mailako kirolarien gaineko jarraipena egiten). Kirol babesle onenaren saria, berriz, Ford Mugarrirendako izango da. Sari horiek, eta gehiago, hilaren 21ean, Aramaion.


Beñat Arnaitz Espainiako txapeldunorde izan zen Segovian. | GOIENA


Markel Irizarrek palmaresa estreinatu zuen Poitou-Charentesen. | RADIOSHACK.COM


Alberto Iñurrategik Broad Peakeko gailurra egin zuen. | BAT BASQUE TEAM


Maider Unda. | MAIDERUNDA.COM


Ane Sanz de Galdeano. | GOIENA

## FINALISTEN ZERRENDA

**GIZONEZKOETAN**
- Beñat Arnaitz
- Alberto Iñurrategi
- Markel Irizar

**EMAKUMEZKOTAN**
- Maider Unda
- Jone Elortza
- Ane Sanz de Galdeano

**TALDE ONENA**
- Sustrai Aloña Mendi

**TEKNIKARI ONENA**
- Alberto Garai

**KIROL IBILBIDEA**
- Aitor Zabaleta

**BABESLE ONENA**
- Ford Mugarri

## Herritarren botoa sarean

Lehendik aipatutako sariekin batera, aurten herritarren saria eta kirolari anonimoaren saria ere egongo dira. Horrekin, herrian kirolaren alde lan egiten dutenen lana eskertu nahi da, eta baita kirola maila apalean egiten dutenak saritu ere.

Izenak ondo dioen moduan, herritarrek aukeratuko dute herritarren saria nori eman. Hala, *www.goiena.net* webgunean DKSk duen atalean sartu eta bertan aukeratu ahal izango duzue sari horrendako zuen hautagaia.


Sustrai Aloña Mendi saskibaloi taldea, talde onenaren saria. | GOIENA.


Alberto Garai kirol medikua. | GOIENA


Kirol ibilbidearen saria jasoko du Aitor Zabaletak; argazkian, Gatzagan. | GOIENA

FUTBOLA

# Realari bultzada, bolada txarrari aurre egiteko

X.U. | ARETXABALETA

Astelehenean, lainopean zelairatu ziren Realeko jokalari eta arduradunak, etxetik kanpora egin zuten urteko lehen entrenamendu saioan, Aretxabaletan. Baina Ibarran batutako zaleek –zelaia goraino bete zen– bizkor berotu zituzten bazterrak. Inguruko ikastetxeetako ume eta gazteak izan ziren futbol zelaian, eta tartetxo bat hartu zuten heldu eta nagusiek ere. Martin Lasarteren begiradapean –gripeak jota omen zegoen– egin zuten lan-saioa, ordubete ingurukoa, eta ondoren eromena izan zen. Autobusera bidean zaleekin izan ziren jokalari guztiak, sinadurak eman eta argazkiak ateratzen.

Ibarra atzean utzita, Realeko ordezkariek Arrasaten egin zuten hurrengo geldialdia, talde txuri-urdinaren babesle den Astoreren lantegian bisita egin zuten-eta.

**"Egoerari buelta eman"**

Gaztetxoei sinadurak egiteaz batera, Llorentek, De la Bellak, Zurututzak eta Mikel Gonzalezek tartetxoa hartu zuten Goiena Telebistako lankideen galderei erantzuteko. Denek adierazi zuten hako harrera beroak izugarri eskertzen dituztela, eta are gehiago taldea moralki baxu dagoenean. Getaferen kontrako partidurako (zapatua, 18:00) indarberrituta itzuli ziren Zubieta aldera.



Talde argazkia, entrenamendu saioa hasi baino lehen; atzean, Ibarrako harmailak jendez beteta. | MIRARI ALTUBE



Kapitaina, lehena zelairatzen. | M.A.



Llorente, autobusera bidean. | M.A.



*Gontxa*, korrika. | M.A.



Antoine Griezmann. | M.A.



Xabi Prieto. | M.A.

FUTBOLA

## Bergarak eta Aretxabaletak jokatuko dute etxean

Ohorezko erregional mailan 18. jardunaldia jokatuko dute ibarreko lau ordezkariek. Eta lau horietatik, Bergarak eta Aretxabaletak jokatuko dute etxean. Maiztegiren mutilek Oiartzunen bisita izango dute bihar, zapatua, Agorrosinen, eta Aretxabaletak domekan jokatuko du, 16:30ean, Roteteren kontra.

Etxetik kanpora, Aloña Mendik Hernaniren zelaira egingo du bisita bihar (16:00). Mondrakoak, berriz, Ordiziara joango dira (15:00)

XAKEA

## Arrasate San Andres eta Arlutz batu egin dira lehiarako

Debagoieneko bi talde nagusiak batu egin dira Ohorezko Euskal Liga gogorrean talde oretatuagoa izateko, baina baita beheko kategorietan ere ondo lehiatzeko. Hala, Fran Miguel, Andoni Miguel, Aitor Alcaide, Josu Tornay eta Txema Hernando izango dira lehen talde horretan. Eta preferentekoan jokalari gazteak bateratu dituzte, harrobia lantzeko. Egunerokoan, baina, klub bakoitzak, orain arte moduan, bere jarduerekin jarraituko du.



# Debagoieneko **OSASUN ZERBITZUAK**

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

KULTURA

DANBAKA MUSIKA LEHIAKETA

# Sorpresaz betetako finala dator

- 22:30ean hasiko da Danbakako laugarren edizioko finala Elgetako Espaloia antzokian
- Talde finalistek abesti berriak eta hainbat sorpresa gertatu dituztela adierazi dute

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Gertu dituzte musikariek instrumentuak eta ahotsa Espaloiko oholtza gainera igo eta ikuskizuna emateko. Xarma ondarrutarrak, Soraluze eta Bergarako Desprezio eta Lord Witch bergararrak iritsi dira finalera. 22:30ean hasiko da emanaldia. Sarrera 5 euro kostako da; Gaztekutxarekin eta TopaKide txartelarekin, berriz, 3 euro izango da.

Hiru finalisten emanaldiaren ondoren Atom Rhumba bilbotarrek girotuko dute Espaloia, irabazleak zeintzuk izan diren aditzera eman arte. Talde irabazleak diskoa grabatuko du Shot estudioan. Debagoieneko talde onenak, ostera, MUk babestuta, bideoklipa grabatuko du.

JON KIRRU
XARMA TALDEKOA
FINALISTA

## "Sorpresatxoren bat badaukagu"

Ondorrutarrak pozik daude gaurko Espaloiko finalari begira. "Gustura eta pozik jaso genuen epaimahaiaren erabakia. Kontzertu aldrebesa eman genuen; izan ere, sokak hautsi zitzaizkigun eta arazo tekniko ugari izan genituen zuzenean", azaldu du Jon Kirruk, Xarma taldeko kideak, Danbakako laugarren kontzertua gogoratzean. Hori dela eta, ez zeukaten esperantza handirik finalerako txartela eskuratzeko. "Baina arazo guztiei nola buelta eman genion eta aurrera nola egin genuen ikusita, gu oso gustura gelditu ginen, disfrutatu egin genuelako agertokian", adierazi du Kirruk.

Gaurko finalari begira ze emanaldi mota eskainiko duten galdetuta, sorpresatxoren bat egongo dela aurreratu dute ondarrutarrek. "Finalerako sorpresatxoren bat gordeko dugu, eta kantu berriren bat ere eskainiko dugu", azaldu du Kirruk. Rock gogorra egiten dute.

Finalari begira ilusiorik duten edo ez galdetuta, ez dutela ilusio handirik egin nahi azaldu du Kirruk. "Izan ere, epaimahaiak irizpide eta iritzi asko ditu eta edozer gerta daiteke gaurko finalean". Hortaz, emanaldiaz gozatzera eta ondo pasatzera etorriko dira ondarrutarrak.


Atom Rhumba taldeko kideak. | GOIENA

## "Disko berriko abestiak joko ditugu"

Atom Rhumbako Joseba Irazokik esan du ezagutzen zuela Danbaka lehiaketa; izan ere, Pettirekin izan zen hirugarren edizioko finalean. "Lehiaketek musika giroa sortzen dute zonaldean, eta balio dute jendea erakartzeko", azaldu du. *Gargantuan Melee* azken laneko abestiak joko dituzte gaur Espaloian: "Batez ere disko berriko abestiak joko ditugu baina baita aurrekoak ere". Finaleko hiru taldeen ondoren joko dute.

'PORRU'
DESPREZIO TALDEKOA
FINALISTA

## "Dena emango dugu gaurko finalean"

"Harrituta baina era berean pozik gaude. Erronka bat izango da guretzako eta dena emango dugu", azaldu du *Porru* Desprezio taldeko kideak gaurko finalaz galdetuta. Epaimahaiaren erabakiarekin sorpresa hartu duten edo ez galdetuta, esan digu sorpresa izan zela eurendako finalean egongo zirela jakitea. "Guk ondo pasatzeko helburuaz eman genuen kontzertua eta finalerako txartela eskuratzea pozgarria izan da", gaineratu du *Porru*-k.

"Entseatzen ari gara, baina inprobisazioa ere izango da gaurko zuzenekoan", dio *Porru*-k. Finalean jende asko egongo da eta urduritasunak gaindituta "dena emango" dutela azaldu du Desprezioko kideak.

Gainerako finalistak nola ikusten dituzten galdetuta, *Porru* -k dio euren estiloan "bikain" moldatzen diren taldeak direla.

IKER NARBAEZ
LORD WITCH TALDEKOA
FINALISTA

## "Ikuskizuna eskainiko dugu, beti bezala"

GOIENAn irakurrita jakin zuten bergararrek finalerako sailkatu zirela. "Bi aldiz irakurri behar izan nuen egia zela ziurtatzeko", dio Iker Narbaezek, Lord Witch taldeko kideak. Sorpresa izan zen, baina sorpresa atsegina.

"Finalari begira hainbat sorpresa ditugu, batez ere bukaera aldera egingo ditugunak. Beti bezala, ikuskizuna eskainiko dugu", azaldu du Narbaezek gaurko emanaldiaz galdetuta. Gaurkoan zer joko duten galdetuta: "Abesti berri batzuk izango ditugu, baina gure himnoak direnak ere joko ditugu, jendeak abestiak ezagut ditzan", dio.

Gainerako bi taldeak oso ondo ikusten dituztela esan du Narbaezek; eta epaimahaiak zer erabakiko duen ez dagoela jakiterik dio. "Gu ondo pasatzera joango gara eta helburua ikusleek ondo pasatzea izango da", dio.


Xarma taldekoak Espaloiko kontzertuan.


Soraluze eta Bergarakoak dira Desprezioko kideak.


Lord Witch taldeko kideek ikuskizuna bermatuko dute. | ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL



The Beat Junkies talde kaliforniarrak Oñatiko gaztelekuan joko du. | GOIENA

# Munduko DJ onenen musika zuzenean entzuteko aukera

Kontzertua Oñatiko gaztelekuan izango da gaur, egubakoitza, 22:30ean

**ARANTZAZU EZKIBEL** | OÑATI

Hip-hop musika eskainiko du gaur The Beat Junkies taldeak Oñatiko gaztelekuan. Gaztemaniak! ekimenaren barruan antolatutako kontzertua izango da. 22:30ean hasiko dute kontzertua eta sarrera 7 euro kostako da.

Kaliforniako Orange hirian 1992an sortutako taldea da The Beat Junkies. J Rocc, DJ Rhettmatic, DJ Babu eta DJ Melo-D musikariek osatzen dute taldea. Gainera, beste hainbat musikariren parte-hartzea ere izan ohi dute euren ikuskizunetan; besteak beste, What? DJak, Mr. Choc, Icy Ice, Curse, D-Style eta Shorkut-ek parte hartu izan dute kontzertuetan.

Munduan DJ talde garrantzitsuenetakoa izatera iritsi dira kaliforniarrak azken urteetan egindako lanagatik.

**Bakarkako bidea**

DJ horien ibilbidea ez dago The Beat Junkies taldeari bakarrik lotuta, nork bere bakarkako ibilbideagatik eta hip-hoparen esparruko talde ezagunekin parte hartzeagatik ere ezagun egin dira -eta musikariak.

Taldeak lortutako sari nagusien artean hainbat lehiaketa daude: besteak beste, DMC, The Supreme eta International Turntablist Federation sari garrantzitsuak lortu dituzte. Guztiak mundu mailan sari ezagunak eta garrantzitsuak.

## Estilo dibertigarria Novatoren eskutik

The Beat Junkies taldearen aurretik DJ Novatok egingo du emanaldia. Oso denbora laburrean *dancehall* estiloan ezagun egin da Novato gaztea. Musika dibertigarriaren aldeko apustua egiten du, aurreiritzirik gabekoa, ezin hobea une atsegina pasa eta gorputza mugitzeko. Bere musikan erritmo indartsuak eta soinu efektistak dira nagusi. Estiloari dagokionez, Jamaikako *dancehall*-etik oso gertu dago Novatok egiten duen musika.




DJ Novatok gonbidatu lanak egingo ditu. | GOIENA



# Neguan zer irakurri, zer entzun eta zer ikusi proposatzen duen gida kaleratu dute

Debagoieneko udal liburutegiek aurkeztu dute gida; liburuak, diskoak eta ikus-entzunezkoak daude

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Seigarren urtez jarraian atera dute Debagoieneko udal liburutegiek neguko gida. Neguan zer irakurri, zer ikusi eta zer entzun proposatzen dute gidan. Hala, gidan agertzen diren produktu guztiak udal liburutegietan daude eskuragarri.

Mankomunitateak laguntzen du diruz gida egitea. "Azkeneko momentura arte ez genekien aurten gida egingo genuen edo ez. Eurek baloratu dute gida honek ze garrantzi duen, eta horregatik eskertu nahi genien. Krisiak, oraingoz, ez gaitu ukitu", azaldu du Asun Agirianok, Arrasateko Udal Bibliotekako arduradunak.

**Mundu mailako irudia**

"*I love NG* iruditu zaigu aukerakoa. Mundu mailan oso zabaldurta dagoen irudia da; ikono bat da", dio Agirianok. Hain zuzen, irudia da aurtengo gidan nabarmendu gura izan duena.

Gida egiteko, Mankomunitateko liburuzain guztiak biltzen dira, hiru bat bider. Liburuak irakurri, diskoak entzun eta pelikulak ikusi ostean, guztien artean aukeraketa egiten dute. Gida adinaren arabera sailkatuta dago: 0 urtetik aurrera; 6 urtetik aurrera; 9 urtetik aurrera; gazteak; eta helduak.



Neguko gidan agertzen diren hainbat produktu. | GOIENA

ESANAK

**"Mundu mailan oso zabaldua dagoen irudia aukeratu dugu, ikono bat"**

**"Azkeneko momentura arte ez dugu jakin gida egingo genuenik"**

**ASUN AGIRIANO** | ARRASATEKO UDAL BIBLIOTEKAKO ARDURADUNA

**Nabarmentzeko produktuak**

Filmei dagokienez, zortzi film aukeratu dituzte gidarako. Horien artean, nabarmentzekoa da Agirianoren ustez *Anvil, el sueño de una banda de rock* dokumentala. Heavy talde baten istorioa kontatzen du. Ezagun egiteko egin behar den lanaz dihardu filmak. "Gogoa eta indarra jarriz gero ametsak bete egiten direla esan gura du filmak", azaldu du Agirianok.

*Ciudad de vida y muerte, Increible pero falso, A propósito de Elly, Soul Kitchen, El concierto, Shutter Island* eta *Welcome* dira gainerako filmak.

Musikari dagokionez, zortzi disko sartu dituzte gidan. Aipatzekoa da *Txinaurriak, Mikel Laboari ikasitako kantuak.*

**Nagusien liburuak**

"Liburuetan, helduen tartean, *Fikzioaren izterrak* nabarmenduko nuke. Ipuin liburua da, Ur Apalategi Baionako idazlearena", dio Agirianok. Ipuin umoretsuak dira, ironia handikoak. Apalategiren liburuetan literatura gaiak izaten dira ipuinen gaiak; eta, kultur mundua kritikatzen du, besteak beste.



Neguko gidaren azala. | ISLADA MULTIMEDIA

Aipatutakoaz gain, helduei zuzendutako beste 15 liburu ere sartu dituzte neguko gidan. Gazteen liburuei dagokienez, 16 liburu sartu dituzte liburuzainek; eta, haurren kasuan: 0 urtetik gorakoendako 16 liburu, 6 urtetik gorakoendako 16 liburu eta 9 urtetik gorakoendako beste 16 liburu. Produktu guztiak Debagoieneko liburutegietan daude.

# Munduan zehar egindako bira musikala azalduko dute Ray eta Nick musikariek

'Xentimorik gabe' antzezlana eskainiko dute gaur Zabalotegin, 22:00etan

**A.E.** | BERGARA

Ramon Agirre eta Iñaxio Tolosa aktoreen lanaz gozatzeko aukera egongo da gaur, egubakoitza, Bergarako Zalabotegi aretoan. *Xentimorik gabe* lana eskainiko dute Agirrek eta Tolosak.

Ikuskizuna 22:00etan hasiko da eta sarrera 5 euro kostako da.

**Bi musikariren bizitza**

Agirrek eta Tolosak Ray eta Nick musikarien istorioak kontatzen dituzte. Orain dela 20 urte inguru elkartutako bikotea dira Ray eta Nick. Ospea lortu eta amaigabeko bira hasi zuten bi musikariek munduan zehar. Fama ezagutu zuten, luxua dastatu eta musikari onenekin egon ziren oholtza gainean. Halako baten, baina, herrimina sentitu eta Honorio doktorearen gomendioz Euskal Herrira itzultzea erabaki dute, Otaño sindromea gainditzeko.

**20 urteko biraren berri**

Musikariek, hortaz, munduan zehar bizi izandako bira azalduko dute gaurko ikuskizunean. Musikarekin lagunduko dituzte kontakizun eta pasadizoak bi aktoreek. Agirrek gitarra joko du eta Tolosak tronpeta, klarinetea, harmonika eta bestelako instrumentuak.

Musika eta umorea izango dira ikuskizunaren ardatz.

**Inprobisazioa izango da nagusi**

Aktoreek esan dute eskema bat jarraitzen saiatzen diren arren inprobisazioa dela nagusi. Frantsesez, italieraz, euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez... Edozein hizkuntzatan abesten dituzte euren "plagio" edo "bertsioak". Adibidez, emanaldian, Elvis Presleyren *Jailhouse rock* doinua eskainiko dute.

Pako Aristi idazlearen babesa izan dute Agirrek eta Tolosak doinuen moldaketa egiterakoan, eta Asier Sota aktore donostiarra kaosari ordena ematen saiatu da, gidoiarekin lagunduz.

Ondo pasatzeko aukera paregabea izango da gaur Zabalotegi aretoan, hortaz.


Iñaxio Tolosa eta Ramon Agirre aktoreak. | GOIENA



*Vaya Semanita*. | GOIENA

## 'Vaya Semanita' ikusteko sarrerak salgai daude

**A.E.** | BERGARA

ETBko saioan oinarritutako antzezlana ikusi gura dutenek dagoeneko eros ditzakete sarrerak Oñatiko kultura etxean, 12 eurotan. Emanaldi bikoitza egingo dute hilaren 28an Santa Ana aretoan: 20:00etan 22:30ean.

Andoni Agirregomezkorta, Javier Anton, Itziar Atientza, Iker Galartza, Maňu Elizondo eta Leire Ruiz igoko dira oholtza gainera. ETBn ematen duten *Vaya semanita* saioko momenturik onenak aukeratu eta antzerkirako moldatu dituzte. Egunerokotasunaren kronika egingo dute.

# FINALA

**SARRERAK ETA ABONUAK //**
SALGAI DAUDE:
1 > GOIENAKO EGOITZETAN
2 > **943 25 05 05** ZENBAKIAN
3 > ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA **5 EURO** //
GAZTEKUTXAREKIN **3 EURO**

**urtarrilak**
**14**
**EGUBAKOITZA**
**22.30**
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA




FINALISTAK
**DESPREZIO**
ARRASATE / SORALUZE
**XARMA**
BERRIZ / ONDARROA
**LORD WITCH**
BERGARA

TALDE
GONBIDATUA
**ATOM RHUMBA**

BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte

LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Elgetako Udala · gaztelupeko HOTSAK www.hotsak.com · SHOT! · PIL-PILEAN · B · eta kitto! Euskara Elkartea · GAURKO grupo SEIN taldea · GANESHA TATTOO ARRASATE · laino SKATEPARK · anboto komunikabideak · drogetenitturri

ANTOLATZAILEAK
goiena
KAFE ANTZOKIA espaloia ELGETA

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:**
**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
**- Profesionalen moduluak.**

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Bi logela, sukaldea, komuna eta egongela. 615 73 87 01 edo 943 76 22 56.

**Aramaio.** Aukera paregabea. 2001eko etxebizitza salgai. 70 metro koadro. Garaje itxia. Ganbara. Zuzenean bizitzera sartzeko moduan. Aita Gabirel kalean. 177.300 euro.656 73 13 21

**Bergara.** 98 metro koadroko etxebizitza salgai Toki Eder plazan (Espoloia). Lau logela, bi komun, igogailua, ganbara eta garajea. Deitu 628 62 45 75 edo 688 64 71 73 zenbakietara.

**Eskoriatza.** 47 metro koadroko apartamentua salgai. Logela bat. Sukaldea jantzia. Garajearekin. Hiru urteko eraikuntza. 21:00etatik aurrera deitu, mesedez. 650 95 56 44

**Oñati.** 60 metro koadroko etxebizitza salgai San Lorentzon. Bi logela, komun bat eta sukalde -egongela. Jantzia eta berritua. 192.000 euro. Deitu 20:00ak eta 22:00ak artean, mesedez. 699784749

**Oñati.** Kalebarrian 71 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea, egongela eta komuna guztiz hornituak. Patio erabilgarria, ganbara eta garaje itxia. Prezio ona.665 71 77 98

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21,

**Arrasate.** Zarugalde kalean etxebizitza ematen da errentan. Sukaldea, egongela, bi komun eta bi logela. Berokuntza eta igogailuarekin. 656 75 00 94

**Debagoiena.** Etxebizitza bi ematen dira errentan. Bata Aramaion eta bestea Arrasaten. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 647 22 09 38

**Oñati**. San Lorentzon etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. 650 56 62 06

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartu nahi dut Arrasaten, gehienez 550 euro ordainduta. 667 84 47 94. (Nabit)

**Arrasate.** Arrasatear neska langile eta arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan Arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. 606744237

**Bergaran.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 2 edo 3 logelarekin. 677 77 2231

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 695 72 79 55

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, kontratuarekin. Ordaintzeko arduratsua naiz.666 21 88 95 edo 943 79 74 13

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Erguin auzoan. Hilean 280 euro, gastuak barne. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 648 19 10 38

**Arrasate.** Logela ematen da errentan, sukaldea eta egongela erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 666 68 00 04 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakira

**Arrasaten edo Aretxabaletan** logela bila nabil. Ikaslea naiz. Deitu 689 18 04 12 telefono zenbakira

**Bergara.** Etxebizitza osatzeko pertsona behar da, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Bolun.670 85 86 68

**Bergara.** Bi logela ematen dira errentan Bolun, prezio onean. Interesatuok deitu zenbaki honetara:645 67 79 75

**Bergara.** Logela ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin.650 62 12 94 edo 943 08 22 60

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat edo bi behar dira. Interesatuok deitu 18:00etatik aurrera 653 74 87 51 telefono zenbakira.

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Debagoiena**. Emakume euskaldun bat behar da emakume heldu bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 696 46 03 85 telefono zenbakira

**Oñati.** Emakume edo neska behar da arratsaldez hiru ume euskaldun zaintzeko. Deitu lanegunetan 13:00etatik 16:00etara edo 20:00etatik aurrera:665 71 22 15

**ARRASATE**
2-3 pertsonarendako lanlekua errentan, merke. Kioskoa-ogitartekoak...
943 77 13 02

**ARRASATE**
Neska behar da asteburuetan tabernan lan egiteko.
617 68 01 50

**ARETXABALETA**
Pertsona bat behar da tabernan lan egiteko.
688 68 54 65

**BERGARA**
Zerbitzaria behar da.
943 76 56 41

**ESKORIATZA**
Pub irlandarra (garagardotegia) ematen da errentan.
650 05 99 71

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Eskarmentudun emakumea gertu adinekoak zaintzeko. Egunez zein gauez. Deitu 943 53 33 92 telefono zebakira.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. Deitu 699 54 17 27 telefonora.

**Arrasate.** Asteburu eta jaiegunetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa zein plantxa lanetan. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny Salvatierra. 682 31 97 37

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeko lanak egiteko. Deitu 943 76 28 12 telefono zenbakira.

**Bergara.** Garbiketa lanetarako eta pertsona edadetuen zaintza lanak egieko gertu nago. Deitu 691 03 25 02 telefonora.

**Bergara.** Bertako neska gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

**Bergara.** Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 665 75 41 32 telefono zenbakira.

**Bergara.** Orduka lan egingo nuke. Geriatria titulua daukat. Esperientziaduna.650 62 12 94 edo 943 08 22 60

**Debagoiena.** Arrasaten, Aretxabaletan edo Bergaran lan egingo nuke arratsaldeetan, pertsona nagusiak zaintzen edo bestelako lanak egiten. Erizain laguntzaile ikasketak egiten nabil. Deitu 689 18 04 12 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu ume eta nagusiak zaindu edo orduka garbiketak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki hauetara. Finkora arratsaldez edo gauez deitu, mesedez. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Emakumea gertu lan egiteko, garbiketa lanetan, sukalde laguntzaile moduan edo pertsona nagusiak zaintzeko. 645 67 82 24 edo 943 08 11 07

**Debagoiena.** Gazte arduratsuak, paperekin eta gidatzeko baimenarekin lan egingo luke. 677 77 22 31

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixoak ospitalean zaintzeko ere, gauak arne. 08:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik 08:00etara egingo nuke lan. Mirian. 646 05 58 88 edo 943 79 79 49

**Debagoiena.** Neska boliviarra gertu nagusiak zaindu zein garbiketa lanetarako. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak eta esperientzia daukat. Deitu 618 14 71 34 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bertan bizitzen edo asteburu zein gauak egiteko gertu nago. Erreferentzia onak. Interesatuek dei telefono honetara: 606 72 28 76

**Debagoiena.** Soldatzaile, margolari, mekanikari edo mendietan lan egiteko gertu. Deitu 645 67 82 24 edo 943 08 11 07 telefono zenbakietara.

**Emakumea.** gertu garbiketa lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiekin paseatzeko, 13:30etatik 19:30etara. Interesatuek dei telefono honetara: 677 81 10 00

